



Agurri Barrasori
elkarrizketa,
ikastolez

Azter ditzagun
nagusiekiko
jarrerak



SARETU ETA ELKAR INDARTZEKO EKIMENA MARTXAN DUTE ELGETAN

Alor askotako 22 eragileren parte hartzearekin
egingo dute I. Herri Azoka, gaur arratsaldean / 39

Ekimenarekin bat egin eta azokan parte hartzeak diren eragileetako hainbat, eguaztenean, Mendizaleen plazan. XABIER URTZELAI ATXA



EH Bilduko ordezkariak, Bergaran egindako ekitaldian. IÑIGO BARRENA

**Hiru ardatzeko proiektu estrategikoa
aurkeztu du EH Bilduk eskualderako / 4**



SANJUANAK 2024 / 19

SINADURAK

	AGURRI JULDAIN / 6		JOANES PLAZOLA / 41
	IRENE PEREZ ZUMALDE / 46		MIKEL BIANI / 56

BULEGOAK ALOKAGAI GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak
60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46




EH Bilduk irabazi ditu Europako hauteskundeak Debagoienez

Ibarreko udalerri guztietan EH Bildu izan da nagusi eta bigarren alderdia EAJ izan da; Gipuzkoan ere ezker abertzalea izan da lehen indarra, baina Bizkaian, Araban eta Nafarroan alderdirik bozkatuena PSOE izan da. Abstentzioa %46,86koa izan da ibarrean

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Ekainaren 9an egin ziren Europako Parlamenturako hauteskundeetan Debagoieneko herri guztietan alderdirik bozkatuena izan da EH Bildu, 12.220 botoekin –botoen %46,53–. 2019an baino 1.938 boto gutxiago lortu baditu ere, gainerako alderdiekiko zuen nagusitasuna handitu egin du bailaran. Bigarren indarra EAJ izan da, 6.479 botoekin –botoen %24,67–, eta 2019an baino 5.426 boto gutxiago eskuratu ditu. PSOE izan da hirugarren alderdia ibarrean, 4.425 botoekin, eta laugarrena PP izan da, 1.006 botoekin. Azken bi alderdi horiek 2019an baino babes handiagoa jaso dute; hain zuzen ere, 550 eta 321 boto gehiago jaso dituzte, hurrenez hurren.

Sumarrek botoen %2,67 lortu ditu –701 boto– eta Podemosek botoen %2,42 –636 boto–. VOX, berriz, 243 lagunek bozkatu dute bailaran –botoen %0,93–.

Hego Euskal Herrian, aldiz, Bizkaian, Araban eta Nafarroan Alderdi Sozialista nagusitu da, baina Gipuzkoan EH Bildu izan



da alderdirik bozkatuena. EH Bilduk lau lurraldeetan egin du gora; alabaina, EAJk Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban hamarna puntu galdu ditu. Horren adierazle da Gipuzkoan hirugarren indarra izatera pasatu dela eta Araban, laugarrena. Bizkaian bigarrena izaten jarraitzen du.

Bestalde, aipatzekoa da Ipar Euskal Herrian eskuin muturra nagusitu dela.

Espanian, kontrara, Alderdi Popularrak eskuratu ditu eserleku gehien: 22; ondoren, sozialistek hogeita eta VOXek sei. Orain Errepublikak –EH Bilduren koalizioa– hiru eserleku lortu

ditu, Sumarrek eta Se Acabo la Fiestak bezain beste; Podemosek bi eta CEUSEK –EAJren koalizioa– eta Junts+–ek bana.

Datuak herriz herri

Debagoienez 49.544 herritar zeuden bozkatzera deituta eta 26.330 debagoiendarrek eman zuten botoa; %53,14k, 2019an baino hamasei puntu gutxiago.

Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan Debagoieneko joera mantendu da eta alderdi bozkatuena EH Bildu izan da, eta nagusitasuna areagotu du. EAJ izan da bigarren alderdia, baina botoak galdu ditu 2019arekin alderatuta. Hala, PSOE eta PP izan dira hirugarren eta laugarren indarrak eta bozketan gora egin dute. Sumar eta Podemos izan dira hurrengo indarrak.

Herri txikietan gertatu dira aldaketak Debagoieneko emaitzekin alderatuta. Antzuolan, adibidez, lehen hiru alderdi nagusiak bailarako berberak izan badira ere, laugarren alderdia Podemos izan da, botoen %3rekin. PP izan da bosgarrena; seigarrena, Sumar.

EH Bildu, EAJ, PSOE eta Podemos dira Aramaion gehien bozkatu dituzten lau alderdiak. Gero, Sumar izan da alderdirik bozkatuena. Voxek boto bat gehiago eskuratu du PPK baino.

Elgetan, aldiz, lehen hiru indarrak bailarako datuekin bat badatoz ere, Sumar izan da laugarren alderdia, eta, ondoren, bozkatuenak izan dira PP, Vox eta Podemos, zortzi, zazpi eta sei botoekin.

Leintz Gatzagan ezker abertzalea izan da alderdi nagusia eta EAJ, bigarrena. Sumar eta Po-

demos alderdiak izan dira ondoren bozkatuenak, eta PSOE eta Voxek boto bana jaso dute.

Lehen bi indarren balorazioa

Bailaran lortutako emaitza ontzat jo du koalizio abertzaleak. EH Bilduko Gorka Artolak nabarmendu egin du jaso duten boto kopurua, bigarren indarraren botoak ia bikoiztu egin baitituzte: "Uste dut alternatiba moduan ikusten gaituztela herritarrek, eta hori positiboa da". Europar ultraeskuinaren gorakadaren aurrean EH Bilduren papera oposizioa egitea izan beharko litzatekeela dio.

Halaber, EAJko Iker Lakak adierazi du jeltzaleek hausnarketa egin behar dutela, euren aldeko boto kopurua ia erdira jaitsi baita: "Egia da Debagoienez emaitza kaskarrak izan ditugula, baina bigarren indarra izaten jarraitzen dugu, eta, azkenean, alternatiba badago hor". Atera duten ondorioa da ez direla kapaz izan euskal agenda kanpainan gailentzeko.

Europako Batasunaren erronkak

Europako Parlamenturako hauteskundeetako emaitzak kontuan hartuta, Ekai Group-eko zuzendari Adrian Zelaik Europako Batasunaren etorkizunaz hitz egin du Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan, eta nabarmendu du epe laburrera badi-tuela "funtsezko" erronkak: "Lehena da gerra, edo gerraren arriskua, ze hori leher daiteke edozein momentutan. Europak birkokatu behar du mundu mailako testuinguru horretan. Erronka ekonomiko eta demografikoa erronka zailagoak dira, eta aztertu egin behar dira".

Hauteskundeetako emaitzak herriz herri

	ANTZUOLA		ARAMAIO		ARETXABALETA		ARRASATE		BERGARA		ELGETA		ESKORIATZA		LEINTZ GATZAGA		OÑATI		DEBAGOIENA	
	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%	Botoak	%
EH BILDU	499	%53,26	279	%52,94	1.430	%46,79	3.496	%40,86	2.890	%46,64	277	%55,73	732	%45,05	54	%60,00	2.563	%53,65	12.220	%46,53
EAJ	233	%24,87	155	%29,41	746	%24,41	1.884	%22,02	1.639	%26,45	134	%26,96	369	%22,71	25	%27,78	1.294	%27,09	6.479	%24,67
PSOE	118	%12,59	35	%6,64	513	%16,79	1.869	%21,84	995	%16,06	36	%7,24	322	%19,82	1	%1,11	536	%11,22	4.425	%16,85
PP	25	%2,67	3	%0,57	126	%4,12	432	%5,05	211	%3,41	8	%1,61	67	%4,12	0	%0,00	134	%2,81	1.006	%3,83
SUMAR	11	%1,17	19	%3,61	80	%2,62	319	%3,73	129	%2,08	13	%2,62	58	%3,57	3	%3,33	69	%1,44	701	%2,67

OHARRA: DEBAGOIENeko BOST ALDERDIRIK BOZKATUENAK HARTU DIRA KONTUAN

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

Ordutegi aldaketak osasun-etxeetan udan

Uda garaian osasun-zentroetan ordutegi aldaketak egingo dituela iragarri du Osakidetzak. Bailarako anbulatorioetan ere aldaketak egongo direla aurreratu du Debagoieneko ESik, eta "dena itxita" daukatenean jakinaraziko duela ordutegia

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Osakidetzak osasun-etxeetako arreta emateko ordutegian aldaketak egingo ditu udako hilabeteetan, eta adierazi du ordutegiak "asistentzia-eskariaren murrizketara" egokituko dituela. Oro har, 08:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegia izaten duten zentroak 08:00etatik 17:00etara egongo dira zabalik -Debagoiengan, Arrasate eta Bergarako anbulatorioen kasua izango litzateke-; 08:00etatik 17:00etara arteko ordutegia dutenek, berriz, 15:00ak arte emango dute zerbitzua -bailaran Oñatiko eta Aretxabaletako osasun-zentroen kasua izango litzateke-. Alabaina, Debagoieneko ESik ez daki nola eragingoen aldaketak bailaran eta aurreratu du "dena itxita" daukatenean jakinaraziko dutela ordutegia.

Osakidetzatik azpimarratu dute kontsulta medikuen kopurua neguko hilabeteekin konparatuta %33 jaisten dela udan eta horregatik aldatuko direla ordutegiak: "Neurri hori baliabide publikoaren jasangarritasunean eta erabilera eraginkorrean oinarritzen da eta, gainera, Lehen Mailako Arretako profesionalen atsedenerako bide emango du". Dena den, gaineratu dute irekiera ordutetatik kanpora osasun-asistentzia bermatuta egongo dela Etengabeko Arreta Guneetan (EAG), eta gunehorietako zerbitzua sendotu egingo dutela.

Udako eta urte osoko murrizketek lotuta, aramaioarrek 392 sinadura aurkeztu dituzte Osakidetzan, herriko kontsultategian osasun-zerbitzu jarraitua izan dezaten (Ikus. 13. orria).

ELA, ordutegi murrizketaz

Osakidetzak udan ordutegia aldatzeko hartu duen erabakia dela-eta, ELA sindikatuak salatu du murrizketa horiek lehen

arretan dauden egiturazko arazoei aurre egiteko "neurri bakar gisa" planteatu dituztela eta ekain hasieran egindako Mahai Sektorialean Osakidetzan iaz baino osasun-zentro gehiagotan eta denbora luzeagoan ordutegi murrizketak egitea proposatu zituela. "Aurten, gainera, murrizketek gora egin dute, denbora tarte zabalagoa hartzen dute eta iaz baino osasun zentro eta EAG gehiagori eragiten diete", diote ELAtik.

Gaineratu dute Osakidetzak ez duela bermatzen EAGak eta osasun zentroak ekipo osoarekin irekiko direnik: "Beraz, berriro ere fakultatiborik gabeko zentroak izango ditugula aurreikusten da, eta murrizketa horretan sakondu eta arazo estruktural bihurtzen da".

Hala, sindikatuak kritikatu du Osasun Sailak esan izana murrizketarik ez dagoela eta udan aplikatu beharreko neurri horiek langileen atsedena bermatzeko beharrezkoa den berrantolaketaren ondorio direla. "Errealitate bakarra da murrizketen aurrean gaudela, Osakidetza justifikatu nahi dituenak langileak eta haien eskubideak erabiliz. Neurri horiek erabaki politikoen ondorio zuzena dira, eta ez dute, inola ere, lehen arretaren gabeziei aurre egiteko planik planteatzen. Langileak gehiegi kargatzen eta herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua murrizten jarraitzea beste planik ez dago", adierazi dute. ELAk aurreratu du "neurri zehatzak" eskatu dizkiola Eusko Jaurlaritzari Osakidetzaren egiturazko gabeziei aurre egiteko.

ELA-K SALATU DU IAZ BAINO ZENTRO GEHIAGOTAN EGINGO DIRELA ORDUTEGI MURRIZKETAK



Herritar bat Arrasateko anbulatoriora sartzen. GOIENA

GIPUZKOA

Ekin.
Gipuzkoa oparagoa izateko.

Zaindu.
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituenak.

Bizi.
Ondo eta duin bizi daitezten.

GIPUZKOA
Foru Aldundia

EH Bilduk eskualderako proiektua aurkeztu du

Hiru ardatzetan banatu dute proiektu estrategikoaren ekintza plana: ongizatea, trantsizio ekosoziala eta sozioekonomia. Arlo bakoitzean dauden erronkak eta haiei aurre egiteko dituzten proposamenak aurkeztu zituzten jendaurrean

Iñigo Barrena BERGARA

Eguaztenean Bergarako Seminarioxoan egindako agerraldian, Euskal Herria Bilduk Debagoienarako prestatu duen proiektu estrategikoaren berri eman zuen. Eskualdeko proiektuak sei beharri erantzuten diela azaldu zuten, eta behar horiei erantzuteko hiru ardatzetan banatutako ekintza plana finkatu dute: ongizatea, trantsizio ekosoziala eta sozioekonomia. "Momentua iritsi da urrats hau egiteko. Gaur egungo erronkek eskatzen dituzten akordioak eraikitzeo eta Debagoieneko eragile sozial, kultural eta ekonomikoek izan behar duten protagonismoari bide emateko", adierazi zuen Haize Kortabarriak, Debagoieneko EH Bilduren Herrigintza arduradunak. Gainera, erronkei aurre egiteko elkarlanaren ereduazpimarratu nahi izan zuten.

Ongizatea

Arlo horretan pobrezari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko neurriak hartzeko beharra eta aldaketa demografikoen aldaketen aurrean zaintza-sistema zerbitzuak egokitzeko erronkak dituztela adierazi zuten Nagore Ipiñak eta Nerea Zubiak: "Debagoiena inklusibo bat dugu helburu. Bertako herritar bakoitzaren eta guztien ongizatea bermatzeko eta bizitza-proiektu duin batzuk eraikitzeo testuinguruak eta baldintzak eskaintzen dituen". Hori lortzeko, ongizatearen arloan hiru proposamen jarri nahi dituzte martxan: eskualdeko harrera herrien sarea eratzea; zaintza lanak egiten dituzten langileen antolakuntzarako egiturak sustatzea; eta etxebizitzaren arazoari aurre egiteko neurriak hartzea.

Trantsizio ekosoziala

Bigarren lan-ildo bezala trantsizio ekosoziala azpimarratu zuten Garazi Etxeberriak eta



Eguaztenean Seminarioxoan aurkeztu zuen plana EH Bilduk. IÑIGO BARRENA

ERRONKEI AURRE EGITEKO ELKARLANAREN EREDUA ALDARRIKATU ZUTEN AURKEZPENEN

Nestor Aranak. Lehentasunezko zatitza jo zuten erregai fosilekiko dagoen dependentzia murriztea eta natura-baliabiden erabilera arduratsuago baterako bidea hartzea. "Gainditu diren muga kopuruak eta daramaten eboluzio negatiboak emergentzia ekologikoaren eszenatoki konplexu batean jartzen gaitu. Gainera, erregai fosilen dependentziari erreparatuta, Euskal Herria egoera bereziki zaurgarrian dago. Horregatik oso garrantzitsua da natura-baliadideen erabilera arduratsuagoa egitea", dio Nestor Aranak.

Erronka horiei aurre egiteko lau proposamen aurkeztu zituzten: eskualde mailako mugikortasun plan estrategikoaren eraikuntza; energia sorkuntzarako aukeren ikerketa burutzea; eskualde mailako energia aholkularitza zerbitzua martxan jartzea;

eta trantsizio ekosozialaren bidean adostasun zabalak lortzeko lan egitea.

Eremu sozioekonomikoa

Hirugarren lan-ildoak dituen erronkak Iosu Lizarralde eta Ibon Unzetabarrenetxeak aztertu zituzten. Erronka nagusia etorkizunean langileak ordezkatzeko egongo den zailtasunari erantzutea izango dela diote; batez ere, txikizkako negozioen oinordekotza bermatzea. Horrez gain, lehen sektoreari lotutako eta industriari lotutako erronkak ere atzeman dituzte. "Eskualdean eskumen guztiak ez dira berdinak; beraz, batzuetan bultzatzaileak izan beharko dugu eta beste batzuetan bidelagun izan beharko dugu", adierazi zuen Iosu Lizarralde.

Arlo horretarako hiru proposamen dituzte: txikizkako negozioen beharrei erantzun eta oinordekotza bermatzea; Debagoieneko elikadura sistema aztertzea eta agroekologiaren bidean indartzeko urratsak proposatzea; eta Debagoieneko sare industrialeko konposizio eta kompetentzien argazkia egitea.



KoopFabrika Hegoaldetik topaketak Arrasaten izango du amaiera. ARIANE KAREAGA

Kataluniako kooperatiba ereduak hizpide bihar Kulturaten

Astean egin duten 'KoopFabrika Hegoaldetik' topaketen azkena Arrasateko Kulturaten egingo dute bihar goizean

Iñigo Barrena ARRASATE

KoopFabrika programak pertsona migratuei ikuspuntu kooperatiboa, autoantolaketa eta ahalduzko ekonomikoko proiektu kolektiboak sustatzea du xede. Ildo horretatik jarraituta, aste honetan *KoopFabrikak Hegoaldetik* izeneko topaketak egin dituzte Gasteizen, Usurbilen, Oreretan eta Lazkaon, eta, topaketak ixteko, Arrasaten egingo dute topaketa nagusia, Kulturateko areto nagusian. Goiz osorako egitaraua antolatu dute. Ongietorria Jasono Giraldek eta Eva Abuinek egingo dute eta egitasmoaren aurkezpena egiteaz Kathe Astudillo eta Ariane Kareaga arduratuko dira. Horren ostean, Kataluniako kooperatibismo eredu ikasteko aukera izango dute topaketan parte hartzen dutenek. Goizeko hamarretan hasita, Luz Helena Ramirez, Khady Drame Tine-

ren, Amelia Campos Riosen, Maria Elena Coaren eta Beatriz Egizabal Ollokiegiren hitzartzeak egongo dira, eta, ondoren, bazkaria izango dute.

Herritar guztientzat zabalik

Migratzaileei zuzendutako programa den arren, herritar guztiak daude gonbidatuta zapatuko topaketara, Ariane Kareagak Arrasate Irratiko *Zakubete kontu* saioan esan duenez: "Bira honekin eta Arrasateko topaketarekin, Kataluniako ekimenetan inspiratzeko helburua dugu. Gainera, erakutsi nahi dugu posible dela instituzio publikoetatik ekimen horiek bultzatzea eta politika publikoak egin daitezkeela, lan esplotazioan bizi direnen bizitzak duintzeko". Hala, herritarrei, instituzioei eta gai horren inguruko eragileei gonbita egin die bertara daitezten.

Elikadura Burujabetzarantz egitasmoaren saioa

Hilaren 19an egingo dute *Esperientziak ezagutzeko gurean* jardunaldia, Debagoiena Elikadura Burujabetzarantz egitasmoak antolatuta, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean. Debagoieneko Elikadura Burujabetzarantz proiektuaren helburua da elikadura burujabetzara bidean eskala salto bat emateko urratsak

egin eta oinarri konpartitu bat sortzea, etorkizunean bertako produktuak modu agroekologikoan sustatzeko. 09:15etik 14:00etara, iaz abiatu zuten proiektuaren gaineko informazioa eman eta orain arte egindako urratsak konpartitu eta aurrera begirako berri emango dute. Horrez gain, beste eskualde batzuetako esperientzia erreferenteak ezagutzeko aukera ere izango da. Jardunaldian parte hartzeko izen-ematea dagoeneko zabalik dago.

Energia trantsizioan, herri-administrazioaren rolaz

'Iraunkortasunari hamaika begirada' programaren baitan, trantsizio energetikoaren garaian herri-administrazioak jokatu beharreko rolaren gaia jorratu dute asteon hainbat adituk, Debagoiena 2030 ekimenak antolatutako hitzaldi batean

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Trantsizio energetikoaren garaian eskualdeko administrazio publikoak bete beharreko rola- ren gainean hausnartzeko saio bat antolatu du asteon Debagoiena 2030ek, *Iraunkortasunari hamaika begirada* izenpean.

Lau adituk hartu zuten hitza saioan, eta bi ikuspegi nagusitatik jorratu zuten gaia: ikuspegi orokor batetik eta konkretuago batetik. Miren Larreak, Orkestra lehiakortasunerako euskal institutuko ikertzaileak, gaia testuinguratu eta garai horretan alor publikoak behar dituen rolei buruz hausnartu zuen: "Klima aldaketaren arazo honi aurre egin nahi badiogu,

lurralde garapenak eraldatu egin behar du, guztiz. Gure herri politiketako prozesuetan ez dugu arazo honen jatorriaren inguruan lasaitasunez hausnartu, badaudelako tabu batzuk". Beñat Irasuegik, Talaios kooperatibako bazkideak, ere hartu zuen hitza, eskualdeetan zentratuta erronka berriei erantzuteko lankidetzak publiko komunitarioen harremantze eta lankidetzak formulen inguruan hausnartzeko: "Interkooperazioaren ideia lurralde harremanetara eramane behar dugu, ez dadila gelditu soilik kooperatiben artean. Herriek izan behar dituzte tokiko garapenerako kompetentziak, interkooperatuz eta

eragileen arteko aliantzak sortuz".

Beste alde batetik, eta gaia modu konkretuagoan landuta, Gil Savans Kataluniako Osona energia agentziako teknikaria aritu zen bertan trantsizio energetikorako eskaintzen duten zerbitzua azaltzen. Elena Herrartek, Debagoiena 2030eko koordinatzaile orokorrak, nabarmendu zuen "Osonak duen esperientzia" eta gaiaren inguruan daukaten "aurrerapen maila". Gainera, "hemen inguruan horrelako proiektuak sortzeko inspiragarria" izan daitekeela ere gehitu zuen. Amaitzeko, Eneko Antzuolak, LKS Next Legal-eko Administrazio Zuzen-



Iraunkortasunari hamaika begirada saioa irudi bat. GOIENA

bidearen arloko arduradunak, hartu zuen hitza, energia komunitateen inguruan hitz egiteko: "Energia komunitateek energia kontsumoak murrizteko eta, aldi berean, gure bizi-kalitatea hobetzeko balio dute. Baina, era berean, tokiko ekonomia garatzeko eta zirkuitu ekonomikoa murrizteko bide ere bada. Ikusten ditugu energia komunitate batzuk non badabilzan proiektuak aurrera eramaten, eta bide

horretan sortzen zaizkien beharren arabera tokiko ekonomia garatzen".

Trantsizio energetikoaren gaia "guztion ahotan dagoen zerbait" dela adierazi zuten hizlariak. Gainera, adierazi zuten tokiko administrazioek zein herritarrek aldaketa horretako bultzatzaile izan behar dutela, gaur egungo testuinguruan "eragile oso garrantzitsuak" direla iritzita.

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoa mugitu,
Gipuzkoa sentituz.

**Batzen gaituenak,
mugitzen gaitu.**



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.
www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat





ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Bihotzean min

Hegoaldetik milaka pertsona datoz egunero iparraldera. Iparraldean dute begirada, etorkizun oparoagoa amets. Amets europarra. Baina ametsak, askotan, amesgaizto bihurtzen dira. Etorkinekin horrela da, zoritxarrez.

Urte asko daramat etorkinekin, lanean nahiz lanetik kanpo ere. Istorio asko ditut kontatu ahal izateko, baina badago egoera bat denek amankomunean dutena: bihotzeko mina.

Bihotzak min egiten du, handia. Bihotzak gauetan min egiten du. Min guztiak dira txarrak, baina bihotzeko mina oso txarra da.

Etxetik esku hutsez egun eguzkitsu batean atera eta buruan dugun ametsaren bila bidaia hasten dute. Europarako ametsaren bila. Lan egin eta senideak laguntzeko ametsa. Behin Europara heldu, eta amets goxoa gazi bihurtzen da.

Lan egiteko baimena behar da eta baimen hori lortzeko gutxienez hiru urte pasa behar dira. Orduan hasten da bihotza mina eragiten.

Egunak luzeak, gauak ilunak, ametsak gaziak, etorkizuna gogorra... ezintasuna nabaria. Goiz batean etxetik atera eta bat-batean ezer egiteko aukera denbora luze batean.

Bihotz taupadak gogortzen dira, ezintasunaren aurrean ezer egiteko aukera ez izanagatik. Helburuak, lan egitea zenak, bertan behera gelditu beharra du; bitartean, goiz horretan utzitako senideak sufritzen ikusten ditugu, baina ezin ezer egin. Bihotzean mina, min handia.


MUNDUA POLITIKAK MUGITZEN DU ETA GURE ESKU DAGO POLITIKA EREDU BAT EDO BESTE IZATEA

Eta orduan zer? Zer egin dezakegu? Ezer gutxi... edo asko. Guk asko egin dezakegu, gure esku dago:

pasa den asteburuan bozka eman eta beste Europa bat bozkatu. Gure esku dago politika migratorioen aldaketa. Mundua, nahi edo ez, politikak mugitzen du eta gure esku dago politika eredu bat edo beste izatea. Horregatik eta beste hamaika arrazoiengatik bozkatzea eskubidea den mailan, erantzukizun bat ere bada. Ezin dugu mundua edonoren esku utzi, bakoitzak badu bere esku munduan eredu bat edo beste egotea eta horrela bihotzeko min gehiago edo gutxiago eragiteko.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Adinekoen Aurkako Tratu Txarren Kontrako Nazioarteko Eguna

PILI IRIARTE

ARRASATEKO NAGUSIEN KONTSEILUA
ARRASATE

Arrasateko Nagusien Kontseilutik egun hau adineko pertsona batzuek jasaten duten abusu fisiko eta psikologiko salatzen baliagarria izatea nahi dugu.

Tratu txar hori familia edo komunitate-ingurunetik zein instituzioetatik eman daiteke, eta era askotara: infantilizazioa tratuan, despertsonalizazioak, adinekoa alde batera utzita – edadismoa–, egonezina, antsietatea, depresioa, desorientazioa eta

errealitatearen galera eragin ditzake. Tratu txarrek ez dute beti esan nahi kalte fisikoa edo lesioak eragiten dituen indarkeria fisikoa; askotan, gehiegitan, indarkeria estaliago horrek tristura, atsekabea, apatia, inguruarekiko deskonexioa... eragiten du.

Interesgarria litzateke lehen mailako arreta zentroek – Osakidetza– kasu mota horien guztien diagnostikoa egitea eta, aldi berean, tratu txar mota horiek saihesteko, prebenitzeko eta horiei aurre egiteko tresnak eta baliabideak eskaintzea: jardunbide edo praktika onen gida bat, telefono bidezko laguntza-lineak gaitzea, adinekoei beren

eskubideak baliarazten laguntzeko programak, gizartea mobilizatzea adineko askok pairatzen duten indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpainak abiatuz eta abar.

Horregatik guztiagatik, ekainaren 15ean, Adinekoen Aurkako Tratu Txarren Kontrako Nazioarteko Egunean, Arrasateko herritarrei eskatzen diegu adineko pertsona ikusezin, inbisibilizatu eta isilaraziak diren horien guztien eskubideen aldeko kontzientzia hartzeko. Itzul diezaiegun ahotsa eta zahartzaro hori duintasunez komunitatean komunitateaz bizitzeko eskubidea.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Ilgone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

Iñigo Barrena ARRASATE
Astelehenean Arrasaten, Kulturaten, Amnesty International Euskadiko koordinatzaile Sofia Garcia (Bilbo, 1969) izan zen Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari buruz hitz egiten. GOIENA harekin izan da egungo egoera zein den eta Amnesty International Euskadiren nondik norakoak jakiteko.

Zer da Amnesty International?

Amnesty International mugimendu global bat da. Hamar milioi bazkide baino gehiago dituen mugimendua da, gainera, eta pertsona guztiok giza eskubideak izateko aukera edukitzeko etorkizun bat sortzeko helburua du. Ez dugu inolako laguntza ekonomikorik jasotzen instituzioen eta bestelakoen partetik; hau da, gure bazkideen ekarpenekin soilik finantzatzeko gara; hori da, nolabait, gure mugimenduak duen ezaugarri berezietakoa.

Noiz eta zertarako sortu zen?

1961. urtean sortu zen Amnesty International. Britainia Handiko abokatu batek, Peter Benenson, sortu zuen, zehazki. Egunkari batean irakurri zuen ikasle portugaldar batzuk kartzelatu egin zituztela euren herrialdearen askatasuna aldarrikatzeagatik; orduan, preso haiek amnistiatzeko nazioarteko kanpaina bat jarri zuen martxan, eta handik abiatu zen mugimendua.

Ze helburu ditu mugimenduak?

Pertsonen giza eskubideekin gozatzeko aukera izatea, horixe da mugimendu horrek duen helburu nagusia.

Zer-nolako garrantzia dute pertsonen gizaratean gertatzen diren injustizien aurrean?

Gizarteak funtsezko egin beharra du. Injustiziaz salatutako behar ditu, boterean daudenek eta autoritatea dutenek giza eskubideen urraketak burutu ez ditzaten. Hala, ezinbestekoa da gizarteak horretan eragitea.

Injustizien alde borrokatzeak balio duela uste duzu? Zergatik?

Bai, noski. Baliorik izango ez balu oihan batean bizitzea bezala izango litzateke.

"Israelek ezin du zigorgabetasunik izan egin duenarekin"

SOFIA GARCIA AMNISTIA INTERNACIONAL EUSKADIKO KOORDINATZAILEA



Sofia Garcia Amnistia Internacional Euskadiko koordinatzailea da. SOFIA GARCIA

Desberdintasun handia dago gizaratean gertatzen diren gehiegikerien artean, eta, askotan, ez gara horren jakitun. Horiek salatu egin behar dira, kontziente izan gaitzen. Behin kontziente garenean, gai gara zerbait egiteko hori gertatu ez dadin edo gertatzen jarraitu ez dadin.

Zein da Amnesty International Euskadiren egungo panorama?

Euskadin une honetan 7.000 bazkide baino gehiago gara eta salatzen ditugun giza

eskubideen urraketekin lotutako laguntza ematen dugu. Egutero kalean gabiltzan aktibistak askoz gutxiago gara. Egun Euskadin ditugun ardurak nagusiak dira gizarte segurtasunaren legearen aplikazioa, foam armen eta taser pistolen erabilera, sexu biktimantzako krisi zentroak zabaltea, klima aldatetari lotutako gaiak, errefuxiatuen eskubideak eta LGTBI pertsonen eskubideak. Horiek dira guri egunerokotasunean eragiten

digutenak; baina, nola ez, horiez gain, munduan gertatzen direnak ere gertutik jarraitzen ditugu.

Hain zuzen, Palestinaren eta Israelen arteko gatazka izan zenuten hizpide Arrasaten; zein da egun dagoen egoera?

Gazako egoera guztiok ezagutzen dugu, hedabideei esker. Bizitzeko moduan ez dagoen toki bihurtu da, etengabeko eraso eta Hamasen eta Israelgo Gobernuaren arteko gatazken ondorioz. Gure kasuan, 2022tik salatzen ari gara Palestinako beste gune batzuetan jasaten ari diren apartheid egoera okupatuta dauden lurralde guztietan, eta, era berean, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren 60 milioi biztanle palestinarren egoera.

Zeintzuk dira Palestinan gertatzen ari diren giza urraketak?

Gerra kirmen asko gertatzen ari dira. Alde batetik, ez dira bereziten ari objektibo militarrik eta objektibo zibilak, hori da Amnesty International egitasmoak batutako informazioak dioena. Era berean, ez dira ari abisatzen noiz egingo dituzten eraso horiek; esaterako, batzuk gauz egin dira, palestinarrek lo daudenean. Horrez gain, orain, gosetea ere eragin dute. Hori gutxi balitz, zigor kolektiboa ere gertatzen ari da, Hamasek bahitu dituen israeldarren ondorioz, eta hori ere krimen bat da. Eta, nola ez, krisi humanitario izugarria gertatzen ari da.

Ze ekintza egin dituzue orain arte?
Duela bi urte, txosten bat kaleratu genuen, baina urte luzez ari gara Palestinaren egoera aztertzen. Txostenak

erakusten duen moduan, Israelen okupazio ilegalak eragiten ditu Palestinan gertatzen diren giza eskubideen urraketak. Dokumentazio lanarekin jarraitzen dugu, gero norbaitek erantzun egin beharko duelako gertatutakoaren aurrean. Su-etena eskatzen ari gara, eta jakina da duela egun batzuk NBeren segurtasun kontseiluak onartu egin duela Ameriketako Estatu Batuek berehalako su-etenerako egin duten eskakizuna. Badirudi Hamasek horren alde egin duela, baina Israelek oraindik ez du erantzun. Bestalde, herrialdeek Israeli armak emateari utzi beharra diote. Eta ezin daiteke zigorgabetasun bat egon Israel egiten ari denarekin; izan ere, herrialdeek erantzukizun morala eta legala dute.

Nola hartu duzue su-etenen albistea zuen mugimendutik?

Ea gertatzen den, albiste ona da, baina ikusi egin beharko da ondoren bakoitzak nola erantzuten duen egindakoaren aurrean, erantzun egin behar baitute.

Nolako etorkizuna aurreikusten duzu?

Izaeraz pertsona positiboa naiz eta hobetuko dugun itzaropena daukat. Dena dela, batzuetan zalantzan jartzen dut gizarate ikasteko gai den. Pertsona bakoitzak hobetu egiten duenean, gizarateak eta munduak ere hobera egiten du. Hala ere, ezberdintasunak geroz eta handiagoak izango ote diren arduratzen nau.

"HERRIALDEEK ERANTZUKIZUN MORALA ETA LEGALA DUTE PALESTINA-ISRAEL GATAZKAN"

"2022TIK ARI GARA SALATZEN PALESTINAKO HAINBAT GUNETAN DUTEN APARTHEID EGOERA"



Etxe Txikien gaur egungo ikuspegia. ARGAZKIAK: ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA



Etxe Txikiak, 1930eko hamarkadan, Kurtzetxikitik ateratako irudian.

Etxe Txikien balioa liburu batean jaso dute, 100. urtemugaren aitzakian

'Etxe Txikinek 100 urte 1924-2024' liburua ondu du Arrasate Zientzia Elkarteak, eta ekainaren 18an aurkeztuko dute, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean; bizilagunen testigantzak, argazkiak eta hainbat dokumentu grafiko jasotzen dituen lan osatua da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Udalak 1924ko ekainaren 2an eman zion Union Cerrajerari Etxe Txikiak eraikitze baimena. Handik gutxira, ekainaren 16an, Etxe Merkeen Batzarra eratu zuten Arrasaten.

Garai hartan, Arrasateko biztanleria hazkunde handia izaten ari zen, 1906an sortutako Union Cerrajera enpresaren hazkundeagatik eta 1917an Vasco-Navarro trenari iritsi izanagatik, hein handi batean. "Arrasaten ez zegoen nahikoa etxebizitza hazkunde hari erantzuteko, eta Union Cerrajerak langileendako sortu zituen Etxe Txikiak", dio Arrasate Zientzia Elkarteak Jaber Bengoak.

Horri erantzuteko eraiki zituzten, hain zuzen, "ordura arte ezagutzen ez ziren erako" hemezortzi etxe, lorategia eta baratzea baitzituzten. Garai hartarako

ez ziren batere etxe txikiak, 67,2 metro karratukoak baitziren; 33,6 metro karratuko bi solairukoak, hain zuzen. Merkeak ere ez ziren. "Hilabeteko kuota 30 pezetakoa zen eta langile baktek egunero 5 pezeta irabazten

zituen. Beraz, astebeteko soldata errenta ordaintzeko".

Udal artxiboko aktak "funtsezkoak" izan dira informazioa lortzeko, AZEko kide eta Etxe Txikietako bizilagun Juan Ramon Garairen esanetan. "Horrez gain, elkartearen artxiboan aurkitu dugu Union Cerrajerari eta hango langileei buruzko informazioa. Etxe Txikietan bizi ziren gehienak peoiak edo langile espezialistak ziren, nahiz eta arduradun pare bat eta tailerreko pare bat ofizial ere bizi izan ziren".

Garai gehitu du hamar lagun bizi zirela haien etxean. "Komuna goian zegoen, eta sukaltarrian dutxatzen ginen. Ortua eta erreka ere funtsezkoak ziren. Gazteak ginela, errekan arrain asko zeuden, eta haiek harrapatzea joaten ginen. Gainera, autorik ez zen pasatzen handik eta kalean aritzen ginen jolasten".



ETXE TXIKINEK 100 URTE 1924-2024

- **Egileak** J. R. Garai, J. Bengoa eta J.A. Barrutiabengoa.
- **Argitaletxea** Intxorta.
- **Urtea** 2024.

Hainbat izen aldaketa

Etxe Txikiak eraiki aurretik Betasolo izena zuen soroak eta etxeak eraikitzean Maala kalea izatera pasa zen. Gerora, Virgen de Aranzazu izena hartu zuen, eta horren erantzule bat da Iñaki Inda (Arrasate, 1935). "Carlos Beltran zena eta biok parrokoarengana joan ginen, gure auzoko jaiak eskatzera. Izan ere, auzo guztiek zituzten jaiak. Hala, onartu egin ziguten eta hementxe jaiak irailaren 9an jarri zituzten, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean", dio.


Garaiak dioenez, prozesio batekin hasten zituzten jaiak. "Etxe Txikietako andariak parrokiara joaten ziren, Arantzazuko Ama Birjinaren irudia hartuz. Etxe Txikietaraino eramaten zuten, eta, heldutakoan, Roberto Agirre *Alambrero*-k etxafuegoak botatzen zituen, herritarrei jakinarazteko. Arratsaldean jolasak egoten ziren eta Elmako teilapean musika jotzen zuten".

Edozelan ere, izen hark ez zuen arrakasta handirik izan, eta, gerora, Etxetxikiak kalea izena hartu zuen –gaur egun ere mantentzen du izen hori–.

Saldu, 643.000 pezetaren truke 1986ra arte alokairuan egon ziren Etxe Txikiak, eta, orduan, etxe bakoitza maizter bakoitzari 643.000 pezetetan saldu zion enpresak. Garaiak dio, era berean, "ehunka" pertsona bizi izan direla Etxe Txikietan urte hauek guztietan. "Bizilagunen



Goiko solairuko komuna.



Eskailera pikoak dituzte.

Etxe Txikiak, bizilagunen ahotan



IÑAKI INDA

1935EAN ETXE TXIKIETAN JAIO ZEN ARRASATEARRA

"Etxe Txikiei egindako aitortza da etxean dudak koadroa"

2009an, Etxe Txikien koadro bat egin zuen, "kapritxo" gisa. "Pintura eskolak hartzen hasi nintzen eta Etxe Txikiei aitortza egitea erabaki nuen. Hala, hainbat perspektibatik ateratako argazkietan oinarritu nintzen irudi bakarra osatzeko".



JESUS URIBE

UMETATIK ETXE TXIKIETAN BIZI DEN ARRASATEARRA

"Familia zaharrenetakoa gara Etxe Txikietan"

Ia bizitza osoa darama Etxe Txikietan. "Txikiak ginela, aita hil zitzaigun eta ama Union Cerrajeran sartu zen. Nire osabak hartu gintuen etxean. Bizitza osoa zeraman Etxe Txikietan bizitzen, baita haren gurasoak ere. Familia zaharrenetakoa gara hemen".



MIKEL BERGARA, OLATZ IGARTUA ETA ENAITZ IGARTUA

2014TIK ETXE TXIKIETAN BIZI DEN FAMILIA ARRASATEARRA

"Sekulako beroa pasa genuen lehenengo gauean"

2014tik bizi dira Etxe Txikietan. Uztaila zen, eta lehen gauean "sekulako beroa" pasa zutela diote: "Ia lorik ere ez genuen egin eta pentsatu genuen ea erabaki hona izan ote zen. Jatorrizko egitura zuen etxeak, eta, ordutik, bi zaharberitze egin ditugu".

artearen oso harreman ona egon izan da beti eta Musakolako ostatuan bazkariak ere egiten zituzten, hogeitaz baina gehiago. 100 pertsona ere izaten ziren bazkari horietan". Horrez gain, zera azpimarratu du: "Gerra garaian, gorriak ziren bost langile bota egin zituzten Union Cerrajeratik eta baita Etxe Txikietatik ere. Halaber, 40 pertsonak baino gehiagok giza eskubideen urraketak jasan zituzten eta duela gutxi jakin dugu bizilagun bat gerran desagertu egin zela".

Bost familia, hasierakoak

Hemezortzi etxebizitza horietan hasieratik mantentzen diren bost familia daude gaur egun: Arrue (Arregi), Bolinaga, Inda, Etxaburu eta Uribe.

Iñaki Indak adierazi duenez, aitak eta aitonak Union Cerrajeran lan egin zuten, baita hark ere, sarrailagile. Hala, Etxe Txikietan han bizi izan zen, 25 urterekin ezkondu eta kalera bizitzera joan zen arte. Hala ere, harreman estua du etxe horiekin, eta, 89 urte betetzear dituen honetan, oraindik ere egunero joaten da, ortuko lanak egitera. "Enpresak saldu egin zituen Etxe Txikiak eta gure etxea nire gurasoek erosi zuten. Hil zirenean, anaiarekin ados jarri eta niretzat hartu nuen etxea. Ordutik, hemen bizi ez naizen arren, ia egunero etortzen naiz".

Uribe familiakoa da Jesus Uribe (Arrasate, 1943). Garagarza auzoan jaio arren, 8 urte zituenetik Etxe Txikietan bizi da. "Goian hiru logela eta komun bat daude. Behean, berriz, sukaldia, egongela, komuna eta beste logela bat. Dagoeneko gora ez naiz joaten, hankak ez ditudalako ondo. Behean egiten dut egunerokoa". 70 urteren ostean, lotura berezia du Etxe Txikiekiko, eta aitortu du ez dagoela bizitzeko leku hoberik. "Ondo nagoen bitartean, ez naiz hementik mugituko", baieztatu du.

118 argazki liburuan

Juan Ramon Garaik, Jose Angel Barruatibengoak eta Jabier Bengoak ondu dute liburua, eta, informazio osatuaz gain, 118 argazki txertatu dituzte. Hori dela eta, eskerrak eman dizkiete bizilagun guztiei, haien lana errazteagatik. Martitzenean aurkeztuko dute lana, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean.



Bi herritar, patinetean, Garibai etorbideko bidegorrian. E.A.B.

'Arrasate zeharkatuz' ekimena, etorkizuneko herria definitzeko

Hirigintza eredu herritarrekin batera erabaki gura du Udal Gobernuak, Mugikortasun Plana berrizetik hasita

E.A.B. ARRASATE

Arrasate zeharkatuz ekimena abiatu du Arrasateko Udal Gobernuak, hirigintza arloan herritarrek etorkizunerako dituzten proposamenak jasotzea helburu hartuta. "Arrasate hirigintza eredu jasagarri, atsegin eta osasuntsu batera igaro beharra du, eta horrek, gaur egungo hirigintza ereduaren inguruko analisi eta hausnarketa batera eramateaz gain, eredu berri bat irudikatzea eskatzen digu. Horretarako ekimena da *Arrasate zeharkatuz*", dio Garazi Etxeberriak, Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun zinegotziak.

Ekimenarekin, herriko hirigintza nondik eraikita dagoen aztertu nahi dute, "genero, hezkuntza, hizkuntza eta halako ikuspegietatik, besteak beste".

Sortu duten irudiak ere ideia horri egiten dio erreferentzia.

"Sortu dugun irudiak Arrasate zeharkatzen duten bi ibaiak irudikatzen ditu, Aramaio eta Deba. Abiapuntu ezberdina duten bi ibaiak bat egiten dute, eta elkargune hori irudikatu nahi izan dugu etorkizun berde baten adostasuna irudikatzen. Etor-kizunak jasagarria izan behar duelako ezinbestean", baieztatu du Etxeberriak.

Mugikortasun Plana lehenik

Ekainean, plana idazteko egindako diagnosiaren aurkezpen eta ekarpen fasea irekiko dute eta aurrez aurreko saio parte-hartzailea egongo da astelehenean, ekainak 17, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian. Halaber, online-inkesta bat martxan dago, ekainaren 30era arte, eta idatziz edozein ekarpen egiteko aukera ere izango da BAZen, BAZeko zerbitzu telematikoa edo *Arrasate.eus* atarian.

OHARRAK

1965eko kintada

Izena emateko epea irekita dute. 85 euroko ordainketa egin beharko da ES76 3035 0055 1705 5105 8385 kontuan.

Mondraren bazkaria

Bihar 14:00etan egingo dute, Uarkapen, sariak eman ostean.

Eskubaloi saio irekia

Eguenean egingo dute, Iturripen, 17:30ean hasita.





Maidor Morras, Eva Abuin, Oihan Zubizarreta, Garazi Bedatse, Kattalin Miner eta Iñigo Etxezarreta. GONTZAL BELATEGI

LGTBI+ pertsonak aske bizitzea helburu hartuta

LGTBI+ pertsonen bizi-baldintza duinak bermatzeko diagnostia eta ekintza plana egingo ditu Udalak. Lehenengo aldia denez, LGTBI+ pertsonen parte-hartzea eskatu dute, testigantzak jasotzeko; 2025eko ekainerako plana prest izan gura dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko LGTBI+ pertsonen bizi-baldintza duinak bermatzeko planaren diseinua aurkeztu du Udalak. "Apustu garbia egin dugu hasieratik LGTBI+ politikak lehen lerroa ekartzeko, eta horren adierazle da sailari izendapen hori eman izana. Baina, izendapenaz harago, edukiz betetzea dagokigu", azaldu du Maidor Morras alkateak.

Saileko arduradun Eva Abuin, halaber, nabarmendu du Udalak LGTBI+ kolektiboarekiko daukan zor historikoa kitatzen hasteko lehen urratsa dela ekintza plana. "Horretarako baliabide tekniko eta ekonomikoak bideratu ditugu lan-ildo berria garatzeko, mugimendu feministako eta LGTBI+ mugimenduko ordezkariekin adostuta".

Diagnostia, Eihera kooperatibak Eihera kooperatibak izango du diagnostia egiteko ardura, eta kooperatibako ordezkariak prozesuaren berri eman dute. Hala,

lehen urratsa diagnostia egitea izango dela azaldu dute, eta horretarako Arrasateko LGTBI+ pertsonen parte-hartzea "ezinbestekotzat" jo. Hain zuzen ere, orain hasi eta otsailera arte iraungo du fase horrek. "Udan parte-hartzaileen zerrenda bat egingo dugu eta irailetik aurrera elkarrizketak egin eta datuak jasoko ditugu". Hori horrela, otsail edo martxorako lehen ondorio batzuk izatea aurreikusten dute. "Dena ondo bidean, diagnostik eratorritako ekintza plana urtebeteko epean izango dugu, 2025eko ekainean".

Dei berezia 'sexiliatu'-entzat Arrasatetik kanpo bizi diren arrasatear LGTBI+ pertsonen

DIAGNOSIAN PARTE HARTZEKO, MEZU BAT IDATZI BEHARKO DA 'LGTBI@EIHERA.EUS' HELBIDERA

deialdi berezia egin diete. "Herrian bizi direnek parte hartzeaz gain, herritik kanpo bizitzera joan diren edo ziren guztiei ere dei egiten diegu parte hartzeko. Izan ere, LGTBI+ kolektiboan oso ohikoa den *sexilioa* ere aztertu gura dugu: identitate edo orientazio arazoengatik beste herri edo hiri batera erbesteratzea, hain zuzen. Beraz, pertsona horiei mezu hau helarazteko laguntza eskatu nahiko genieke herritarrei", adierazi dute Eiherako kideek.

Parte hartzeko, formulario bat Lehen fasean, orain hasi eta irailera bitartean, parte hartzeko prest dauden pertsonen datu-basea osatuko dute diagnostiko arduradunek, Morbor sexu askapen taldearen eta Mugimendu Feministaren parte-hartzearekin. Horrez gainera, izena emateko formulario ireki bat egongo da herritarren eskura, lgtbi@eihera.eus helbidera mezu bat idatzita.

Altxa Burua Arrasate sortu dute, eta hainbat ekimen ditu abian

Nerabeen eta smartphoneen arteko harremana kezka bizi duen guraso taldea da eta asteon aurkeztu dute

E.A.B. ARRASATE

Kezka bakarra partekatzen duen guraso taldea da Altxa Burua Arrasate: "Gure seme-alabek smartphonea eskuratzen dutenean zabaltzen zaien munduak beraingana izan dezakeen eraginak arduratzen gaitu". Hala, bi ekimen dituzte martxan: "Batetik, gurasoon kezka jaso ditugu, baita Arrasateko gazteen argazkia zein den ere. Lan hau *sites* batean jaso dugu, eta, zabalduerako, arriskuak oso ondo islatzen dituen kartel bat sortu du Iban Galanek. Kartela

Arrasateko eraikin publikoetan eta adierazpen libreko guneetan aurkitu ahal izango duzue eta bertan dagoen QRtik taldearen *sites*-era sartu zaitezke". Bestetik, *Geurie erabili zeike* dago. "Haurrak herri guztiak zaintzen dituela eta telefono propioirik gabe bizi daitezkeela sentiaraziko dien testuingurua eskaini nahi diegu. Izan ere, haurrek beste errekurso pertsonal batzuk garatzea eta herriko edozeinen laguntza jaso dezaketela ikusarazi nahi da". Informazio gehiago, Goiena.eus-en.

Lanpostu publikoak egonkortu gura ditu Udal Gobernuak

Langile publikoen behin-behinekotasuna %38tik %8ra jaiste da helburua Lan Eskaintza Publiko berriarekin

E.A.B. ARRASATE

Osoko bilkuran lanpostuen zerrenda onartu ostean, lanpostuak egonkortzeko Lan Eskaintza Publikoak deituko ditu Gobernuak. Hala, 35 lanpostu inguru egonkortzeko deialdia izango dela aurreikusi dute, aurten onartutako lanpostuekin eta 2021ean, 2022an eta 2023an onartu baina exekutatu ez diren lan-eskaintzekin. Gehienez, datozen hiru urteetan deitu beharko dituzte eskaintza publiko guztiak, nahiz eta Gobernuak uste duen "lehenago" izango dela.

Lanpostuen zerrenda berriarekin eta deituko dituzten Lan Eskaintza Publiko berriekin, behin-behinekotasuna %38tik %8ra jaiste aurreikusten du Gobernuak. "Agertoki berri horretara heltzeko, orain arte bezala, gogor egin beharko dugu lan. Izan ere, aurreikusi baino hilabete lehenago onartu da Lan Zerrenda berria; pozik gaude".

Gobernuak dio Jaurlaritzak 2021etik urtez urte egindako zuzenketa eskaera guztiak orain konpondu dituztela, orain arte "akatsekin" zeudelako zerrendak.

Txakolina izango da protagonista bertako produktuen azokan

Hileko hirugarren zapatuekin bat eginez, bertako produktuen azoka egingo dute bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara, eta, urtero sasoi honetan izaten den legez, txakolina izango da protagonista nagusia bihar ere.

Hain zuzen ere, ohiko postuez gainera, Debagoieneko txakolina erosi eta dastatu ahal

izango da ekaineko azokan. Bi ekoizle egongo dira, Oñatikoak biak, eta Arrasateko azokan behin baino gehiagotan egondakoak, gainera: Belaskua eta Murgialdai.

Erosketa-tiketarekin bertako gazta-pintxoak ere emango dituzte doan: Etxezuri, Mendibitzu eta Arangurengo gaztak ardi gazta, gazta urdina eta ahuntzarena. Gainera, erosketa-tiketak ere balioko du bost txakolin-sortaren zozketan parte hartzeko.

EAJ kritikatu egin du Udalaren kudeaketa

Jeltzaleak ez daude pozik EH Bilduk eta Podemosek osatzen duten Udal Gobernuak agintaldiko lehen urtean egin duen kudeaketarekin. Ander Garay, Agurne Juldain eta Amaia Ceciaga jeltzaleek agerraldia egin zuten, euren irakurketa azaltzeko asmoz



Amaia Ceciaga, Ander Garay eta Agurne Juldain, agerraldiaren ostean. GOIENA

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Ekainaren 17an beteko da urtebete EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek osatzen duten Udal Gobernuaren agintaldia hasi zela. Urte honetan zehar egingako kudeaketarekin desados, agerraldia egin zuten joan den astean Ander Garay, Agurne Juldain eta Amaia Ceciaga jeltzale arrasatearrek.

EAJko kideak oso kritiko agertu ziren agerraldian, agintaldiaren lehen urte honetan "administrazioaren paralisia eta erabaki esanguratsurik eza" egon direla azpimarratuta. Bide horri segika, aurreko ekitaldiko soberakina 13 milioi euro ingurukoa dela azaldu zuten: "Udal honek inoiz izan duen soberakinik handiena. Zifra horrek, kudeaketa onaren adierazle izatetik urrun, Udal Gobernuak komunitatearen beharretan behar bezala inbertitzeko duen gelditasuna eta ezintasuna islatzen ditu", jarraitu zuen Garayk.

Jarraipenera mugatuta

Jeltzaleek salatu zuten, Udal Gobernu berria aurrekoak hasitako proiektuei jarraipena ematera mugatu da. Horren froga gisa, errugbi zelaiaren aldaketa, igerilekuko aldageletako zorua berritzea, desfibriladoreak instalatzea, Otorako zebra-bidea egitea eta hezkuntza-diagnostikoa burutzea aipatu zituzten. "Geldirik" dauden proiektuen zerrenda ere eman zuten; besteak beste, Grupo San Juanen berrurbanizazioa, kirol azpiegituren mapa eta Gorostizako igogailu sistema.

Aldatzeko aukerak

Jeltzaleek adierazi zuten Udal Gobernuak oraindik hiru urte dituela aurretik eta badela gaitasun ekonomikoa "egoera iraultzeko". Horrekin batera, "elkarlanerako eta gaur arte bezala proposamenak egiten jarraitzeko" prest daudela adierazi zuen Garayk agerraldian.

GORA ETA BEHERA



Orratzak dituzten saltxitxak agertu dira Uribe auzoan

Barruan orratzak dituzten saltxitxak agertu dira Uribe auzoko lorategi batean; hori salatu du herritar batek. Bi egunez jarraian aurkitu ditu halako saltxitxak. Iaz, egoera bera salatu zen. "Badirudi gure maskotak kaltetu nahi dituenak inpunitatez jokatzeko duela".



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.

BETIEREK MAITASUNA AURREZKIARI



***Uda honetan, 2x1 100 aparteko produktu baino gehiagotan.**
(ekaina, uztaila eta abuztua)



ARRASATE

Musakola z/º ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

Konbinatu nahi bezala eta pilatu aurrezkiak zure EROSKI club txartelean.

"Gizarte kontsumista eta esplotatzailea da gurea"

ANDER SANTIAGO VEGA IDAZLEA

'Los hijos bastardos del charlatán' liburua argitaratu du, haren estreinako lana; ekainaren 20an aurkeztuko du, Kultureteko areto nagusian, 18:30ean

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Ander Santiago Vega (Aramaiio-Arrasate, 1969) idazleak *Los hijos bastardos del charlatán* argitaratu du, haren lehen lana. Liburua 2115. urtean kokatzen den distopia bat da. Ekainaren 20an Kultureteko areto nagusian izango da Maider Morrasedekin eta Belen Fernandezekin batera liburu berria aurkezten, 18:30ean. **Zerk bultzatu zintuen liburu bat idaztera?**

Betidanik izan naiz irakurle amorratua. Horren eraginez, egun batean galdetu nion neure buruari: "Zergatik ez dut nirea den liburu bat egiten?". Horrela hasi nintzen, duela urte batzuk. Liburua erreserban egon da eta denbora bat kaxoian izan dut. Halako batean, argitaratu egin beharko nuela esan zidaten, eta animatu egin nintzen.

Zer topatuko dute liburu eskuratzaren duten irakurleek?

Distopia sozial bat da, zientzia fikziotik ere baduen arren. Irakurleek hemengo jendea aurkituko dute, baina egoera zail batean. Kapitalismoak guztia txikitu du: mundua txikitu du, iparraldearen eta hegoaldearen arteko ezberdintasunak larriagotu egin dira eta abar. Puntu batean egoera lehertu egin da. Hala ere, azpimarratu behar da



Ander Santiago Vega idazlea. NIMBO EDICIONES

ez dela liburu ezkor bat, bada baikortasunik ere. Errealismo magikoa ere aurkituko du, istorio ezberdinak gurutzatzen dira eta. Edozelan ere, liburu luzea da, 728 orri ditu.

Distopiak etorkizunaren iragarpen-tzat hartu arren, egungo munduaren satira bat dira askotan; hori da zure lanaren kasua?

Hori baino gehiago, kritika bat dela esango nuke, kritika sozial bat. Hartu dugun noranzkoa kritikatzeko da, lehen munduan ezarri dugun gizarte eredura bideratuta. Gizarte eredu kon-

tsumista eta esplotatzailea da gurea, besteak beste, garapen bidean dauden herrialdeak esplotatzen dituen. Kontuan hartu behar da eleberririk bat dela, ez saiakera bat, baina badu erreflexiotik. Nahiko liburu antikapitalista da.

Sinopsian kapitalismoaren immoralitatea aipatzen duzu; immorala da sistema kapitalista?

Erabat immorala da. Kapitalismoa giza zein natur baliabideen esplotazioan oinarritzen da. Ez du bestelako aterabiderik, horretarako sortu zen, elite zehatz bati etekin ekonomikoa ahalbidetzeko. Ez da, inolaz ere, guztion onura bilatzen duen sistema bat, gehiengoaren kontura gutxi batzuk aberastea du oinarri, eta horrek ezberdintasun sozialak eragiten ditu.

Maitasuna, elkartsuna eta laguntasuna ere aipatzen dituzu.

Aurrez esan bezala, distopia bako bat bezala deskribatuko nuke liburuak. Konparaketetan erori gabe, literaturaren historiako lan handienetako bat da eta, baina George Orwellen 1984-ren antza du aspektu horretan. Ez dut spoilerrik egingo, baina liburuaren garapena oso itxaropentsua da. Protagonistak gizatasuna galdu duen gizarte batean bizi dira, oso individualista eta klonikoa dena. Hala ere, istorioan egingo duten bidaian gizakia ugaltze-makina bat baino gehiago dela jabetuko dira.

Hiru argitaletxe agertu ziren lana argitaratzeko prest; zergatik aukeratu zenuen Nimbo?

Euskal Herrikoak direlako. Gasteizkoak dira, eta hemen argitaratu nahi nuen. Uste dut hemen hobeto ulertuko den liburu bat dela, Euskal Herriak bere garrantzia duelako istorioan. Bestalde, argitaletxe gaztea da, eta

serioa. Jakin dudanez, pirateria asko dago argitaletxeen barruan: inoiz gauzatzen ez diren gauzak promesten dizute, edizio zein zuzenketekin arazoak izaten dira eta abar. Aurrez ondo hitz egin zidaten haietaz; txikiak dira, baina serioak. Gainera, Gipuzkoa aldera zabaldu nahi zuten. Jende ona dira.

Zer sentitzen da horrenbesteko lanaren ostean liburu esku artean izanda?

Sentsazioa ikaragarria da. Gaztetan Tunantes del Norte antzerki taldean ibili nintzen, eta antzezlan bat lehenengoz egiten genueneko sentsazio bera dut. Seme-alaba bat izatea bezala da. Askok kostatu zitzaizkidan idaztea; ez naiz idazle profesionala, eta nire lanera joan behar nuen. Edizio lana luzea izan da, funtzionamendura egokitzen joan behar izan dut. Arau batzuk errespetatu behar dira, eta horretara ohitu beharra izan dut, baina oso pozik nago.

Liburu gehiago idatziko dituzu?

Oso ondo pasatu dut lehenengoarekin, egundoko esperientzia izan da. Horrenbestez, bai, beste batean hasi naiz lanean. Lehenengoan bezala, bigarren honetan ere hemengo gai eta pertsonak izango ditut oinarri. Nire inguruko pertsona eta gertakizunak erabiltzen ditut inspirazio gisa. Baliteke lehenengo honetan, eta etorkizun batean bigarrenean, Aramaioko zein Arrasateko norbait identifikatuta sentitzea; betiere, errespetu osoz, noski.

"KONTUAN HARTU BEHAR DA ELEBERRI BAT DELA, EZ SAIKERA BAT, BAINA BADU ERREFLEXIOTIK"

Zinegoak Hedapena zinema jaialdia Arrasaten izango da

2004an sortu zen Bilboko LGT-BIQ+ Zinegoak Nazioarteko Jaialdia; kulturaren, zinemaren eta arte eszenikoen bidez sexu eta genero aniztasunari buruzko sentsibilizazioa lantzeko ekimena. Urte hauetan guztietan egingako lanaren eraginez, erreferentziatzeko jaialdi bilakatu da LGTBIQ+ gaiko ekitaldi zinematografiko eta eszenikoen artean.

Jaialdiak herrietan ere presentzia izateko asmoz, Zinegoak Hedapena ekimena sortu zuten. Ekainaren 16an, eguaztena, Arrasaten izango da jaialdia, Emakume Txokoaren eskutik. 18:30ean izango da emanaldia, Kultureteko areto nagusian, eta sarrera doakoa da. Sei film labur proiektatuko dituzte, jatorrizko bertsoian eta azpigituluekin, euskaraz zein gazteleraz. Alejandro Aguirre zuzendaria *Precoz* film laburra aurkezten egongo da jaialdian.

Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute domeka honetan

Ohitura den moduan, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute San Juan jaien aurreko domekan; hau da, domeka honetan. Urtero bezala, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeek elkarlanean antolatuko dute eguna.

Goizean hasiko dute eguna dantzari gazteek. 10:00etan elkartuko dira, Zaldibar pilotalekuan. Bertan, elkarrekin tarte bat iga-

ro ostean, herriko kaleetan barrera ibiliko dira, dantza erakustaldia egiten. Kalejiran ibiliko dira haur dantzariak, 13:30ak arte. Ordu horretan parte-hartzaile guztiak plazan elkartuko dira eta haurrak batuko dituzte.

Arratsaldeko bostetan berrekingo diote egitaruari. Herriko Plazan elkartuko dira berriro haurrak, dantza emanaldia hasiera emateko. Eguna amaitzeko, 19:00etan, Nemux taldearekin disko-festa izango dute, plazan bertan.

Bi emanaldi izango dituzte gaur Arrasate Musikaleko kideek

Alde batetik, 18:00etan, Amaia antzokian kurtso amaierako ikuskizuna egingo dute, sanjuanetako egitarauaren baitan. Ordu berean, Juan Arzamendi Musika Etxean, Hezkuntza Anitzeko ikasleen emanaldia izango da. San Juan jaietako egitarauarekin jarraituta, 20:00etan Goikobaluren kontzertua izango da San Frantzisko elizan.



Aramaioko Lagunkoia taldekoak, udal ordezkariak eta herritarrek sinadurekin, Arrasaten, sinadurak aurkeztu aurretik. I.A.A.

392 sinadura osasun-zerbitzu duina eskatzeko

Herrian osasun-zerbitzu jarraitua izateko sinadurak aurkeztu zituzten martitzen goizean Aramaioko Lagunkoia taldekoek, udal ordezkariak eta herritarrek Arrasateko Osakidetzako Herritarren Arreta Zerbitzuan; maiatzean egin zuten sinadura bilketa

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO
392 sinadura aurkeztu dituzte asteon Aramaioko Lagunkoia taldekoek, udal ordezkariak eta beste hainbat herritarrek Arrasateko Osakidetzako Herritarren Arreta Zerbitzuan, Aramaioko kontsultategian osasun-zerbitzu duina eskatzeko. Sinadurak aurkeztu eta berehala, Arrasaten bertan, Rosa Mondragon aramaiorak adierazi zuen hurrengo pausoa dela sinadura bakoitzari erregistroa ematea: "Erregistro hori behar bezala sartu, eskaera egin eta horren frogagiria guk jasoko dugu bueltan. Bertako langileak esan digu denbora beharko duela, ia 400 eskaera izan direlako".

Ze erantzun jasotzea espero duten galdetuta, Mondragonek esan zuen ez dela erraza jakitea, baina nabarmendu zuen ia 400 pertsona mobilizatu izana mugimendu garrantzitsua dela: "Guk uste dugu zerbait egingo dela, edo hori da gure esperantza". Aramaioko Lagunkoia taldeko

Ane Miren Etxebarriak honako hau gehitu zuen: "Gutxienez, jakin dezatela herrian kezkatuta gaudela eta zerbitzua eten egiten dela. Une batzuetan ez daukagula medikurik eta Arrasatera etorri behar izaten dugula".

Herrian martxan jarritako ekimena izan da; izan ere, maiatzean egin zuten sinadura bilketa, Aramaioko Lagunkoia sustatuta, eta balorazio positiboa egin du taldeak. "Modu oso positiboan baloratzen dugu. 392 sinadura bildu ditugu, herria mugitu egin da eta oso ondo erantzun du", zioen Etxebarriak.

Osasun-zerbitzuan etenak
Herritar talde batek osatzen du Aramaioko Lagunkoia taldea,

**MAIATZEAN EGIN
ZUTEN ARAMAIOKO
LAGUNKOIAK
BULTZATUTAKO
SINADURA-BILKETA**

eta herriko gabeziak eta, batez ere, pertsona nagusien bizitza hobetzeko beharrak aztertzen dituzte. Kasu honetan, osasun-zerbitzua hobetu beharra dagoela ikusi dute, uda partean eta beste egoera batzuetan mediku edota erizain titularra ez badago zerbitzurik gabe geratzen direlako.

Mondragonek gaineratu zuen uste duela gutxieneko zerbitzua beharrezkoa dela 1.500 biztanle inguru dituen herri batean, eta hori eskatzen dutela. Udara begira ere arduratuta daude, aurreko urteetan zerbitzua eten eta Arrasatera bideratu baituzte. Alabaina, arazoa ez daukate udan bakarrik: "Aramaion daukagu mediku eta erizain titular bana. Bi pertsona horiek edozein arrazoiengatik falta badira, guk hutsunea nabaritzen dugu herrian. Guk nahi duguna da Osakidetzak zerbitzu jarraitua ezartzea, nahiz eta gaur egun Aramaion titularrak direnak bertan ez egon".

Gaur jarriko dute martxan ur parkea, txikien gozamenarako

Aramaioko Udalak herritarrei eskatu die ur parkea zaintzeko eta modu egokian erabiltzeko

I.A.A. ARAMAIO

Gaurtik aurrera etxeko txikienean ur parkea erabiltzeko aukera izango dute eta eskola egunetan ordutegia honako hau izango da: asteleheneetik egubakoitzera, 16:30etik 19:30era bitartean; eta zapatuetan eta domeketan, 11:00etatik 19:30era. Halaber, eskolako opor egunetan, 11:00etatik 19:30era egongo da zabalik.

Arauk ere zehaztu ditu Aramaioko Udalak, eta eskatu du ez jateko eta edateko eremu barruan eta kristalezko ontzirik ez erabiltzeko, hautsiz gero izan

daitezkeen arriskuengatik. Debebatuta dago bizikletak, patineteak eta bestelako ibilgailuak eta animaliak parkean sartzea. Zirkuituko ura ez da edangarria.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ikuskatuko du parkea, dagokion higiene neurriak hartuta. Era berean, Udalak gogorarazi du ur parkea herritar ororena dela eta zaindu eta ongi erabili behar dela: "Elkar errespetatu; eta jende asko badago, txandaka ibili". Indarrean dauden segurtasun eta osasun neurriak betetzeko ere eskatu du.

GORA ETA BEHERA



Frontoia auzolanean margotu eta biharamunean pintaketa



Hilaren 5ean margotu zuten kanpoko frontoia, eta pintaketa agertu zen hurrengo egunean. Udala haserre dago eta eskatu du halakorik ez egiteko eta ez onartzeko halakoak gertatzerik.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Udako irristaketa eta hockey campuseko izen ematea zabalik

Burdinola irristaketa taldeak campusa antolatu du ekainaren 24tik 28ra Aramaioko kiroldegian, LHko lehen mailatik seigarren maila bitarteko eta DBH-1eko eta DBH-2ko ikasleendako. Ordutegia 09:30etik 13:30era izango da, eta izena emateko burdinola.irristaketa@gmail.com helbidera idatzi edo 649 45 79 73 telefonora deitu behar da.

Ale & The Hopes taldearen kontzertua gaur Sastiñan

Sastiñako Musika Festibalaren barruan, Ale & The Hopes taldeak kontzertua emango du, 19:30ean hasita. Blues, soul, jazz eta funk doinuak joko ditu laukoteak, eta antolatzaileek adierazi dute talde horren errepertorioan leku duela musika estilo horietako abeslarien musikak. Halaber, Aramaioko Bizirik taldeak txosna txiki bat jarriko du.

Gazteen ongizate emozionala aztergai

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalerrietako gazteen ongizate emozionalaren gaineko diagnostikoa egingo du Udalak, herritarrekin elkarlanean; gazteen foroa osatuko dute datorren astean eta ikerketaren emaitzak abenduan aurkeztuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Gazteen ongizate emozionalaren diagnostiko zehatza egitea dute jomuga Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal ordezkariak, ondoren neurri zehatzak hartu ahal izateko. Prebentzio Mahaian du abiapuntua ekimenak. "Orain dela urte batzuk sortu zen mahai hori, une hartan zeuden beharrei erantzuteko. Eta orain ere horrek lideratuko du", adierazi du Ongizate Saileko zinegotzi Nerea Zubillagak. Mahai horretako kideek –bi udaletako ordezkariak, ikastetxeetakoak, osasungintzakoak, guraso elkarteetakoak, gaztelekuakoak...– ikusi dute bere garaian abian jarritako ekintzek eguneratu beharra zutela, bereziki, "adikzioen fenomeno aldakorra delako", eta lanketa bat egitea proposatu dute. Diagnostikoa idazteko eta prozesu hori dinamizatzeko ardurara Garaia Osasunerako Sustapena SL enpresak izango du, osasun hezkuntzan eta adikzioen prebentzio arloan adituak.

Gizarte eragileen parte-hartzea

Ongizate emozionalaren gaineko lanketa horretan adikzioak aztertuko dituzte, baina baita nerabeen aisialdia eta harremanak ere: "Substantzien kontsumoaren eta bestelako adikzioekin zerikusia duten arriskuak eta babes faktoreak ezagutuko ditugu", adierazi du Maider Etxanizek, Udaleko Gazteria teknikariak. Horregatik, nerabeekin zuzenean egingo dute lan, baita haiekin hartu-eman duten udalerrietako eragileekin, elkarteetako ordezkariarekin eta herritarrekin ere.

Hainbat fasetan banatu dute lanketa. Lehenengoa izango da gazteen foroa osatzea; ekainaren 18an egingo dute hori, 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin. DBHko 40 ikaslek hartuko dute parte; Arizmendi Ikastolako eta Kurtzebarri Institutuko lehen zikloko hogeitau hamar eta bigarren ziklo-

ko beste hogeitau hamar dira. Bizi-ohituren, kontsumoen eta bestelako jarreraren inguruan egingo dute berba foro horretan.

Ondoren, udazkenean, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako, DBHko, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei inkesta bat bideratuko diete.

Gero, herriko eragileekin osatutako eztabaida-taldeak sortuko dituzte, gaur egungo egoeraren gainean hausnartzeko; hiru talde izango dira. "Udalerrietako gizarte ordezkariak zabala gonbidatuko da. Horrez gain, herri-

tar orok bere iritzia emateko aukera izan dezan, udaletako webguneetan gaiaren inguruko inkesta bat zintzilikatuko da", dio Etxanizek.

Diagnostikoaren aurkezpena 2024ko abenduan egingo dute, ondo bidean. Eta 2025ean prozesuaren azken faseari helduko diote. Prebentzio, sentsibilizazio eta hezkuntza zein arlo komunitarioan garatu daitezkeen neurri zehatzagoak definituko dituzte, datozen urteetarako lehenetsuneko esku-hartze lerroak ezarrita.



Udal ordezkariak, ikastetxeetakoak eta Garaia Osasunerako Sustapena SL proiektuaren berri ematen. I. BELOKI

Diagnostikoaren faseak

Gazteen ongizate emozionala lantzeko jarritako epeak:

- **Ekaina:** gazteen foroa osatu 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin.
- **Iraila:** galdetegi bat zabaltu ikastetxeetan, LHko 5. mailatik hasi eta DBHko, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek betetzeko.
- **Urria:** herriko eragileekin foroak osatu: hezkuntza formaleko eta ez-formaleko ordezkariak, osasungintzako profesionalak, dendari eta ostalariek...
- **Abendua:** diagnostikoaren aurkezpena.
- **Azken fasea 2025ean:** neurri zehatzak definitu, lehenetsuneko esku-hartze lerroak ezarrita.



YAAKAR ELKARTEA

Senegalerako materiala prest

Senegalgo Mbam eskualdera bidaltzeko materiala prest du Yaakar elkarteak. Arizmendi Ikastolako ikasleek hainbat ordenagailu egokitu dituzte eta Aretxabaleta Lanbideko Eskolakoek, bi aulki gurgildun elektriko. Uztail bukaeran iritsiko dira Afrikako herrialdera. Kurtzebarri Eskolakoek eta Mondragon Unibertsitateko kideen laguntza ere jaso dute.



Moraza eta Ibañez arkeologoak liburua aurkezten, joan den zapatuan. JAGOBA DOMINGO

Galartzako dorretxearen eta leinuaren gaineko liburua kalean

Aranzadi elkarteko Alfredo Moraza eta Alex Ibañez arkeologoek egindako indusketa lanetan du oinarria

M.A. ARETXABALETAKO

Zapatuan aurkeztu zuten *Galarza: linaje y torre –siglos XV-XX– liburua* Aranzadi Elkarteko Alfredo Moraza eta Alex Ibañez arkeologoek. Duela 34 urte sute baten ondorioz Galartzako dorretxea erre egin zen eta handik hiru bat urtetara indusketa historiko eta arkeologikoak abiarazi zituzten Aranzadikoek, Aretxabaletako orduko Udalak bultzatuta; hain zuzen ere garai hartako alkate Aitor Antxia ere izan zen aurkezpenean.

Urte luzeetan izan duten aranzatxoa kendu dutela liburuare-

kin zioen Moraza arkeologoak: "Orduan egindako azterketa berreskuratu eta eguneratu egin delako". Eta Udalak ondare historikoa mantentzeko apustua egin izana nabarmendu zuen.

Aretxabaletako alkate Gari Iturbek ere balioa eman zion tokiko historia jakiteari eta zabalteari: "Jasotzen ez duguna ez dugu transmititzen eta hori garrantzitsua da".

"Izen handiko leinua" izan zen galartzatarren eta haien dorretxearen historia jasotzen du liburuak. eta Arkupen daukate salgai, 10 eurotan.

Atxabalta Harro badator jai giroan aldarrikatzer

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunari begira egun osoko ospakizuna antolatu du biharko, ekainak 15, Atxabalta Harro taldeak; aldarrikapenek ere izango dute lekua ekitaldietan eta aretxabaletarrak gonbidatu dituzte horiekin bat egitera

Mirari Altube ARETXABALETA

Atxabalta Harro taldeak ospakizun eta aldarrikapen eguna antolatu du, hirugarrenez, biharko, zapatua. "Lehenengo urteko apaltasunera itzuli gara eta egun bakarrera mugatuko da eguna; betiere, oinarriak zeintzuk diren argi izanda eta hori erakutsita herrian. Horren arrazoietakoa bat da urtean zehar ere bagabiltzala ekintzak antolatzen eta lehen baino presentzia handiagoa hartzen", azaldu du elkarteko kide Beñat Arizabaleta Irurek.

UDArekin elkarlanean

Egunaren helburu nagusia da LGTBIAQ+ kolektiboko kideentzat "ahalik eta herri bizigarriena" izatea. "Eragin gura dugu ahalik eta esparru gehienetan: parranda giroan, dendetan, kalean, ikastetxeetan... Gerta daitezkeen eraso eta jarrera homofobo, transfobo eta LGTBIAQ+-fobo guztiak desagertzea izango litzateke gure helburu ideala, herri are eta bizigarriagoa eta seguruagoa izan dadin guztiontzat, ez bakarrik kolektibo horietako kideentzat".

Horretarako dagoeneko hainbat ekimen egin dituztela adierazi dute; Aretxabaleta kirol elkartearekin, esaterako: "Herriaren futbolak eta UDAk duten indarra ikusita ezinbestekotzat jo genuen euren elkarlana abiatzea. Hala, maiatzaren 19an, denboraldiko azken partiduan, galtzerdi bereziak jantzi zituzten eta banderarekin argazkia atera. Lehen pauso bat izan da elkarlan horretan, eta bide horretatik jarraitu behar dugu, UDAk aldaketa handia eragin dezakeelako herrian".

"Harrera beroa" aurrekoek

Taldeko kideak pozik daude orain arteko egunei egindako harrerarekin: "Ikusten dugu herrian gutxieneko kontzientzia



Atxabalta Harro taldeko kide Beñat Arizabaleta, Alex Arribas eta Maite Perez. M.A.

bat badagoela eta poliki-poliki aurrerapausotxoak ematen bagabiltzala. Oraindik bide izugarri luzea dugu aurretik, baina hasierako indar hori hartzen hasita dago, eta orain, eutsi egin behar diogu".

Eguneko egitarauaz gain, ekain osoan Arkupen egongo den erakusketa nabarmendu gura izan dute: lesbianismoaren gaineko erakusketa. Horrez gain, bazkaria azpimarratu dute, topagunea izaten delako, eta sorpresaxoren bat edo beste egongo dela aurreratu dute.

Herritarrei gonbidapena

Borroka egun bateko kontua ez dela argi utzita, herritar guztiak gonbidatu gura izan dituzte biharko ospakizunera: "Parte hartzea eta hausnartzera gonbidatzen ditugu; hain barnerratu ditugun jarrerak zalantzan jartzera eta geure buruari galderak egitera. Gure herriko errealitatea aldatu eta, batez ere, hurrengo belaunaldiei bidea errazteko, epairik gabeko bide bat sortzen joateko. Guztion esku dago. Feminismoarekin, arrazismoarekin eta beste hainbatekin gertatzen den moduan, mugimendu barrukoak kontzientziaztea ondo dago, baina mugimendutik kanpo dauden parte hartzea ezinbestekoa da, gizartea guztiok osatzen dugulako, eta gizartea aldatzeko guztiok eman behar dugu zerbait".

Egitaraua

Ekainak 15

- **11:00** Dianitza, diana.
- **12:00** Pregoia. Herriko Plaza.
- **12:30** *Nork dauko bazkariok giltzia?* Plazatik abiatuta kalejira.
- **15:00** Bazkaria, Iturigorri pilotalekuan. Sorpresak egongo dira.
- **22:30** Mikel Night DJa. Mitarte kalea.

Ekainak 29a arte

- **Erakusketa: Bidean: ezkutukotik ikusgaitasunera.** Arkupe.

Balkoiak apaintzeko dei egin dute.

Mondragon Unibertsitateak eta Udalak akordioa berretsi dute

Horri esker, 'IdeiEnea' izeneko espazioko aretoa kultur ekitaldietarako erabiltzeko aukera izango dute

M.A. ARETXABALETA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanogore Ipiñak eta Aretxabaletako alkate Garikoitz Iturbek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten joan den martitzenean, "elkarlanean jarraitzeko esperientzia eta baliabideak elkartrukatu".

Lankidetzaz horren adibide jarri dute *IdeiEnea* izenarekin Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campusaren eraikineraren alboan eraikitzen dabilen espazioa. Ekosistemako eragileen

artean lankidetzarako aukerak sortzeko gunea izan dadin gura dute, "gizartean eragina erabiltzeko".

IdeiEnea-k, besteak beste, *co-working* espazioa bat izango du "ekintzailatza proiektuak" aurrera eramateko, eta areto bat ere bai. Hain zuzen, Aretxabaletako Udalak kultur ekitaldietarako erabili ahal izango du hori.

Espazio horren lanak bukatutakoan ate irekien saio bat antolatzeke asmoa dute, herritarrek bertatik bertara ezagut dezaten.

Egunotan herritarren ekarpenak jasoko ditu Udal Gobernuak

Urriaren 15ean aurkeztuko duen Udal plan estrategikoa osatzeko helburuarekin Udal Gobernuak herritarren iritziak entzun eta ekarpenak jaso gura ditu. Horretarako herriko hainbat gutnetan izango dira datorren astean; hona hemen horiek: astelehenean, azokan, 09:00etatik 11:00etara; martitzenean Durana kalean, plaza azpian, 18:00etatik 20:00etara; egunean, Bedarretako plazan, 09:00etatik 11:00etara; eta Portasolen (euskaltegi parean), 18:00etatik 20:00etara.

Herritarrek parte hartzea gonbidatu dituzte: "Aurtengo aurrekontuetako proiektuez eta plan estrategikokoan jasoko direnez gain, badago berriak sartzeko aukera".

Udaero programan izena emateko azken eguna domeka da

Gaztelekuak aurtun ere antolatu du 12-16 urte bitarteko gaztetxoei bideratutako *Udaero* egitasmoa, uztaileko. Lehen hamabostaldian hainbat eguneko irteerak eta ekintzak izango dituzte eta hirugarren astean, *Gaztekonkis* irteera. Izena emateko epea ekainaren 16a arte egongo da zabalik, Aretxabaletako gaztelekuak.

25 kilometroko mendi ibilaldia domekan, Murruxoren eskutik

Murruxiko mendizale elkarteak XII. mendi martxa egingo du etzi. 25 kilometroko ibilaldirako 150 lagunek alde aurretik eman dute izena, baina egunean bertan ere eman ahal izango da, Herriko Plazan, abiatu aurretik; 07:30ean da irteera ordua.

Bide berriak ezagutzeko ibilbidea antolatu dute. Herriko Plazatik abiatu eta Areantza auzotik bueltan Ugastegira joango dira; han bertan egongo da lehenengo anoa-postua. Gero, Andarto eta Andarto Txikiren artetik aurrera egin, Alabita Txikira jaitsi eta Leixargaratera iritsiko dira; han ere anoa-postua egongo da. Handik jaitsiko dira Aretxabaletara.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Udaero egitasmoaren barruko edizio batean, Eskoriatzako nerabeak Gaztañaduiko ur-jauzian. GOIENA

Dagoeneko eman daiteke izena Udaero programan

Udaero egitasmoan gaztetxoek nahi duten ekintza guztietan eman dezakete izena, banaka batean, bitan edo denetan. Izen ematea ekainaren 16ra arte egongo da zabalik, Eskoriatzako gaztelekura joanda edo 688 84 36 21 zenbakira deituta

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Lorratz Elkartek, Eskoriatzako Udalarekin eta Eskoriatzako gaztelekuarekin elkarlanean, 12-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako Udaero egitasmoa antolatu du, beste urte batez. Programa bi zatitan banatzen da: lehen hamabostaldian hainbat egunetako irteerak eta ekin-tzak eskaintzen dira eta hirugarren astean, berriz, hiru eguneko irteera, *Gaztekonkis* izenez ezagutzen dena.

Sei irteera aukeran

Hori horrela, Eskoriatzako gazteek ez dute aspertzeko astirik izango, ekintzaz, jolasez, kirolez eta ikastaroez gozatzeko aukera izango dute eta. Hona hemen eguneguz egun izango diren irteerak: uztailaren 3an, surfa egitera joango dira Debara. Ordutegia 11:00etatik 19:00ak bitartekoa izango da eta prezioa, berriz, 20 eurokoa; uztailaren 5ean, berriz, beste hainbat ediziotan moduan, Es-

koriatzako Gaztañaduiko ur-jauzira irteera egingo dute, oinez edo bizikletaz joanda. Ordutegia 16:00etatik 19:00etara artekoa izango da, eta doakoa da. Uztailaren 8an, Mutrikuko igerileku naturaletara irteera egingo dute. Ordutegia 11:00etatik 19:00etara artekoa da eta 10 euro ordaindu beharko dute nerabeek. Uztailaren 10ean, aldiz, pelikula bat ikustera joango dira izarren azpira. Hain zuzen, Santa Luziako berdeguna. Ordutegia 20:00etatik 00:00ak artekoa izango da, eta doan. Amaitzeko, uztailaren 12an egingo dute azken irteera, urrun joan gabe. Izan ere, parrillada egingo dute gaztelekuan, 19:00etatik 22:30era bitartean,

ZENBAIT EKINTZA ARETXABALETAKO ETA ARRASATEKO GAZTELEKUEKIN EGINGO DITUZTE

eta interesa dutenek hiru euro ordaindu beharko dute.

Elkar ezagutzeko hitzorduak

Eguneko ekintzen artean, batzuk ordaindu beharrekoak dira eta beste batzuk doakoak dira, baina lehenengo bi asteetako ekintza guztietan izena emanez gero deskontu bat aplikatuko dute, eta prezioa 30 eurokoa izango da. Uztailaren 3ko eta uztailaren 8ko ekintzak, bestalde, Aretxabale-tako eta Arrasateko gaztelekue-tako nerabeekin batera egingo dira, baita *Gaztekonkis* ere.

'Gaztekonkis' Garaionen

Uztailaren 16rako, 17rako eta 18rako, berriz, hiru eguneko irteera antolatu dute Garaionera. Bertan egingo dute urtero arrakasta izaten duten *Gaztekonkis*. Telebistako lehiaketa programaren antzera, parte-hartzaileak taldeetan banatuko dituzte eta hiru egunetan zehar beste taldeekin batera hainbat probatan lehiatuko dira.

Identifikazio sistemak ezagutzeko saioa ekainaren 18an

Administrazio publikoarekin izapideak egiteko identifikazio elektronikoko egiteko sistema da Cl@ve. Pasahitza behar da, aktibazio-kodea ezarri... Horrekin batera, FNMT sistema ere badago. Horiek erabilgarriak dira online tramite hauek egiteko: unibertsitate-tituluen homologazioa, Gizarte Segurantzza, oporrak eta termalismo soziala, SEPE, DGT... Hori horrela, hilaren 18an, 17:30ean, hitzaldia izango da, kultura etxean, Eskoriatzako Udalak antolatuta. Kredentzial horiei buruzko azalpenen ondoren, bertara doazen herritarrek kredentzial pertsonala ateratzeko aukera izango dute.

Open Axtroki txapelketa antolatu dute lehenengoz

Uztailaren 6an, Open Axtroki izenpean, fullkenpo MMA diziplinako borroka txapelketa izango da Eskoriatzan. Txapelketetan esperientziarik ez dutenei zuzendutakoa izango da, eta interesdunentzako izen-emateak zabaldu berri dituzte. Horretarako, *kenpofulldefense@gmail.com* helbidera idatzi edo 627 44 21 42 telefono-zenbakira idatzi edo deitu daiteke. "Aurreikusten dugunez, 100 borrokalari baino gehiago kenpo tradizionalako lehiakideak izango dira, eta hogeit hamar borrokalari bakoitza MMA kaiolako borrokan", adierazi du Rafa Carrietek, Atama Eskoriatza taldeko entrenatzaileak.

GORA ETA BEHERA



Gaixoa lasaitzeko eta entretenitzeko apala, beteta

Osasun zentroko itzarotegelan dagoen biblioteka txikia liburu berriei osatu dute Eskoriatzako udal bibliotekakoek. Ekintza xumea, polita, eta irakurzaletasuna sustatzeko proposa; eta, aldi berean, lagungarria bertara doazen haurrentzat.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



OHARRAK

Ilargi tabernaren 30. urtemuga

Ilargi tabernaren 30. urtemuga izanda, zapatuan, ekainak 15, 20:00etan, ospakizuna hasiko dute. *Photocall*-a, mokadutxoa eta Azahar taldearen kontzertua.

Odola emateko autobusa

Ekainaren 20an odola emateko autobusa izango da Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era.

LABeko afiliatuari elkartasuna

TESA enpresan izandako kaleratzea salatzeko, elkarretaratzea deitu dute LAB sindikatuko kideek Eibarko epaitegiaren aurrean ekainaren 19rako, 11:00etan.

Mundu hobeia lortzeko bidean hazia ereinda

Orotariko ekintzak egin dituzte aste osoan EskoZap elkarteko kideek, Aste Zapatistaren barruan: Oihulari Clownen saioa, hitzaldiak, 'Udaberriko paseoa' Jose Arana egoitzako egoiliarrekin... Hala ere, gaur eta bihar ere izango da zertaz gozatu

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Aste Zapatistaren beste edizio batean murgilduta daude EskoZapeko kideak. Urtero moduan, programazio zabala prestatu dute aste osorako, eta gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, izango dira ekintza nagusiak.

Orain artekoarekin "pozik"

Beste mundu bat posible da hitzaldia egin zuen Iurre Romaratezabalak astelehenean Luis Ezeizan, asteari hasiera emateko, eta gaur arte ekintza ugari egin dituzte. "Astea oso ondo joan da. Azpimarratzekoa izan da martitzenean Oihulari Klowneko Virginia Imazek aurrera eramandako ekintza. Clown ugari izan ziren Eskoriatzan, eta, Besarkaden Eguna izanda, besarkadak ematen eta herritarrei irribarreak ateratzen izan ziren", adierazi du Oihana Irazuk, EskoZap elkarteko kideak.

Aldaketa bakarra egitarauan

Gaur, egubakoitza, nerabeekin tako lehiaketa egingo dute, 18:30ean hasita, gaztelekuan. Txoko feministan, Inkernu taberna parean, berriz, Irungo Bad Sound taldearen eta eskoriatzarrek osatutako Orekakero -Chico Infierno taldearen ordez- taldearen kontzertuak izango dira,



Aste Zapatistako apaingarriak Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL BELOKI

CHICO INFIERNO TALDEAREN ORDEZ, OREKAKERO TALDE ESKORIATZARRA ARITUKO DA, GAUR

19:30ean hasita. Zapatuan, berriz, artisau eta bigarren eskuko azoka izango da, 12:00etan. Burrunbazale txarangak kaleak girotuko ditu egunean zehar, eta bazkari mexikarra ere egingo dute. Bazkalondoan, Autore Erotua


bakarlaria arituko da eta Abraham Arzatek Mexikoko borroka liberearen bueltakoak eramango ditu plazara.

Elkartasun mezuak

Aurtengo Aste Zapatistaren kartelari Palestinako bandera jarri diote, elkartasun-mezu gisa. Horrekin batera, Iban Urretak horma-irudia egin du Buztinateteo lokalaren alboan, eta kultura etxean *EZLN: 30 años de lucha, 30 años de esperanza* erakusketa dago; bihar arte egongo da ikusgai.

Bi erresistentzia batuta

Iban Urreta artista aretxabaletarra ari da Aste Zapatistaren barruan Buztinateteo lokalaren alboko paretan horma-irudia egiten. "Palestinan gertatzen ari den genozidioa dela-eta, Palestinako erresistentzia eta zapatistak nahastu nahi izan ditut aurtengo horma-irudian. Aste Zapatistan egiten dudana hirugarren lana da dagoeneko".



Iban Urreta artista, horma-irudia bukatzeaz, atzean duela. I. BELOKI

LEINTZ GATZAGA | 17



Gatzagako erretiratu taldea Zarautzeko malekoian. IMANOL BELOKI

Erretiratuek egun-pasa ederra egin zuten eguaztenean

Hamabost laguneko taldea batu zen irteera egiteko, eta zenbait herri bisitatzeko aprobetxatu zuten

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA Gatzagako erretiratuek irteera ederra egin zuten eguaztenean. Bertan batutakoak oso gustura aritu ziren lagunartean, eta, eguraldia ere lagun, hurrengo irteera noiz iritsiko zain daude.

Ordizian eta Zarautzen

09:00etan irten ziren autobusez, eta lehenengo geltokia Ordizian egin zuten. Herriko Tabernan hamarretakoa egin, eta azokara joan ziren. Produktuak ikusteaz batera, zenbaitek erosketak egiteko aprobetxatu zuten. Handik euskal kostalderako bidea hartu

zuten, eta Zarautzen egin zuten geldialdia. Malekoian paseotxoan egin ostean, poteoa egin eta Euskalduna tabernan bazkaldu zuten. Ondoren, beste paseo bat eman eta etxerako bidea hartu zuten. Egunari amaiera emateko, Toki-Eder elkartean meriendatu zuten denek elkarrekin, eta handik etxera joan ziren. Udazkenean beste irteera bat egingo dute. "Barnealdean egingo dugu, baina, normalean, Nafarroa aldera joaten gara. Aurten Enkarterri aldera joateko asmoa dugu, baita Balmasedara ere...", dio Perico Orobengoa gatzagarrak.



EIDER SANZ

Ikasturtea borobiltzeko saioa

Medikuaren kontsultan izeneko esketxa aurkeztu zuten joan den egubakoitzean Gatzagako antzerki taldeko kideek herritarren aurrean. Plazan egin zuten emanaldia eta aurreikusitako baino jende gehiago elkartu zela azpimarratu du Eider Sanzek, antzerki taldeko irakasleak: "Ikasturteari agur esateko hitzordu ederra izan da".

"Antzuolako dantzatzeko era molde zaharrekoa da"

MIKEL SARRIEGI DANTZARIA ETA IKERTZAILEA

Ikertzailearen hitzetan, beste leku batzuetan dauden aurrekari zaharrekin "oso ondo" lotzen da Antzuolako dantzatzeko era: aniztasun "handia" du nortasunean gordea

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Dantza tradizioan ahozko transmisioak duen garrantzia azpimarratu du Mikel Sarriegi dantzari eta ikertzaileak (Beasain, 1965), eta horiek jasotzeari funtsezkoa deritzo. Hala, *Gipuzkoako dantza-maisuen puntuak eta aldairak. Oinordetza ezkutua* liburua ondu du azken 25 urteotan, eta, tartean, Antzuolako dantzatzeko era jaso du. Horren berri emango du bihar Torresoroan, mintegia egingo baitu 10:00etatik 13:30era.

Dantza-maisu zaharrekin aritu zara; zer jaso duzu?

Joxe Alberto Andres etorri zitzaidan proposamenarekin, Aranzadiko etnografia taldeko kidea. Goierrin egin nituen lehen elkarrizketak; esan ohi da Ordiziatik abiatu zela jakinduria Donostiara, Juan Inazio Iztuetaren eskutik. Gipuzkoako dantza egiteko modu ofizialtzat ezagutzen da hori, baina elkarrizketak egitean ohartu nintzen duela 200 urte Goierrin ezagutzen zena eta Donostiakoa ez direla erabat berdinak.

Aldaketak izan al ditu?

Tiraka hasi, eta ikertzeko eremua zabaldu nuen, derrigorrean, eta orduan konturatu nintzen oso balioetsuak ziren zenbait punturekin Iztuetatik honantz zer gertatu den ulertzeko, eta lurpeko material pila bat sortu zen orduan. Horrek balio izan du, alde batetik, Gipuzkoako dantza talde gehienek estandarizatuta dugun Donostiako dantza sistemaz jabetzeko, eta, bestetik, ikusteko horren ondoan, paraleloan, dantza maisuekin mugarritu dugun lana. Hor bada oinarri bat elementu komun asko dituenaz azpian, erro bertsuak duten sistema bat; zenbait eremutan, gainera, horren gaineko informazio baliagarriagoa eta aberatsagoa dago, eta horietako bat da Antzuola.



Mikel Sarriegi dantzari eta ikertzailea, joan den astelehenean, Antzuolan. A.R.K.

"EGITEN DIOGUNARI BALIOA EMAN NAHI DIOGU MINGEGIAN, EZKUTUAN DAGOEN ALTXORRA IKUSARAZI"

Zer du Antzuolako dantza sistemak?

Antzuolak, bere neurrian, oso ondo mantendu du dantzatzeko era; baita dantza batzuk ere. Dezenteko fidagarritasuna du oso modu zaharra dela aipatzean, beste leku batzuetan dauden aurrekari zaharrekin oso ondo lotzen delako: batetik, oinarriko sistemako osagai asko ditu, nolabait urtuta edo galduta geneuzkanak; bestetik, dantza eskolak bereiz ditzakegu Gipuzkoan dantzatzeko eraren arabera, eta hor nabarmena da Antzuolako oso aberatsa dela, haren nortasunean gorde duena aniztasun handikoa baita.

Aniztasuna?

Mugimendu unitateez -pau-soa- dihardugu aniztasunaz jardutean; dantzatzeko hiztegia edo gramatika ere deitu izan diogu; alegia, ez dira dantzak, baizik eta dantzatzeko erak: bata

gramatika da eta bestea hizkuntza. Antzuolako kasuan, aipatu bezala, dantza arauen ezaugarriengatik, oso molde zaharrekoak dira, eta horrek ekarpena egiten du mugimenduen hiztegiari, hemengo dantzetan bakarrik aurkitu baititzakegu: trokeo eta soka dantzetan.

Norekin izan zara Antzuolan?

Elkarrizketak egin dizkiet antzularrei ahozko testigantzak jasotzeko: Felix Agirre eta Felix Larrea izan dira adinez zaharrenak, eta ondoren, Jon Legorburu, Ion Lizarazu eta Gorka Garitano dantzariekin ere izan nintzen. Horrez gain, laguntzailer izan nuen Iñigo Ramirez de Okariz historialaria ere bai, nahiz eta dantzaria ez izan.

Zer izango duzu xede mingegian?

Egiten diogunari balioa ematea, egiten duguna nondik datorren eta zergatik egiten den azalartzea; ezkutuan dagoen altxorra ikusaraztea. Horrek ondasun immateriala jasotzen laguntzen du, dantza immateriala eta efimeroa baita. Teorikoa izango da hori, baina praktikoa ere egongo da, hitzez kontatuko duan hori guztia modu praktikoa erakutsi ahal izateko.



ARROLA MENDI ELKARTEA

Basaburuan eta Irunberrin

Arrola Mendi Elkarteak antolatuta, Basaburua (Zuberoa) eta Irunberri (Nafarroa) ezagutzen izan ziren joan den asteburuan hamalau lagun, Euskal Herriko natura parkeak ezagutzen baitabilta aurten; inguru haietako ondare historiko-kulturala ere ezagutu zuten. Hurrengo irteera uztailaren 13an egingo dute, Aiako Harria parke naturala ezagutzera.

Euskara sustatzeko dinamika baten berri emango dute 18an

Euskararen sustapenerako beste dinamika bat martxan jartzeko asmoa du Gipuzkoa Arigune taldeak, Antzuolako Udalaren eta eragileen laguntzarekin, eta horren berri emateko aurkezpena egingo dute: datorren martitzenean izango da, ekainaren 18an, Torresoroa aretoan, 18:30ean, *Imajinatzen al duzu Antzuolan edozeinekin euskaraz*

hitz egin ahal izatea? izenpean; aldibereko itzulpena egongo da.

Sustatzaileen hitzetan, euskararen erabilera eta ulermenean aurrera egiteko "beharra eta aukera" dagoela "sinesten" dute, eta, horretarako, uste dute euskararen eta komunitatearen garapena "elkarren eskutik" doazela. Hori dela eta, euskara eta komunitatea lotzen dituzten erronkak identifikatu, eta esperientzia pilotu batean parte hartzeko aukera eskaini nahi diete antzularrei.

Botiken dirulaguntza jasotzeko eskaria egiteko aukera dago

Botikak ordaintzeko dirulaguntzak eman ohi ditu urtero Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta horrela izango da aurten ere, urteroko errenta 18.000 euro baino gutxiagokoa duten pentsiodunek eskaria egin baitezakete Landatxope elkartearen, ekainaren 20 eta 21ean, 16:30etik 18:00etara. Horretarako, aurreko urteetan eskaria eginda izanez gero, aurrez prestatuta duden orria sinatzea besterik ez da behar. Lehen aldia baldin bada, ordea, dokumentazioa aurkeztu behar du eskatzaileak: banketxe kontu korrontearen titularra ziurtatzen duen agiria, bankuan eskatua; nortasun agiria; eta Osakidetza txartela.

OHARRAK

Ur parkea

Ekainaren 12an, joan den eguaztenean, zabaldu zuten Antzuolako ur parkea, eta irailaren 15era arte egongo da horretaz gozatzeko aukera.

Musika emanaldia

Ikasturte amaierarekin batera, Bergarako musika eskolako ikasleek emanaldia egingo dute astelehenean, hilaren 17an, Torresoroa aretoan, 18:00etan.

Batzar nagusia

Arrola Mendi Elkarteak urteko batzar nagusia egingo du eguaztenean, hilaren 19an, Olanar kultur etxe goiko gelan, 18:30ean.

SANJUANAK 2024



**ALTXA DADILA
FESTA!**

- Gazte Olinpiadak
- Errementari dantza eta danborrada
- Umeentzako eskaintza: barraken orde zuzgarriak
- Entzierroak eta zezen festak
- Kantu afaria eta dragoi jana
- Jaietako musika

IMANOL SORIANO

ION ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK
leihoak

Gora sanjuanak!

ARRASATE
Telleria kalea 4 * Pab. 11 *
943 79 11 35
www.ventaion.com
arrasate@ventaion.com

THERMOFLOC[®]
Sistemas de aislamientos inteligentes



**KONTSULTATU
GURE ESKAINTZA
BEREZIAK!**

Zure neurrira egindako
finantzaketarekin

SANJUANETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA 14

18:00 Arrasate Musikaleko kurtso amaierako IKUSKIZUNA, Amaia antzokian.

20:00 Goikobaluren KONTZERTUA, San Frantzisko elizan.

21:30 KANTU AFARIA Sei Pistols eta Trabuko Bat taldearekin, Herriko Plazan.

ZAPATUA 15

09:00 Hileko hirugarren zapatuko BASERRITARREN AZOKA, Seber Altube plazan.

19:00 HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin, SUDCek antolatuta.

19:30 Idoia Asurmendiren KONTZERTUA, Monterronen.

DOMEKA 16

HAUR DANTZARI EGUNA

10:00 Kalejiraren aurretik elkartzea, Zaldibar pilotalekuan.

11:15 DANTZA ERAKUSTALDIAK, kaleetan zehar.

13:30 HAURREN BATZEA, Herriko Plazan.

17:00 DANTZA EMANALDIA, Herriko Plazan.

19:00 Nemux taldearekin DISKO-FESTA, Herriko Plazan.

MARTITZENA 18

18:30 *Etxe Txikinek 100 urte - Casas baratas 1924-2024* LIBURUAREN AURKEZPENA, Kulturateko areto nagusian.

EGUBAKOITZA 21

19:00 Arrasate Musikalen Ballet taldearen ikasturte bukaerako IKUSKIZUNA, Amaia antzokian.

19:30 DANTZALDI ERROMERIA IBILTARIA EinGo taldearekin.

20:00 Lau eta erdiko San Fermin Torneoaren final zortzirenak, Uarkapen. Bi partidu: Artola-Zubizarreta III.a eta Agirre-Albisu/Laso-Aranguren.

22:30 KONTZERTUAK gaztetxean. Añube eta Kaparrak.

ZAPATUA 22

09:45 Gazte olinpiadei hasiera emateko DULTZAINEROEN DIANA Monterrondik.

10:45 Gazte olinpiaden goizeko talde faseari hasiera herrikoia lau txokotan: Seber Altube, Jokin Zaitegi, Biteri eta Zaldibar.

12:00 Jaien inguruko TOURRA Anabel Ugalderekin eskutik, Txosna Batzordeak antolatuta.

15:00 Gazte olinpiadetako BAZKARIA, Monterronen, Arrasate Rugby Taldearen eskutik.



lazko errementari dantza. GOIENA

17:00 Gazte olinpiaden final laurdenak, Zaldibarren eta Jokin Zaitegin.

18:00 Gazte olinpiaden finalerdiak, Zaldibarren.

18:30 TXOSNEN IREKIERA.

19:15 Gazte olinpiaden finalerantz bidean kalejira, Zaldibartik txosnagunera, Sakatu elektrotxarangarekin.

19:30 Gazte olinpiaden FINALA ETA SARI BANAKETA, txosnagunean.

20:30 DRAGOI JANA, Herriko Plazan.

22:30 KONTZERTUAK, txosnagunean: Eire, Tapia eta Leturia eta Dupla.

DOMEKA 23

SAN JUAN BEZPERA

12:00 TXUPINAZOA ETA TXOSNEN IREKIERA, txosnagunean. Ondoren, TRIKI-POTEOA.

12:00-14:00 PUZGARRIAK ume eta gazteentzat, Biteri plazan.

14:00 Gazte BAZKARIA, Txosna Batzordeak antolatuta, Uarkape pilotalekuan.

16:00-19:00 PUZGARRIAK ume eta gazteentzat, Biteri plazan.

16:30 ETXAFUEGOAK, Herriko Plazan.

17:00 TXOPO-POTEOA Izenbarikuak txarangarekin.

Ondo pasau jaixak!



Sanjuanak 2024

Jai herrikoï, parekide eta parte hartzaileen alde

ehbildu



Entzierroaren une bat, iaz. GOIENA

18:00 MAKALA JASOTZEA, Herriko Plazan.

18:00 KALEJIRA herrikoia txistulariekin.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezentxo eta poneyekin.

19:30 SALBE SOLEMNEA, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

21:00 ERREMENTARI DANTZA.

22:30 SAN JUAN SUA, Herriko Plazan.

23:15 Nagusien DANBORRADA, SUDCek antolatuta, Biteri plazatik hasita.

00:00 Zutik ERROMERIA taldea, txosnagunean.

ASTELEHENA 24

SAN JUAN EGUNA

08:00 KARRO-POTEOA, Txosna Batzordeak antolatuta, txosnagunetik hasita.

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA.

11:00 ETXAFUEGOAK, Herriko Plazan.

11:00 MEZA NAGUSIA, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

11:00 Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren KALEJIRA.

11:00 Arrasate Musikaleko Musika Bandaren KALEJIRA.

12:00-14:00 PUZGARRIAK ume eta gazteentzat, Biteri plazan.

12:15 OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA, Herriko Plazan.

12:30 OMENALDIA 80 urtetik gorakoei, Etxaluzen.

13:00 Arrasate Musikaleko Musika Bandaren KONTZERTUA, Monterronen.

16:00-19:00 PUZGARRIAK ume eta gazteentzat, Biteri plazan.

19:00 IPUIN KONTALARIA, txosnagunean.

19:30 Oihan Vegarekin DISKO-FESTA, Herriko Plazan.

19:30 KALEJIRA erdiguneko kaleetan Garin Band taldearekin.

20:00 KONTZERTUAK, txosnagunean: Aiert eta Zirrara.

23:00 SU ARTIFIZIALAK, Vulcano pirotekniaren eskutik, Santa Barbaratik.

23:15 KONTZERTUA, Monterronen: Esne Beltza.

23:15 Oihan Vegarekin DISKO-FESTA, Herriko Plazan.

MARTITZENA 25

HAURREN ETA GAZTETXOEN FESTA EGUNA

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA.

10:30-18:30 Gaztelaru Eguna eta ekintzak 12-16 urte bitartekoentzako, Kulturate atzeko plazan.

11:00 ETXAFUEGOAK, Herriko Plazan.

11:00-14:00 JOLAS PARKEAK, Seber Altube plazan eta Monterronen.

12:30 Eguzkilaruren ongietorria eta MAKAL TXIKIAREN IGOERA, Seber Altube plazan.

12:30 BERTSO JAIALDIA, AEDk antolatuta, Zaldibar pilotalekuan: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Aroa Arrizubieta eta Ane Zuazubiskar. Gai-jartzaile, berriz, Olatz Zuazubiskar.

12:30 Arrasate Trikitixa Eskolarekin KALEJIRA.

13:00 Txosna Batzordeak antolatuta, PINTXADA KOLEKTIBOA, txosnagunean.

13:00 KALEJIRA txistulariekin.

13:30 APAR FESTA, Seber Altuben.

14:30 Zeuk iñ zeuk jan kuadrillen arteko BAZKARIA, Portaloian.

14:30 Gaztelaru Egunaren barruan, gazte BAZKARIA, Kulturate atzeko plazan. Ondoren, jolasak.

17:30 KARRO-POTEOA, Txosna Batzordeak antolatuta, Portaloitik.

19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Ez gara jaitsiko IKUSKIZUNA, Monterronen.

22:30 Oxabi ERROMERIA taldea, Herriko Plazan.

23:00 KONTZERTUAK, txosnagunean: Zea Mays eta The Clayton.

EGUAZTENA 26

08:00 Txosna Batzordeak antolatuta, KARRO-POTEOA, txosnagunetik hasita.

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA.

11:00 ETXAFUEGOAK, Herriko Plazan.

11:00 Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren KALEJIRA.

12:00 Eusko Labeleko produktuak DASTATZEA, Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin, Herriko Plazan.

18:00 Ganso&Co taldearen Welcome IKUSKIZUNA, Biteri plazan.

19:00 Lore Gazteak taldearen DANTZA EMANALDIA, Seber Altube plazan.

20:00 KONTZERTUA, Herriko Plazan: Kiko Veneno.

EGUBAKOITZA 28

19:30 Arrasate Musikaleko Big Bandaren KONTZERTUA, Monterron parkean.

DOMEKA 30

09:30 VI. Arrasate Sustrails ENDURO TXAPELKETA, Arruena parketik hasita.



2023ko sanjuanetan, Eguzkilaru. GOIENA

2024-2025 IKASTURTEKO MATRIKULA ZABALIK

- ➔ Adin eta maila guztiak, 6 urtetik aurrera
- ➔ Cambridge azterketetarako prestaketa
- ➔ Ordu-tegi zabala
- ➔ Jatorrizko irakasleak eta online eskolak
- ➔ Errefortzu klaseak

idiomasterarrasate@gmail.com
Otalora lizentziaduna 29, behea
ARRASATE - ☎️ 681 35 32 92

ENGLISH

FRANÇAIS

DEUTSCH

IDIOMASTER
ENGLISH · FRANÇAIS · DEUTSCH

Jaiak hasteko gogoz beteta

Arrasateko Txosna Batzordeko kideek hilabeteak pasatu dituzte jaietako egitaraua lotu eta guztia prestatzen. Hainbat ekintza prestatu dituzte, sei egunetan banatuta



2023ko jaien hasiera. GOIENA

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Hilabeteetako lana izan dute Arrasateko Txosna Batzordeko kideek jaiak prestatzen. Urteroko gisan, mimo handiz prestatu dituzte jaiak, eta sei egun iraungo duen egitaraua osatu dute. Batzordekideak jakitun dira atzera kontaketa geroz eta txikiagoa dela, eta jaiari hasiera emateko gogotsu daude, paper gainean diseinatutakoa praktikara eramateko. Denetarik antolatatu dute, eta urteroko ekimenak proposamen berriekin zuzturturik ageri dira.

Naturari Gorazarre tourra

Antolatutako ekimen berrien artean, atentzioa eman dutenetako bat Naturari Gorazarre izeneko tourra da. Ekainaren 22an izango da tour hori, 12:00etan hasita. Oroimenari begira egindako ekimena da, jaiak eta historia uztartzen dituena. Anabel Ugaldereen historialariaren eskutik sanjuanen historian barrera egindako ibilbide bat proposatzen dute Txosna Batzordekoek. "Jaiak bere garaian zela ospatzen ziren aztertze antolatu dugu tourra; bereziki,

sanjuanei erreparatuta. Horrez gain, jaiak historian zehar izan duten bilakaera eta azken urteetan izan duten bilakaera ere aztertuko da", azaldu du Beñat Barrenak, Arrasateko Txosna Batzordeko kideak.

Txupinazoa

Ezin da aipatu gabe utzi txosnei irekiera ofiziala emateko botatzen den txupinazoa. Ekainaren 23an izango da, 12:00etan, bi txosnen artean dagoen tartean. Urteroko ekimena da hori, baina, berdin-tasun horretan, ezberdintasunak

aldaketak izaten dituena urte batetik bestera. Txosna Batzordearen parte den eragile bat arduratzen da urtero txupinazoa antolatzeaz, urtetik urtera ezagarrri ezberdineko ekimena izango dela bermatzeko. Aipatu beharrekoa da eragileak autonomia duen arren Txosna Batzordearekin adosten duela proposamena.

Aurten, Gazte Koordinadora Sozialista da txupinazoa prestatzeko ardura duen eragilea. "GKS izango da aurten txupinazoaren ardura duen eragilea.

Txupinazoaren aurretik pregoi bat botako dute, eurek gertatutakoa. Horrekin batera beste ekintza bat egingo dute, momentura arte jakingo ez dena. Amaitzeko, bi etxafuego botako dituzte". Horren ostean, jaiari hasiera emango zaie, modu ofizialez ez bada ere.

Gazte bazkari herrikoa

Txupinazoaren ostean, triki-poteoa egingo dute Arrasateko kaleetan barrera, 12:30ean hasita. Horren ostean, urteroko legez, gazte bazkari herrikoa



RPS 239/19 - 238/19

Euskal Herria 3, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 44 22
www.udalaitz.com
inform@cmudalaitz.com

Espezialitate medikuak
Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048

Diagnosi-probak

Ondo ibili jaietan!

*Ondo pasatu
San Juan
jaiak!*

EUROREPAR
CAR SERVICE

TAKOLO
AUTOAK

San Andres Auzoa 10-D
Tel.: 943 77 30 10



Joan den urteko gazte bazkari herrikoa. GOIENA

antolatuko Txosna Batzordeko kideek. 14:00etan izango da, Uarkapeko pilotalekuan. Txosnetako ekimen bat den arren, ohituraz, bazkariaren antolakuntza ez da batzordekideen gain erortzen. Bazkaria aurrera eramateko ardura kintoek izaten dute; hau da, urte horretan 18 urte betetzen dituzten gazteek. "Haiek arduratzen dira herri bazkariak ekartzen dituen lanak kudeatzeaz. Txanda ezberdinak egiten dituzte, adibidez; muntaketa, desmuntatze eta zerbitzatze lanak", dio Barrenak.

Kamisetak

Urteroko beste kontu bat Txosna Batzordeak jaiei begira ataritzen dituen kamisetak dira. Txupinazoaren printzipio bera darabilte kamisetak ateratzeko orduan, eta bata prestatzeaz arduratzen den eragileak bestea prestatzeaz ere arduratu behar du. Horrenbestez, aurten, Gazte Koordinadora Sozialistaren gain egon da kamisetaren diseinua egitearen ardura. Txupinazoan bezala, eragileak autonomia puntu bat duen arren, Txosna Batzordearekin kontrastatu

behar du diseinua: "Kamisetaren eredua egiten du eragileak, eta diseinuarekin aurrera egitea erabakitzen bada, listo. Bestela, aldaketak proposatzen dira eta eragileak diseinua berritzen du, adostasuna izan arte".

Aurten, *Klase gorrotoa antolat*u leloa eramango dute kamisetek. Leloaz gain, bestelako berrikuntza bat ere bada kamiseten alorrean: "Normalean, herri bazkariko tiketarekin bakarrik eskuratu zitekeen kamiseta. Tiket bakoitzeko kamiseta bat banatzen zen. Hala ere, aurten muga hori gainditu eta tiketik gabe kamiseta eskuratzeko aukera jarri da, guztiek erosteko aukera izan dezaten".

Txopoa

Bazkariaren ostean, txopoak edo makalak hartuko du protagonismoa. "Udalak Uarkape azpian uzten digu makala, eta, Txosna Batzordeko kideek gidatuta, txopo-poteoa egiten da". 17:00etan hasiko da txopo-poteoa. Tabernaz taberna garraiatzen dute txopoa, plazara heldu arte. Bide horretan barrena, Izenbarikuak txarangaren laguntza izango dute

txopoaren bueltan doazen pertsonen. Bazkariaren gisan, kintoak dira txopoaren ardura izaten dutenak.

Txopoaren funtzionamendua urterokoa izango dela baieztatu du Barrenak: "Poteoan barrena makala eramaten dugu, eta plazara heldutakoan betiko giro hori izaten da, askotan konplikatuena izan daitekeena. Plazara sartzean dagokion lekuan jarri eta igogarekin hasten gara. Lau soka izaten dira, bi igotzeko eta bi tenkatzeko. Soka bakoitzean jarri behar diren pertsonak bazkari ingururako zehaztuta egoten dira, eta haiek mikrofonotik ematen zaizkien jarraibideak bete behar dituzte. Soka bakoitzak kale baten izena darama eta, adibidez, 'Iturriotz bi pauso atzera' esaten bazaie, soka horren ardura dutenek bi pauso atzera eman behar dute.

SEI EGUN HARTUKO DITUEN EGITARAU ANTOLATU DUTE ARRASATEKO TXOSNA BATZORDEKO KIDEEK

Modu horretan, makala igotzen eta bideratzen joaten gara. Tentsio momentuak izaten dira horiek, makala zuloan sartu arte arrisku puntu bat izaten da eta".

Haurrak ere presente

Gazte eta parranda alorrarekin lotu daitezke txosnak, eta egia da esparru hori betetzeaz ere arduratzen direla; modu egokian, gainera. Hala ere, txosnak hori baino askoz esparru zabalagoa dira, eta Txosna Batzordeko kideek badakite hori. Horregatik, urtero, parranda girotik haratago joan eta haurrentzako ikuskizunak bermatzen ahalegintzen dira.

Normalean, ekainaren 24an hartzen dute horretarako tartea, besteak baino egun lasaiagoa proposatuz. Joan den urtean magia ikuskizuna jarri zuten, eta, oso ondo funtzionatu zuenez, antzerako zerbait antolatu nahi izan zuten, gaztetxoek ere txosnetan euren espazioa izateko asmotan. "Azkenean, ipuin kontaketa bat egitea erabaki genuen, haurrentzat aproposa zelakoan". 19:00etan emango diote hasiera ipuin kontaketa.



SAN JUAN JAIK 2024

Ixotu Euskgarra!
Ondo pasau jaixak!



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazte Olinpiadak indartsu datoz

Aurten estreinakoz antolatu dituzte ekainaren 22rako Gazte Olinpiadak. 44 taldetan banatuta, 700 bat lagunek eman dute izena eta egun osoko egitaraua antolatu dute

Amaia Txintxurreta Guridi ARRASATE Arrasateko San Juan jaien barruan Gazte Olinpiadak egingo dituzte aurten, lehenengoz. Horixe da aurtengo egitarauko berrikuntza nagusietako bat. Eta harrera beroa izan du, gainera; izan ere, guztira Arrasateko 700 gazte inguruk eman dute izena olinpiada horietan parte hartzeko.

Nondik dator ideia?

Iazko jaietan sortu zen egun hori antolatzeko asmoa. Honela azaldu du Gazte Olinpiaden an-

tolakuntza taldeko Miren Aranak: "Iazko ekainaren 25eko bazkarian gazte batzuek inprobisatu zituzten aulki jokoa eta lokotx bilketak moduko bat. Oso gauza inprobisatua izan zen. Bozgorailu bat erabilita, izena eman barik, parte hartzen zuen nahi zuenak, eta horri tiraka hasi ziren batzuk komentatzen horrelako jolasen batzuk antolatzeko asmoa, euren artean hainbat kuadrillatako neska-mutilak bilduta".

Hori oinarri moduan hartuta, hainbat belaunalditako gazte osatutako 10-13 lagun inguruko

taldea osatu zuten eta Gazte Olinpiaden eguna antolatzeari ekin zioten. Taldeko gazteenak 20 urte dauzka eta nagusienak, berriz, 32. Eta parte-hartzaile guztiak 18 urtetik gorakoak dira, bertan parte hartzeko baldintza bat zelako gutxiengo adin hori izatea.

Izen-emate "handia"

Otsailean amaitu zen egunean parte hartu ahal izateko izen-ematea, eta antolatzailleek espero ez zuten zifra batera iritsi ziren, 700 gaztek eman

baitzuten izena. Eta horiek 44 taldetan banatuta daude.

Antolatzailleek onartu dute ez zutela horrenbeste jende espero eta nahiko lan izan dutela hori guztia kudeatzen. Edonola ere, pozik hartu dute herritarren erantzuna.

Egunaren funtzionamendua

Gazte Olinpiadak jokatu diren lau gunen nagusi izango dira: Biteri, Zaldibar, Jokin Zaitegi eta Seber Altube. 11:00etatik aurrera, gunehorietako bakoitzean hamar edo hamabi talde izango dira hasieran, eta poliki-poliki talde bakoitza guneguztietatik pasako da, goizean zehar egingo dituzten joko bakoitzean parte hartzeko.

Goizeko kanporaketetan, aulki-jokoa –Seber Altuben–, zapi-buztanak –Zaldibarren–, lokotxak –Biterin– eta zelai-errea –Jokin Zaitegin– egin beharko dituzte. Parte hartuko duten 44 talde horietatik puntu gehien dituzten lehen 24ak sailkatuko dira arratsaldeko bostetatik aurrera Jokin Zaitegin eta Zaldibarren jokatu diren final-laurdenetara.

24 taldetatik hamabi pasako dira finalerdietara eta hori bi zati bereiztuko dituzte: lehenengoan, hamabitik sei pasako dira bigarren zatira –Jokin Zaitegin–, eta bigarren zatian, jokatuko duten sei taldetatik hiru pasako dira hurrengora –Zaldibarren–.

Azkenean, hiru talde onenak sailkatuko dira Montezpin jokatuko den final handi horretan lehiatzeko.

Goizeko lehen jolasak zeintzuk diren dagoeneko zehaztuta eta publiko eginda dituzten arren, final-laurdenetatik aurrerako probak ez ditu jakinarazi nahi oraindik antolakuntza taldeak, eta eguna gerturatu ahala emango dute horien berri. Gainera, finalera begira, hainbat sorpresa iragarri dituzte.

Talde bakoitzak kapitain bat dauka izendatuta, eta hura izango da arduraduna egunean zehar

LAU GUNETAN IZANGO DIRA JOKOAK: ZALDIBARREN, JOKIN ZAITEGIN, SEBER ALTUBEN ETA BITERIN



C3 berria



NIRO berria



Orain, MAPFRE
ASEGURU-AGENTE
ESKLUSIBOA
CHAPIMEN



MAPFRE



Gora sanjuanak!



CITROËN

TALLERES CHAPIME



TXAPIME AUTOAK


SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE

entzun beharreko azalpenak entzun eta taldekideei beharrezko informazioa helaraziko diena. Momentu batzuetan "zerbait berezia" ere egin beharko dute.

Antolakuntza taldetik, gainera, eskatu zuten talde bakoitzak egunean bereizgarri bat eramateko, eta badakite taldeak badabiltzala kontu horrekin ere: "Bereizgarria kamiseta bat izan daiteke, buruan zapia eramatea, eskumuturreko bat... Baina taldeak desberdintzeko bai eskatu genuen bereizgarriren bat eramatea. Badakigu gehien aldetik egongo direla kamisetak. Askok egin egin dituzte; beste batzuek badakigu aurretik zeuzkatenen batzuk moldatuko dituztela".

Helburua

Aurten estreinakoz antolatu dituzten Gazte Olinpiaden helburu nagusia da askotariko adinetako herritarrak elkartzea eta nahastea. Honela azaldu du Aranak: "Azkenaldian ikusten genuen Arrasateko gazteak zeudela lotsa gutxiagorekin edo bateratuagoak, eta orain artean bakoitza bere aldetik ibili izan



Antolakuntza taldeko kide bat, Gazte Olinpiaden egunean kalean jarriko duten pankarta margotzen. ARRASATEKO GAZTE OLINPIADAK

da, baina, elkarrekin ondo pasatzeko helburu horrekin, baita ere gehiago bateratzeko, denok batera egoteko eta gure artean pike pixka bat egoteko, ikusi genuen aukera ona izango zela egun hau. Gainera, ikusita iaz zenbat jende animatu zen modu inprobisatuan egin ziren jolasetara, ikusten da, behintzat, gozoz badaudela".

Sariak

Hiru sari potolo izango dira, gainera, talde onenendako: lehenengo saridunendako, Arteaga

landetxean 1.000 euroko balioa duen bazkaria; bigarren saridunendako, Irati tabernan 500 euroko balioa duen bazkaria; eta hirugarrenendako, Kabuena baserriko produktuekin osatutako saskia.

Egun osoko egitaraua

Antolatzaileek Gazte Olinpiadak San Juan jaien egitarauaren barruan sartu nahi izan dituzte eta jai horien "esentzia" mantendu nahi izan dute, gainera. Hala, 09:45ean emango diote hasiera egunari, gaiteroekin

egingo duten beroketa saioarekin, Monterronen hasita. 10:45ean, Zaldibarren kuadrillen asistentzia kontrola egingo dute, ziurtatzeko gutxienez talde bakoitzeko hamar lagun puntual iristen direla.

Eta lau gunetan txosnak izango dira Mondrateren eskutik –txosnetan irabazitako diruaren zati bat eurendako izango da-. Gainera, Arrasate Rugby Taldeak eskainiko die bazkaria parte-hartzaile guztiei –menu normala, beganoa eta gluten gabekoa zerbitzatuko dituzte, 12 euroren

truke-. Arrasateko Udalak ere babestu du eguna.

Antolatzaileek azken mezu bat helarazi nahi izan diete parte-hartzaileei: "Apuntatuta dauden guztiak etor daitezela. Guztiok ondo pasatzea da egunaren helburua, baina, batez ere, ez dadila egon inolako erasorik. Lagun artean egongo garelako jolasten, ondo pasatzen eta disfrutatzen".

Informazio gehiagorako Instagram kontua ere gogorarazi nahi izan dute: @arrasatekolinpiadak.

Datorren urtean zer?

Antolatzaileek aurtengoa pasa ostean balorazioa egingo dute, baina uste dute Gazte Olinpiadak jaietan geratzeko datozela, eta datorren urterako joko eta sari berriak proposatzeko nahia adierazi dute.

HELBURUA DA GAZTEAK ELKARTZEA ETA EUREN ARTEAN NAHASTEA, ONDO PASATZEKO ASMOZ

Gualbi
aholkularitza

Gora Sanjuanak!

ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95
erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com

Jolaserako egunak datoz

Eguzkilarik, Gaztelaruk, barraken ordeko puzgarriek eta lehen aldiz egingo den gazte bazkariak osatzen dute gaztetxoenei zuzendutako egitarauaren mamia



Gaztetxo talde bat, Eguzkilaruri iaz egindako ongietorri ekitaldian. GOIENA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE San Juan bezperan hasiko dira ofizialki Arrasateko jaiak, baina herriko txikiak hasita daude neurria hartzen. Gaur egingo dute haur danborrada, 19:00etan, Kulturolatik abiatuta. Bihar, berriz, Dantzari Eguna ospatuko dute, egun osoan.

Behin jaiak hasita ere, askotariko proposamenak izango dituzte aukeran. Udal Gobernuak orain hiru aste iragarri zuen moduan, aurten ez da jaietan barrakarik egongo. "Jolasa eta entretenimendua bermatzeko"

umeendako puzgarriak egongo dira hilaren 23an eta 24an, goizez eta arratsaldez. Biteri plazan egongo dira, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta doan izango dira. Udalak 6.534 euroko diru-lerroa bideratu du egitasmo berri horretara.

Arrasateko Txosna Batzordeak, bestalde, umeei zuzendutako ipuin kontalari saio bat iragarri du San Juan Egunerako, 19:00etan. Hortik aurrera, hilaren 25eko Haurren eta Gaztetxoaren Festa Egunean izango dira ekin-tza nagusiak.

Gaztelaruren eskaintza

Gaztelaru Eguneko ekintzak 10:30ean hasiko dira. Kulturarteko atzeko plazan kokatuko da gunea eta 12-16 urte arteko gaztetxoendako proposamenak izango dira. "Badira hiruzpalau urte Gaztelaru Eguna egiten dugula, eta aurten pentsatu dugu gaztetxoendako bazkaria ere antolatzea", azaldu du Txatxilipurdi elkarteko Itsaso Garaik.

"Oraingoz, hogeit bat lagunek eman dute izena. Kopuru polita da, eta izen-ematea zabalik dago hilaren 24ra arte". Garaik azal-

du du asmoa dela elkartu eta sukaldaritzan aritzea. "Gazteei proposatuko diegu gidatutako sukaldaritza saio bat egitea. Prestatuko dute bazkaria, eta aurretik erosketak egitea eta sukaldean aritzea tokatuko da. *MasterChef* moduko saio bat izango da".

Garaik azaldu du tailerrak eta musika ere izango direla. "Gazteek jarriko dute musika eta irratsaio bat egitea ere gustatuko litzaiguke. Horrekin batera, itxuraldatzeko gunea bat egongo da, non gazteek makillatzeko

eta apaintzeko aukera izango duten. Azkenik, eguraldiak laguntzen badu, igerileku txiki bat ere jarriko dugu, espazioari *chill out* itxura emateko eta ur jolasak egiteko".

Denen artean prestatutako jaiak jango dituzte aurten lehenengo aldiz egingo den gazte bazkarian, eta, ondoren, lagun arteko jokoak egingo dituzte. "Irratsaioa ere bazkalostean egingo genuke. Gaztetxoendako erreferente diren arrasatearrak gonbidatu nahi ditugu elkarrizketak egiteko".

ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

Izen-ematea zabalik da gaur arte gazte txokoetan, eta hilaren 24ra arte gazte txokoen Instagram profilean zein 635 75 34 65 telefono-zenbakian. "Nahikoa da mezu bat bidaltzea zenbat izango diren eta elikadura alergiarik duten esanez", azaldu du Garaik.

Txikiagoendako, Eguzkilaru

Egun berean, hilaren 25ean, Eguzkilaruren etorrera ospatuko dute Arrasateko txikienek. Antolatzaileek 12:30erako iragarri dute betaurrekodun eguzki jostagarriaren ongietorri ekitaldia. "Aurtengo nobedadea da Seber Altuben ere egongo garela. Bertan egongo dira jolas parkeko puzgarriak, ohe elastikoak, margotzeko txokoak, sormen-guneak eta abar... Askotariko jarduerak proposatuko ditugu, eta ipuin kontaketa saioak ere izango dira. Horiek 11:30ean hasiko dira, eta Txatxilipurdiko kideek eta Ekin Emakumeak Taldeko kideek eskainiko dituzte", azpimarratu du Garaik.

Eguzkilaru 12:30 aldera helduko da eta merezitako ongietorria egingo diote umeek. "Urteroko makal txikiaren igoera ere egin-



Apar festa, orain dela bi urteko San Juan jaietan. GOIENA

go dugu Seber Altuben, eta 13:30ean apar festa izango dugu, apar artean jolasean aritzea gustuko duten guztiendako. Eguraldia lagun izatea espero dugu".

Bestetik, Monterron parkean egongo dira abentura parkeko atrakzioak. Tirolina bat, ur-bideak, eskalatzeko kutxa-dorrea eta arrantzan egiteko putzua nabarmendu ditu Garaik. Abentura parkea eta jolas parkea zabalik izango dira 11:00etatik 14:00etara.

"Harrera oso ona izaten du Umeen Egunak. Egun horretan

umeendako espazioek herriko gune esanguratsuak hartzen dituzte eta ume, nerabe eta familia asko elkartzen dira; tartean, inguruko herrietatik etorritakoak ere bai. Arratsaldean pailazoan ikuskizuna egoteak ere laguntzen du bailarako jendea erakartzen".

PORROTXEK ETA MARIMOTSEK 'EZ GARA JAITSIKO' IKUSKIZUNA EGINGO DUTE MONTERRONEN

Umeendako jolas parkea egiteko 12.000 euroko diru-lerroa jarri du Udalak eta Udal Gobernuako ordezkariak jakinarazi dute aurreko urteetan baino bi mila euro gehiago bideratuko direla aurtengo San Juan jaietako umeen ekintzak egiteko.

Pailazoan ikuskizuna

Haur ikuskizuna da sanjuanetako beste klasikoetako bat. Aurtun, Porrotxek eta Marimotots-ek *Ez gara jaitsiko* ikuskizuna egingo dute Monterronen, 19:00etan. Marimotots zuhaitz baten adaburura igoko da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Porrotxek atzetik jarraituko dio, eta, zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira. Pailazoak Amazonia eta bertako jendea babestean arituko dira, klima aldaketaren arazoak kontzientziatu nahian. 70 minutuko ikuskizuna da.

Erraldoiak eta kilikiak

Arrasateko erraldoiak eta kilikiak ere protagonista izango dira jaietan. Jarraitzaile asko

dituzte, batez ere, umeen eta gaztetxoaren artean, eta, aurtun ere kalez kale ibiliko dira.

Bi egunez irtengo dira dantzara; hilaren 24an eta 26an. Berezia izango da San Juan eguneko saioa Seber Altuben. "Erraldoi txikiak eta ertainekin batera aterako ditugu aurtun konpartsako erraldoi handi guztiak; hamabiak", azaldu du konpartsako kide Joserra Perezek. "Gainera, urteko lehen irteera izango dute; izan ere, asko egin ditugu, baina erraldoi ertainekin eta txikiak ibili gara. Handiak ez dira oraindik atera". Erraldoiak dantzan eta kilikiak lasterka ibiltzeko konpartsako 60 bat lagun ibiliko dira inguruan. "Sanjuanetan jende asko etortzen da gurekin. Arrasaten harrera oso ona dute aspalditik erraldoiek eta kilikiak. Sanjuanak egun bereziak dira konpartsarendako".

San Juan egunean 11:00etan irtengo da konpartsa, eta 11:30ean elkartuko dira Arrasateko bandarekin Seber Altuben egitekoa duten dantza saiorako. Ekainaren 26an ere 11:00etan irtengo dira urteroko kalejira egiteko.



Zutaz arduratzen gara



Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Škoda Kodiaq Seat Arona

Gora sanjuanak!



UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
www.udalaitz-arrasate.com

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Danbor hotsez, dantzez eta suz josita datoz San Juan jaiak, beste urte betez, eta gaur bertan hasi eta datorren asteko asteburura bitartean jai giroa izango da nagusi Arrasaten. Bihar, zapatua, izango dute hurrek danborrak astintzeko aukera, 19:00etan hasita, eta 200 neska-mutil inguru aterako dira Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin batera herriko kaleak girotzera. SUDC elkarteak antolatuta, dagoeneko ezagutzen dituzte nortzuek eroango dituzten banderak eta nor izango den jenerala. Marixe Arrese, Naia Barriocanal eta June Hernanz izango dira banderadunak; eta Arrasatekoa, ikurrina eta SUDC elkarteak eramango dituzte. Bestalde, Maren Izurrategi izango da aurtengo haurren danborradako jenerala. Hala ere, haurren danborrada ez da herriko kaleak girotuko dituen ekintza bakarra; izan ere, San Juan egunaren bezperan, urteroko jaietako hitzordu garrantzitsuenak egingo dira: errementari dantza, San Juan sua eta nagusien danborrada, hain zuzen ere.



Musakola konpainiako kideak, iazko nagusien danborradan. IMANOL SORIANO

Bezpera eguna, beti bezain berezi

Urtero bezala, danborrada, errementari dantza eta sua izango dira San Juan bezpera eguneko hitzordu garrantzitsuenak, eta arrasatearrak Herriko Plazan eta kaleetan batuko dira hilaren 23ko momentu esanguratsuenak bertatik bertara bizitzeko

1993a ezkerro

Duela hiru hamarkada pasatxo bultzatu zuen Jose Ramon Victoria arrasatearrak San Juan jaietako ikur den errementari dantza egitea, eta, urte horien guztien ostean, jaietako ikur garrantzitsuetako bat izaten jarraitzen dute dantzek. Aurten ere 50 bikote -25 Lore Gazteak taldekoak eta 25 Txikitxu Arrostitz taldekoak- hasiko dira dantzan San Juan bezperan, hilaren 23an, 21:00etan. Zaldibarren ekingo diete dantzei eta Arrasateko kaleak zeharkatuko dituzte, plazara iritsi eta suaren inguruan dantzan amaitu arte. Eurekin batera arituko dira Erraldoi eta Kilikien Konpartsa, Arrasateko Trikitixa Eskola, Udaxpe Txistulari Taldea, Arrasateko Gaiteroak, Arrasate Musikaleko Banda, txalapartariak eta Ttakuneko eta Portaloiko kideak. Txikitxu Arrostitz taldeko Saioa Lopezek eta Lore Gazteak taldeko Xeli Arregik diote jaien bezpera iristeko astebeteren faltan urduritasunak "azken unerako" utziko dituztela, oraindik "lanean" dihardute eta. Bi taldeetako ordezkariak

Artuak eta garixak gorde
subiak eta zapuak erre!!



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com





Iazko San Juan jaietako Errementari dantzak, herriko plazan. IMANOL SORIANO

aitortu dute "oso egun berezia" dela, "ez bakarrik dantzariarentzat, baita gainontzeko herritarrentzat ere". Aurrenekoz egin zenetik, errementari dantza ia guztietan parte hartu dute Lopezek eta Arregik, eta urte hauetan guztietan gauzak asko aldatu direla aitortu dute: "Duela urte dezente bizi zen modua ezin da gaur egungoarekin konparatu. Plaza bete-beteta egoten da egun, eta hori izugarria da dantzariarentzat, hau guztia antolatzen egoten garenontzat, baina baita arrasatearrentzat ere".

Oraindik astebete gelditzen da San Juan bezperarako, baina, dantzek herrian izaten duten harrera ikusita, "datozen urteetan ere jarraitzeko indartsu" daudela esan du Arregik: "Urtero esaten dut nire azken urtea izango dela, baina herritarrek errementari dantzarekiko duten gogoa ikusteak niri ere jarraitzeko gogoa ematen dit".

22:30ean piztuko dute San Juan sua, eta haren inguruan egingo dituzte errementari eta San Juan dantzak Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeetako ki-

deek, herriko beste hainbat eragilerekin batera. Euren ez ezik, Maider Morrasede ere izango du su ondoan dantza egiteko aukera; alkatearen agurra egingo du zapatu gauean, eta, urteroko legez, alpagatak sutara jaurtitzen amaituko du haren jarduna, ostean festarekin jarraitzeko.

Amaitzeko, nagusiena

Nagusien danborradarekin amaituko da bezpera eguna. 23:15ean hasiko dira, Biteri plazan, eta herriko kaleak girotuko dituzte

danborrariak. Iaz hamaika konpainiak hartu zuten parte, baina aurten talde horietako batek ezin izan du jende nahikoa batu eta ezin izango da hitzordura bertaratu. Beraz, aurtengo sanjuanetako danborradan parte hartuko duten konpainiak dira Danborreroak, Musakola, Santa Maña, Beti Gazte, Beti Alai, Arrasate Herri Eskola, Eskoziarrak, Gelma, Txalaparta eta Montxon. Danborradak berez izaten duen ikusminari gehituko zaio bi konpainiaren 25. urteurrena izatea. Montxon eta Txalaparta konpainiek mende laurdena bete dute aurten, eta hori ospatzeko tartea ere izango dute hilaren 23an. Txalapartaren kasuan, gainera, euren ereserkia entzuteko aukera izango da ekitaldian. Beste urte batez, Eva Romero izango da zuzendari nagusia, eta haren gidaritzapean joko dituzte ekitaldiko abestiak.

Bezpera eguna gerturatzeko ari dela jakinda, danborradako kideak murgildu dira azken entseguetan. "Gogotsu" daudela dio Juan Luis Arkauzek, SUDC elkarte kideak eta danborradako antolatzaileak, eta ekitaldia

zein elkarte "osasuntsu" daudela adierazi du: "Indartsu gaudela. Aurten konpainia bat gutxiago izango bagara ere, eta espero baino jende gutxiagok parte hartuko badu ere, konpainia batzuen 25. urteurrena izateak asko pozten gaitu". Aurten go berrikuntza gisa, Udalak eskatu du konpainia guztietako banderak udaletxeko balkoira igotzea; horren harira, Arkauzek aipatu du konpainia batzuek "baiezkoa" eman diotela ekimen horri eta, beraz, "euren banderak udaletxean ikusteko aukera" egongo dela.

Datorren eguaztenera arte egingo dituzte danborradako entseguak, eta Arkauzek dio konpainiaren batean parte izan nahi duen orok entseguetara agertzea besterik ez duela, jende berria batzea ekitaldiarentzat "onuragarria" dela iritzita.

21:00ETAN HASIKO DUTE ERREMENTARI DANTZA; NAGUSIEN DENBORRADA BERRIZ, 23:15EAN IZANGO DA

m
Mondragon
Unibertsitatea

LEARNING FROM REALITY



mondragon.edu

Bertsoen kalitatea bermatuta egongo da

AEDk antolatutako sanjuanetako bertso-jaialdia Zaldibarren izango da, eta Maialen Lujanbio, Aroa Arrizubieta, Unai Iturriaga eta Ane Zuazubiskar bertsolariak arituko dira oholtza gainean bertsoan; gai-jartzailea, berriz, Olatz Zuazubiskar izango da

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Ekainaren 25ean, San Juan jaietako azken aurreko egunean, bertso jaialdia izango da, 12:30ean hasita, Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkar-teak antolatuta. Azken urteotan, Seber Altube plazan egin izan da saioa, baina aurtengoa Arrasateko Zaldibar frontoian izango da. Punta-puntako bertsolariak izango dira bertso saioan, eta protagonisten hitz-joko ederrak aurreikusten dituzte antolatzaileek. Izan ere, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Aroa Arrizubieta eta Ane Zuazubiskar bertsolariak arituko dira bertsoan, oholtza gainean,



2021ean Seber Altuben egindako bertso saioa. GOIENA

eta jai-jartzailea, berriz, Olatz Zuazubiskar izango da.

Kalitatezko bertsolariak

"Bertso-jaialdian izango dugun kalitatea bermatuta dago. Izan ere, txapeliduna dator gurera, Maialen Lujanbio. Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen lehen emakumea. Harekin batera Aroa Arrizubieta ere izango da, 2024an Arabako Txapelketa Nagusia irabazi zuena; Unai Iturriaga; eta baita etxeko bat ere: Ane Zuazubiskar arrasatearra. Beraz, aurreikuspen onak ditugu", adierazi du Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzaileak.

Umorea protagonista

Lau bertsolariko saioetan umorea izaten da nagusiki protagonista, eta, halako saio batean gertatuko dena aurreikustea samurra ez den arren, ikus-entzuleek gozatu egingo dutela ziurtatu daiteke. Hitz-jokoan bitartez elkarri egindako adar-jotzeak ez dira faltako, eta gaurkotasunekoek ere izango dute lekua, duda barik. Sarritan bertsolariek erabiltzen duten ikuspegi originaletik helduta.

Jatorrira itzuliko da 'Zeuk in zeuk jan' bazkaria, Portaloira

Arrasateko Udalak astelehenean ireki zuen ekainaren 25eko *Zeuk in zeuk jan* bazkarirako izen ematea. Horretarako azken eguna ekainaren 17a izango da, eta beritasuna izango da hitzordu horretan; izan ere, *Zeuk in zeuk jan* jatorrira itzuliko da, Portaloira. 1.000 lagunentzako lekua egongo da, eta, eguraldi txarra izanez gero, bazkaria Biterin egingo dute. Bestalde, AEDk eta AEK-k antolatuta, hilaren 22an dragoi jana egingo dute, 20:30ean, Herriko Plazan. "400 lagunendako; aukeran, bertan egindako txuletak eta hamburgesa begetalak egongo dira jateko. Beti bezala, umore ona izango dugu afalostean, eta aurten hiru umorista ezagun izango ditugu oholtza gainean: Iker Plazaola, Maria Blanco eta Ander Malbadi", adierazi du Itxaro Artolak, AEDko dinamizatzaileak. Sanjuanetarako motorrak berotzeko, berriz, gaur, egubakoitza, 21:30ean, kantu afaria egongo da, Sei Pistols eta Trabuko Bat taldearekin, Herriko Plazan.



**ION
ZERBITZUAK**

☎ 658 995 912

✉ ionelektrizitatea@hotmail.com

ion ELEKTRIZITATEA



Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak

*Ondo pasatu
jaiak!*

Deitu!!!

Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia

GOZATU
SAN JUANAK!

T.- 943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com





Artola pilotari jotzen. IÑIGO URIZ / FOCU

Final zortzirenak Uarkape pilotalekuan

Baikoko Artola eta Zubizarreta pilotariak buruz buruko partidua jokatu dute Uarkapen ekainaren 21ean. Lau eta erdiko San Fermin torneoko final zortzirenak izango dira, eta irabazleak Urrutikoetxea edo Peña izango du aurkari final laurdenetan

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Ekainaren 21ean, egubakoitza, jokatu dira Baiko esku huskako pilotako kirol-entresak antolatutako eskupilota partiduak Uarkape frontoian. Aurten, gainera, 2024ko abenduaren 21ean, 25 urte beteko ditu Uarkapek, eta dotore jantzi dute urteurrenerako. Bide batez, itxuraldaketa horrekin disfrutatu ahal izango dute San Juan jaien bueltan jokatu duten eskupilota txapelketako protagonistek zein bertara doazen zaleek.

Sanjuanetan eskupilota partiduak izatea berria da. Arrasaten santamasetako pilota partiduek duten arrakasta bera lortu nahi dute, eta, hori horrela, puntako pilotariak hartuko dute Arrasateko frontoia herriko jaietan.

Baikokoak buruz buru

Horren baitan, 20:00etan hasita, lau eta erdiko San Fermin torneoko final zortzirenak jokatuko buruz buru arituko dira Artola eta Zubizarreta III.a; Baikoko puntako pilotariak dira biak. Artolak ibilbide luzeago du, baina Zubiza-

rreta III.a ez da atzean geratzen, promozio txapelketetan txapelduna izan baitzen iaz. Irabazten duena final laurdenetarako sailkatuko da eta Alegian jokatu du hilaren 28an, Urrutikoetxearen edo Peñaren aurka –bi pilotari horien artekoa Zaldibarren izango da, hilaren 21ean–.

Buruz buruko partiduaz gain, pilota jaialdian binakako partidua ere izango dute gozagarri pilotazaleek. Izan ere, Agirre eta Albisu Laso eta Aranguren bikotearen aurka arituko dira. Finala, berriz, uztailaren 7an jokatu da, Nafarroa Arenan (Iruñea). Hala ere, Baikoko finalerdia ekainaren 30ean jokatu da, Elgetan.

Sarrerak salgai

Sarrerak 25 eurotan daude salgai, entradasfronton.com helbidean, eta aurrez zein egunean bertan leihatilan erosi ahal izango dira. Gainera, frontoiaren mapa interaktiboan libre dauden eserlekuak aukeratu daitezke. Pertsona bakoitzak hamar sarrera eros ditzake, gehienez.

SALTOKI HOME
Sukaldeak | Zeramika
Altzariak | Komuna
Argiztapena

**Ondo ibili
sanjuanetan!**

Kataide poligonoa z/g
Arrasate

Sua egiteko nahiko egur, musikari dagokionez

Gaur hasi eta ekainaren 26ra arte musika talde askoren gotorleku bihurtuko dira Udalak eta Txosna Batzordeak kudeatutako oholtzak. Aurten, egutegiak ahalbidetuta, sei egunez jarraian izango dute musikazaleek zuzenekoez gozatzeko aukera



Idoia Asurmendi. GOIENA

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Arratsalde eta gau martxosoak izango dituzte aurretik sanjuanez disfrutatzen aterako diren arrasatearrek. Datozen lerroetan aipatzen direnez gain, ez da ahaztu behar gaur bertan Arrasate Musikalekoek ikasturte bukarako kontzertua emango dutela Amaia antzokian, 18:00etan, eta San Frantzisko elizan hitzordua dutela Goikobaluk, Txobelak eta parrokiako koruak, 20:00etan. Bestalde, disko-festak eta kalejirak ere badaude programatuta (Ikus 20 eta 21. orriak), oholtza gaineko kontzertuek soilik ez baitute musika egitaraua islatzen.

EKAINAK 14 / 21:30

HERRIKO PLAZAN

Sei Pistols & Trabuko bat

Euskal kantik ahoz gora abes-tekoko moduko errepertorioa joko dute, beti bezala, ingurukoak parte hartzerantz animatuz. Eurria bada, Uarkapen izango da.

EKAINAK 15 / 19:30

MONTEIRON PARKEA

Idoia Asurmendi

Aramaioarrak *De amar y desandar* diskoa aurkezten dihardu. Haren kantu goxoen testigu bikaina izango da parajea.

EKAINAK 21 / 22:30

GAZTETXEA

Añube

Ikusmin handia sortu dute debagoiendarrek *Errautsetatik loratzen* bigarren lanarekin. Aurkezpen kontzertua egingo dute etxean, goraino beteko den aretoan.

Kaparrak

Aretxabaletako kuadrilla zirikatzaileak rumban aurkitu du lotsagabekeria adierazteko modurik onena. Asteotan jakinaz dute moduan, abesti propioak ere badituzte.

EKAINAK 22 / 23:00

TXOSNAGUNEA

Eire

Talde berri eta gaztea izanagatik, zumaier bikote horrek zeresana eman du duela bi urte ezagutarazi zirenetik. Pop doinuak lantzen dituzte, *Zauriren bat bistan* lanean erakutsi legez.

Tapia eta Leturia

40 urte pasa dira bikotea plaza-trikitia eta panderoa eskuan atera zenetik. Berritzaileak izateko beldur barik, taldekide gehiagorekin dabilta orain doinu itsaskorrek zabaltzen.

Dupla

Gari Uriarte eta Beñat Oribe rap kantariak doinu urbanoen unibertsoan jo eta su dabilta 2019tik, hirugarren lana atera baitute berriki labetik: *De un pueblo llamado Agurain*.

EKAINAK 23 / 24:00

HERRIKO PLAZA

Zutik erromeria

Herriko festa batek bete behar duen baldintzetako bat erromeria ekartzea da. Zornotzako taldea izango da parrandazaleak dantzan jarriko dituenetako bat.



epele
Calderería

carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

Gora sanjuanak!





Tapia eta Leturia Band. JIMMY JAZZ



Zea Mays. LHMAGAZIN



Kiko Veneno. HOY

EKAINAK 24 / 13:00
MONTERRON PARKEA**Arrasate Musikalen Banda**

Herriko Plazan makala eta Monterron parkean Arrasate Musikalen Banda; horratx sanjuanetan negoziatzeko diren bi pilare. Bazkialurrea arintzeko plan ederra.

EKAINAK 24 / 20:00
TXOSNAGUNEA**Aiert**

Bakarlari bezala sentitzen da eroso Aiert Alberdi oñatiar gaztea. Gitarra lagun, ahots ezti-

rekin sorgintzen ditu entzuleak, sentikortasuna aldarrikatuz.

Zirrara

Aretxabaletako eta Eskoriatzako hiru neskek osatuta, gitarra, baxua eta bateria gogo biziz astinduko du talde hasiberriak. Entseuetan egiten dutena partekatzeko aukera proposa.

EKAINAK 24 / 23:15
MONTERRON PARKEA**Esne Beltza**

Xabi Solano buru duen taldea behin betiko agur esateko bira egiten dabil aurten, *Esne bidea*

azken diskoko abestiekin eta 2005etik hona argitaratu dituztenekin. Ikuskizun betea ekarriko dute, dantzari talde baten koreografiekin hornitutakoa.

EKAINAK 25 / 22:30
HERRIKO PLAZA**Oxabi erromeria**

Arrasateko sanjuanak nolakoak diren badakite galdakoztar hauek. Ohiko musika-tresnez gain, teklatu, sintetizadore eta perkusio gehigarriak erabiltzen dituzte atzoko eta gaurko eskal kanturik onenei errepasso egiteko.

EKAINAK 25 / 22:30
TXOSNAGUNEA**Zea Mays**

Bilboko puntako taldeak energiaz betetako diskografia dauka bizkarrean. Aiora Errenterriak eta enparauek deskarga elektrikoak emango dizkiete ikus-entzuleei, neguan joan dela gogoratzeke.

The Clayton

Rockaren ertz guztiak konplexu barik besarkatzera iritsi dira aramaioarrak *Over the red light* lanean. Zuzenekoetan hazi ez, biderkatu egiten direla frogatu-

ko du oraindik aurrez aurre ikusi ez dituenak.

EKAINAK 26 / 20:00
HERRIKO PLAZA**Kiko Veneno**

Sanjuanetako azken txinparta mimoz antolatzen du Udalak, eta, oraingoan, beste batzuetan egin bezala, flamenkorantz jo du. Gironan jaiotako andaluziar horren estiloa definitzea zaila da, hala ere, soinu garaikide eta ilunak uztartzen iaioa baita. 80ko hamarkadatik hona Espainiako musikak izan duen artista esanguratsuetako bat da.

VITALDENT

ZURE AHOA DENA DA

%15EKO DESKONTUA

HORTZ-ESTETIKA⁽¹⁾

ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalea 1

943 06 03 22

*Ondo ibili
sanjuanetan!*



(1). 24/05/01etik 24/06/30era bitarteko promozio baliaduna, biak barne. Onartutako aurrekontuaren zenbateko osoari aplikatuko zaio. 250 €-tik gorako tratamenduetarako. Ez da metagarria beste deskontu eta sustapen batzuekin. Ez da bateragarria Vitaldentek diruz lagundutako interesak dituen finantzaketa-motekin. Kontsultatu zure tratamenduaren tarifak zure Vitaldent klinikan. Medikua agindupeko tratamenduak. CS10715 osasun-erregistroa. RPS 255-21

"Ez dugu urduritasunik, lan asko egiten gabilta"

AITOR BEDIA 'HANS' ABESLARIA

2020. urtearen bueltan sortu zen Añube taldea. 'Errautsetatik loratzen' izeneko bigarren diskoa argitaratu berri dute eta ekainaren 21ean aurkeztuko dute, Arrasaten

Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Errautsetatik loratzen diskoa argitaratu berri du Aitor Bedia *Hans* (Arrasate, 1992) parte den Añube taldeak. Diskoaren aurkezpen kontzertua da Txosna Batzordearen sanjuanetako egitaraua zabalduko duen emanaldia. Ekainaren 21ean izango da, 21:30ean, Arrasateko gaztetxean. **2022an argitaratu zenuten zuen lehen diskoa, Añube; arrakasta handiz, gainera.**

Ez genuen espero horrela izatea, egia esan. Abestiak guretzat eginak ziren, nik etxean egingakoak, talderik gabe; ezer ez. Azkenean, talde bat sortzea erabaki genuen, eta horrek diskoa argitaratzera eraman gintuen. Ez genuen inolako oihartzunik espero, guretzat egin genuen, oroigarri bat bezala kasik. Guk CDa izan eta oroitzapen bezala gorde nahi genuen, ez dakit... Ez genuenez ezer espero, oso pozik gaude honek guztionek izan duen ibilbide eta erantzunarekin. Baina bai, espero gabeko arrakasta izan da.

Orain bigarren diskoa argitaratu duzue; zer espero daiteke disko berri horrekin?

Orain, zerbait espero da Añuberengandik; entzun egiten gaituzte, azken finean. Jendeak espektatibak ditu, nire ustez,



Aitor Bedia, *Zentzu bila* abestiaren bideoklipean. AÑUBE

aurrekoaren mailan egotea ez bada ere. Horrek presio apur bat dakar guretzat. Niretzat, pertsonalki, abestiak egiteko orduan ez da horren naturala. Lehen diskoa niretzat egin nuen, presiorik gabe, nik izateko asmo hutsez. Orain ez da horren naturala. Alegia, gure gustukoak diren kantua egin ditugu, noski, baina, pixka bat ez bada ere, jendeari begira egon behar izan dugu. Guai egongo da; lana aterra berri dago, diskoak oraintxe bertan banatu ditugu tabernetan, eta ondo joango da.

Zentzu bila abestia izan da orain arte eskuragarri egon den abesti bakarra, bideoklip eta guzti izan da jaso duzuen feedbacka?

Hainbatek esan digute gustatu zaiela eta bideoklipa ondo dagoela. Ez dut askoz komentario gehiagorik jaso. Jendeari gustatu zaiola iritsi zait, baina kallean ez naute askorik geratu horren inguruan hitz egiteko, baten batzuek egin duten arren. Begiratu nuen azken aldian 10.000 ikustaldi inguru zituen, eta, egia esaten badizut, ez dakit hori asko edo gutxi den. Ez naiz kon-

paraketa bat egiteko gai. Kantua eta bideoklipa gustatu zaiela esan didate batzuek. Egia da bideoklipa ez dela kantua bakarrik. Bideoklipek, azken finean, istorio bat dute, eta, kantuz gain, bertan ikusten denak ere garrantzia du.

21ean egingo duzue aurkezpen kontzertua; bereziak izan ohi dira horrelako emanaldiak?

Bai, eta kristoren gogoia dugu jotzeko. Askok entseatu dugu, eta horrela jarraitzen dugu, dena ondo irten dadin. Egia da lehen ondo irteten bada lasaitu egiten zarela eta hurrengoetara konfiantza handiagoarekin zoazela. Gainera, gitarra-jole berriarekin joko dugun lehen kontzertua da. Ez dugu urduritasunik, baina lan asko egiten gabilta, dena ondo joateko asmoarekin. Gogotsu joango gara Arrasatera. Ez dugu nahi lehen kontzertua gainetik kendu, gozatu egin nahi dugu, gainontzekoa lasaitasun handiagoarekin hartu ahal izateko.

Kontzertu horrek hautsak harrotu ditu, gainera; jendea ordu luzez ilara egiten sarrerak eskuratzeko. Nola bizi duzue hori guztia?

Ez da bereziki gustatzen zaigun zerbait; ikuspegi konkretu batetik begirata, horrelako ilarak egoteak gure inguruko jendea akaso kanpoan geldituko dela ekarriko du. Jendea 08:30ean zegoen Iluntzen ilara egiten, eta 11:00etan irekitzen zen. Aspektu hori ez zaigu gustatzen, baina, beste alde batetik, gure arazo handiena hori baldin bada, sarrerak azkarregi saltzen direla, gauzak ondo doazen seinale da. Horrela begirata, hori oso ondo dago. Gainera, ni joan nintzen sarrerak saltzera eta jende oso gaztea zegoela nabaritu nuen. Ona da jende gazteak zure mu-

sika entzutea; azkenean, haiek dira etorkizunean gauzak egiten ibiliko direnak. Baina bai, pena ematen digu ingurukoentzat pentsatutako kontzertu batean jendea sartu ezinik gelditzeak. Sentimendu kontrajarriak dira, aldi berean. Oso pozik gaude jendeak gu ikusteko duen gogoatik. Ezin naiz horregatik kezatu.

Esan bezala, taldekide berria duzue; zelakoa izan da aldaketa?

Ondo joan da, oso erraz. Pena handiz bizi izan genuen Beñat Gonzalezek utzi izana, baina horrela da, eta bizitzako haren egoeratik taldea uztea erabaki zuen. Hasiera batean, dolua pasatu behar izan genuen, baina gero, Beñat Abasolorekin oso gustura egon gara. Seguru nago oso ondo egingo duela. Lehen kontzertua gainetik kentzeko gogoarekin dago; urduri samar, baina ondo. Hilabete asko daramatza gurekin entsetzen, eta seguru dena ondo joango dela.

Non eskuratu daitezke diskoak?

Eskualdeko tabernetan jarri ditugu salgai: Oñatiko Arranon, Bergarako Arranon, Aretxabalako Urbaltzen eta Arrasateko Iratin eta Iluntzen. Ataunen ere jarri ditugu, bateria jolea hangoa delako: hango bi tabernatan egongo da eskuragarri: Troskaetan eta Urbietan. Internetetik erosi nahi duenak *muberwear.com* atarian egin dezake; kamiseta ere baduen *pre-order* bat dago eskuragarri bertan.

"ONA DA JENDE GAZTEAK ZURE MUSIKA ENTZUTEA; AZKENEAN, HAIK DIRA ETORKIZUNA"

Gure nahia?
Elkarrekin gozatzea

AGA

+60
1963tik aurrera



Aurten ere zezenzaleek tokia izango dute jaietan

Urtero legez, J. M. Arizmendiarieta plazan kokatuko dute zezen-plaza, eta ohiko hitzorduek ez dute hutsik egingo. Entzierroekin, bigantxeekin eta errektadoreen erakustaldiekin gozatzeko aukera izango dute zezenzaleek 23tik 26ra bitartean

Iñigo Barrena ARRASATE

Tradizioari eutsiz, aurten ere San Juan jaietan ez dira entzierroak eta errektadoreak falta-ko Jose Maria Arizmendiarieta plazan jarriko duten 1.400 lagunendako zezen-plazan. Hilaren 23an hasiko dira zezenei lotutako ekintzak; izan ere, jaien lehen egunean errektadore eskola ibiltaria egongo da, 19:00etan hasita eta Bergarako Zezenak ganadutegiak antolatuta. Hori motorrak berotzen hasteko mokadutxo besterik ez da izango; egun bat geroago, hilaren 24an, San Juan jaietako lehen entzierroa izango da: goizeko bederatzietan hasita, Erdiko kalea igaro, Kanpantorpea pasatu eta Zerkaostetatik jaitsi beharko dute korrikalariek eta zezenek, Jose Maria Arizmendiarietako zezen-plazara iritsi aurretik. Hurrengo bi egunetan ere entzierroa egongo da, ordu berean hasita eta ibilbide berarekin; behin entzierroak amaitutakoan,

Zezen-plazako egitaraua

EKAINAK 23

- **19:00** Errektadore eskola ibiltaria zezentxoekin eta poneyekin.

EKAINAK 24

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak.
- **19:30** Errektadoreen erakustaldia.

EKAINAK 25

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak.

EKAINAK 26

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak.

zezenzaleek bigantxeekin gozatzeko parada izango dute.

Errektadoreen erakustaldia

Beste urte batez, Bergarako Zezenak ganadutegiko kideek izango dute zezen-plazaren espazioa kudeatzeko ardura. Eguneroko entzierroez gain, ikuskizun nagusia hilaren 24ko errektadoreen erakustaldia izango da, eta Iñigo Almorza Bergarako Zezenak ganadutegiko kideak azaldu du aurten "Euskal Herriko errektadoreen erakustaldia" egingo dutela; aipatu du, gainera, zortzi urte badirela ez dutela erakustaldi hori Arrasaten egiten.

Erakustaldiari dagokionez, bi zati izango dituela aitortu du: lehena, "serioagoa" izango dela aipatu du, ohiko errektoreekin; eta bigarrena, berriz, "komikagoa", hainbat objektu jarriko dituzte-eta plazan. Horrez gain, publikoak parte hartzeko aukera izango duela adierazi du.



lazo entzierro bateko irudia. GOIENA

Erakustaldian parte hartuko duten errektoreen artean debagoiendarrak ere izango dira; esaterako, Bergarako jaietan errektadoreen ikuskizunean irabazle izan zen Ander Martinez aretxabaletarra bertan izango da.

Udalaren oharrak

Entzierroek, bigantxek eta errektadoreek jende ugari erakartzen dute zezen-plazara eta inguruetara, eta festa giro aparta eragiten dute. Dena dela, Arrasateko Udalak ohar batzuk kaleratu ditu, ezustekorik gertatu ez dadin. Zezen-plazaren edukiera 1.400 lagunendakoa dela gogoratu dute; beraz, sarrera mugatua izango da. Bestetik,

entzierroetan parte hartzea eta horrek dakartzen arriskuen erantzukizuna pertsona bakoitzak bere gain hartzen dituela adierazi du Udalak, eta, ezbeharren bat gertatuz gero, Udalak ez duela inolako erantzukizunik hartuko. Horrez gain, azpimarratu dute 16 urtetik beherakoek ezingo dutela entzierroetan parte hartu, soilik ikusle moduan joan ahalko direla, zezen ikuskizunei buruzko araudia onartzen duen 183/2008 dekretuak dioen moduan. Azkenik, ezingo dute ezta ere parte hartu, alkoholdun edariaren baten eraginpean edo substantzia sorgogarraren edo psikotropikoen mende badaude edo borondatezko gaitasuna murriztuta baldin badute.

Sanjuan parekide,
euskaltzale, inklusibo eta
sanoen alde,
ixotu eusKgarra!





Iaz, Herriko Plazan, errementari dantza. IMANOL SORIANO

San Juan jaiak gertutik Goienaren eskutik

Ohitura den moduan, Goiena telebistak eta 'Goiena.eus' webguneak jarraipen zabala egingo diete Arrasateko San Juan jaiari. Gainera, aurten ere, EITBekin egindako elkarlanean, zuzenean emango dira makalaren igoera eta errementari dantza

Iñigo Barrena ARRASATE

San Juan jaiakin gozatzeko aukerarik ez dutenek Goienaren bitartez izango dute gertatzen denaren berri jakiteko aukera; izan ere, jarraipen zabala egingo zaie Arrasateko jaiari aurten ere Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian. San Juan bezperan hasita, makalaren igoera (17:45) eta errementari dantza (21:00) kaleetan zehar zuzenean jarraitu ahalko da, *Goiena.eus*-en; San Juan sua ere (22:15) zuzenean emango da webgunean eta telebistan. Ondoren, danborrada ere ikusi ahalko da Goienaren webgunean.

Entzierroek ere jarraipen berezia izango dute; izan ere, ekainaren 24an, 25ean eta 26an, 08:55ean, zuzenean eskainiko dira *Goiena.eus*-en eta Goiena telebistan; baita ondorengo bigantxak ere. Hori gutxi balitz, jaietako astelehenean, hilak 24, *Hemen Debagoiena jaietan* saio berezia egingo da 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan; hilaren 26an, berriz, San Juan jaiaren gaineko *Jaiak* programa berezia eskainiko da Goiena telebistan, 21:00etan eta 23:00etan.

Bi pantaila

San Juan bezperan herritarrek ere jaien bueltan gertatzen dena herriko kaleetan ikusteko aukera izango dute, bi pantaila erraldoi jarriko direlako: bat plazan eta bestea txosnagunean. Plazakoa 17:45ean piztuko da, makalaren igoerarekin batera, eta errementari dantza kalean (21:00), San Juan sua (22:15) eta danborrada (23:15) ere bertan ikusteko aukera egongo da. Txosnaguneko pantaila, aldiz, errementari dantzaren hasierarekin piztuko da.

EITBekin elkarlana

Iaz egin bezala, aurten ere Goiena telebistak eta EITBk elkarlanean emango dute San Juan suaren piztuera eta, besteak beste, dantza ikuskizunak, zuzenean, Herriko Plazatik. 22:15ean hasiko da Ilaski Serranok -EITB- eta Txomin Madinak -Goiena- gidatutako saioa. Bi kazetari horiez gain, Larraitx Zeberio -Goiena- arituko da plazan gertatzen denaren berri ematen eta protagonisten ahotsak eta iritziak jasotzen.



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIK GABE

Unai, Arbe eta Peixoto Arrasaterak!

**IRATI • TAUPA • ILUNTZ • BASATI
MONTE • DAT • OSORIK**

SANJUAN JAIAK GOIENA TELEBISTAN



MAKALAREN IGOERA

EKAINAREN 23AN, DOMEKA, 17:45EAN
ARRASATEKO HERRIKO PLAZATIK

ZUZENKOA GOIENA.EUS



SAN JUAN SUA ZUZENEAN

EKAINAREN 23AN, DOMEKA, 22:15EAN
TXOMIN MADINA ETA ILASKI SERRANO
KAZETARIEK GIDATUTAKO SAIOA
ETB-REKIN ELKARLANEAN

ZUZENKOA GOIENA TELEBISTA

ZUZENKOA GOIENA.EUS

JARRAIAN, ZUZENEAN DANBORRADA
'GOIENA.EUS'-EN



ENTZIERROA ZUZENEAN EGUNERO

EKAINAREN 24AN, 25EAN ETA 26AN, 08:55EAN

ZUZENKOA GOIENA TELEBISTA

ZUZENKOA GOIENA.EUS



'HEMEN DEBAGOIENA', JAIETAN

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 24AN, ASTELEHENA,
18:00ETAN, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

BABESLEA



'JAIAK' SAIO BEREZIA

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 26AN, EGUAZTENA,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BABESLEA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.



Etxe-Lan

EZ UTZI ZURE GALDARA EDOZEINEN ESKUETAN



*Ondo ibili
sarjuanetan!*



Profesional ziurtatu
eta homologatuak



Mantentze-zerbitzua



43 urteko
esperientzia

Herriko 22 eragilek hartuko dute plaza

Elgetako I. Herri Azoka 19:00etatik 20:30era izango da ikusgai. Hainbat esparrutan lanean diharduten herriko eragilek osatuko dute. Saretzea, herritarren aurrean nork bere lana ezagutzera ematea eta elkarrengandik ikastea ditu helburu ekimenak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako Udala 2023ko urtarrilean batu zen herri hezitzaileen Oinherri sarera. Ordutik, martxan da herri mailako lan dinamika bat, eta ekimenarekin bat egin duten herriko eragileek Herri Azoka egingo dute gaur. "22 eragilek jarriko dute beraien gunea. Ere-mu benetan anizteta dira: kirola, baratzea, berdintasuna, euskara, historia, osasuna... Hala, herrian etengabe elkarrengandik ikasteko ditugun aukerak egongo dira ikusgai. Hain zuzen ere, denetarik ikasteko aukera dugu herrian, eta hori da ikusarazi nahi duguna", azaldu du Hezkuntzako udal arduradun Kepa De Vegak.

Azokan izango diren eragileak dira Altxa Burua Elgeta, Aman-talak talde feminista, Astro-paketak, Elgetako Baratz Parkea, Gazte Asanblada, Herri Eskola, liburutegia, Elgetako odol-emaileak, Elgetan Berbetan, Goibeko Euskaltzaleen Topagunea, haur eskola, Intxortako Ahuntzak Trail, Ixotzen energia berriztagarrien kooperatiba, Kantsatzeke mendi taldea, ludoteka, Maala guraso elkarte, Mendi Mendia Racing, Piñu-koku Egoitza, Piñu-koku Elgeta, udal artxiboko taldea, Xalbadorpe erretiratuen elkarte eta Elgeta Herri Hezitzailea dinamikako lantaldea.

Jardueren gaineko informazioa

Eragile bakoitzak bere berri emango du, baita martxan dituen egitasmoen berri ere: eskaintzeko dituzten baliabideak, taldearen dinamikarekin bat egiteko dauden aukerak, antolatzen dituzten ekintzen nondik norakoak, eskaini dezaketen aditu zein aritu jakintza... Horrekin batera, Udalak eragile guztien inguruko informazioa jasotzen duen eskuorria prestatu du, eta eskuagarri egongo da azokan.



Azokan parte hartzeak diren herriko hainbat taldeko ordezkariak. XABIER URTZELAI

HERRIAN DAUDEN EGITASMOAK EZAGUTZERA EMATEA ETA SARETZA DA AZOKAREN HELBURUA

Aukera polita izango da herrian zenbat proiektu dauden eta proiektu bakoitzaren atzean nortzuk dauden ikusteko.

Herrian dauden egitasmoak ezagutzera emateaz, saretzeaz eta elkarrengandik ikasteaz gain, azokak baditu bestelako helburuak ere: "Herritarrek egitasmo horiekin bat egitea ere nahi dugu, egitasmoak hazi eta indartu daitezten. Beraz, bi norabideko helburua da", gehitu du De Vegak.

Azoka bizia izango da gaurkoa; informazioa helarazteaz gain, hainbat eragilek herritarrekin elkarrekintzan aritzeko jarduerak ere proposatuko dituzte. Gainera, Elgetako trikiti ikasleek girotuko dute plaza.

Aurrera begirako erronkak

Lan dinamika oso bat dago Herri Azokaren atzean. Duela urte

eta erdi inguru osatu zen Elgeta Herri Hezitzailea, Oinherriekin hitzarmena sinatu eta talde motorra martxan jarrita.

Eskolak, guraso elkarteak, ludoteka zerbitzuak, eskola kirola ekimenak, udal liburutegiak eta Udalak osatzen dute talde motorra eta hilean behin elkartzen da sorreratik. Udalekuetako ekintzak umeekin batera eta modu parte-hartzailean adostea izan zen lehen emaitza.

Herri Foroa da sortu zen bigarren egitura. Bertan, ekimenarekin bat egiten duten eragileak daude, eta urtean bitan elkartzen dira. Gainera, eragileak lau lantaldetan antolatuta daude: heziketa, herrigintza, ingurumena eta kirola.

Gaurko azokarekin emango diote amaiera 2023-2024ko ikasturteari, baina presente dituzte aurrera begirako erronkak ere. "Proiektuak datorren ikasturtean izango duen funtzionamendua denon artean erabakiko dugu. Talde motorrean jarraituko dugu hilerok elkartzen, eta ikasturtean bizpahiru herri foro deituko ditugu. Lau lantaldeak ikasturte hasieran elkartuko ditugu", azaldu du De Vegak.

Bergarako Orkestra Sinfonikoa Elgetan, aspaldiko partez

Orkestra duela 18 urte izan zen, azkenengoz, herrian; sei piezarekin osatutako erreperitorioa aurkeztuko dute

L.Z.L. ELGETA

Bergarako Orkestra Sinfonikoa emanaldia egingo du gaur, barikua, Espaloia kafe antzokian. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta 62 musikaririk sei piezaz osaturiko erreperitorioa eskainiko dute Enrike Txurruka zuzendaria-riaren batutapean.

2006an izan zen Bergarako Orkestra Sinfonikoa azken aldiz Elgetan; beraz, 18 urte pasa dira. Xalbadorpe elkarteak antolatuta du emanaldia, Udalaren babesarekin. Iaz, Bergarako Musika Banda ekarri zuten.

Erreperitorio zabala

Bergarako Orkestra Sinfonikoa- ren erreperitorio nagusia pieza klasikoetan oinarritzen da, eta Rossano Galanteren *Genesis* oberturarekin, Antonin Dvorak txekiarraren 9. sinfoniaren 4. mugimenduarekin eta Karl Jenkinsen *Palladio* obraren 1. mugimenduarekin irekiko dute Elgetako kontzertua.

Emanaldiko beste hiru piezak soinu bandak izango dira: *Braveheart*, *Malena* eta *How to train your dragon* filmetako obrak, hain zuzen ere.



L.Z.L.

Kontzertua 30 bat ikasleekin

Herriko musika ikasleek eguaztenez egin zuten ikasturte amaierako emanaldia, Espaloian. Guraso, senitarteko eta lagun asko elkartu ziren Lorea Larrañaga musika irakasleak antolatutako emanaldia ikusteko. Gitarra, pianoa, biolina, trikitia, bombardino edo tronboia jotzen ikasten ari diren ikasleek egin zuten emanaldia.

OHARRAK

Eskolako jaia gaur

Askotariko ekintzak izango dira; 14:30ean hasiko dira tailerrak, eta 16:00etatik aurrera herri kirolak eta koreografiak.

Kantsatzekek mendi irteera domekan

Jarindora egingo dute txangoa, plazatik 08:00etan abiatuta.

Podologoaren kontsulta astelehenean

Txanda hartzeko, deitu: 669 99 81 65 (Maite Elkoro).

Ixotzen kooperatibaren batzarra martitzenean

Energia berriztagarrien kooperatibak udaletxeko areto nagusian egingo du ohiko batzar orokorra, 18:30ean.



Oihana Jauregi, Maite Otaño, Maite Aranzabal, Saioa Etxabari, Larraitx Agirre eta Maite Usabiaga, martitzenean. ALTXA BURUA

Pantailen aginteari aurre egiteko babesguneak

Altxa Buruak, Udalarekin, Bedelkarrekin eta Herri Hezitzaileen Sarearekin batera, 'Gurea erabil dezakezu' ekimena jarriko du martxan 70 bat denda eta tabernatan. Umeei eta nerabeei telefonoa erabiltzeko aukera eman nahi diete, mugikor pertsonala erosi aurretik

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Apirilaren 30ean eman zen eza-gutzera publikoki Bergarako Altxa Burua ekimena Seminari-xoan, Miren Ros adituaren *Haurrak, nerabeak eta pantailak* izenburu izan zuen hitzaldi batekin. Seme-alabek pantailei eta, bereziki, mugikorrari ematen dioten erabilera desegokiak kezkatuta elkartu zen herriko guraso talde bat, eta ekimena eza-gutzera eman zutenetik beste hainbat guraso ere batu dira. Bergarako ez gain, Antzuolako eta Elgetako gurasoak ere badira Altxa Buruako parte, bi herri horietako umeek Bergaran egiten dutelako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta oso hedatuta dagoen ohitura delako une horretan ematea umeari mugikorra.

Datorren astetik aurrera

Altxa Buruako talde eragileak bilera egin du asteon, Bergarako Udalarekin, Herri Hezitzaileen Sarearekin eta Bedelkar merkatariei elkartearen laguntzarekin

Gurea erabil dezakezu ekimena jarriko dute eta martxan. "Ez da denbora tarte zehatz baterako kanpaina bat, geratzeko etorri den ekimen bat baizik. Gure komertzioei balio erantsia emango dien ekimena da, eta interesa duen edonork erabili dezake edota ekimenaren bat egin", adierazi dute Altxa Buruakoek.

Ekimenaren funtzionamendua oso simplea da: *Gurea erabil dezakezu* dioen pegatina edo mezu leku ikusgarrian duten komertzioetan ume eta gazte-txoei aukera izango dute bertako telefonoa erabiltzeko. Altxa Buruakoek arabera, datorren astean jarriko dituzte pegatinak herriko 70 bat denda eta tabernatan, eta asmoa dago udal

EKIMENERA BATUKO DIREN KOMERTZIOEK BERTAKO TELEFONOA ERABILTZEKO AUKERA ESKAINIKO DUTE

eraikinetan ere zerbitzu hori bera eskaintzeko.

Bedelkarren ekarpena

Bedelkar merkatariei elkarteko ordezkariak ez zuten zalantzarik izan Altxa Buruakoek proposamena onartzeko, eta orduetik egin dituzte bilera batzuk. "Bergarar guztion ardura da herri hezitzaile eta parte hartzailea sortzea. Gureak negozioak badira, baina ez dira negozioak bakarrik. Herriari bizitasuna ematen diogu, edo, behintzat, herriko kaleen bizitasuna mantentzen laguntzen dugula uste dugu. Hurbiltasuna eskaintzea da gure zeinu bereizgarri nagusia, eta uste dugu ekimen hau gertutasun hori eskaintzearen adibide garbia dela. Herrian bizi gara eta herriko kezkak gureak ere badira; ume eta gazte-txoei laguntzea helburu duen ekimen honetan gure aletxoak jartzeko aukera badugu, ondo baino hobeto", adierazi dute Bedelkarretik.



B.U.

Margarita Larrañagak, 100 urte

Margarita Larrañaga bergararrak 100 urte bete berri dituela eta Bergarako alkate Gorka Artola eta Ongizate arloko zinegotzi Zihortza Marzan Mizpirualde egoitzan izan dira bisitan, bergarar guztien izenean Larrañaga zoriontzeko. Ugarrixa baserrian jaiotakoa, Isasi baserrira ezkondu zen, nahiz eta gero herrigunean bizi izan den urte luzez. Urte askotarako!



Klima eta Energia Plana aurkeztu du EH Bilduk asteon

EH Bilduren Udal Gobernuak Klima eta Energia Plana aurkeztu du asteon, "intentsitate eta izaera anitzeko" 155 ekintza jasotzen dituen. Izadi 21 aholkularitza enpresak egin du Bergarako bizi duen egoeraren diagnostikoa; diagnostikotik abiatuta garatu duten planak hiru helburu nagusi ditu, Markel Azkargorta zinegotziak zehaztu duenez:

"2030erako BEG [Berotegi Efektuko Gasak] isurien %40 murriztea; klima aldaketa gelditzea eta klima aldaketaren agertoki ezberdinetara egokitzea; eta gobernantza klimatikoa garatzea. Hots, herritarrek norabide berean jartzea. Planak berak erakutsiko digu jarraitu beharreko bidea".

Izaro 21 enpresakoek egoera zaila aurreikusitako ezer egingo ez balitz; adibidez, esan zuten Bergaran hogeitazero gutxiago espero direla urtean, batez beste.

GORA ETA BEHERA



Kalteak ortuetan: animalien bisitak, pertsonen ekintzak

Ortu komunitarioen erabiltzaile batek bidali ditu argazkiok: "Ilusioz ekin arren, bidean oztopoak aurkitu ditugu: animalien bisitak, bandalismoa, lapurretak, ekaitzak, lur mugimenduak...".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Ludotekak doan, eta udal euskaltegian %3ko igoera

EH Bilduk eta EAJk adostuta, irailetik aurrera doakoak izango dira herriko hiru ludotekak, eta kiroldegiko ikastaroei eta udal euskaltegiko tasari %3ko igoera aplikatuko zaie. Horrez gain, 1993ko azokako araudia berritu egingo dute, Elikaenea martxan jarri ahal izateko

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Kirol Zerbitzuko ikastaroetan eta euskaltegiko tasetan %3ko igoera aplikatzea onartu zuen udalbatzak astelehenerako ezohiko izaeraz deitutako osoko bilkuran. Igoeraz gain, herriko ludoteka guztiak doakoak izatea ere onartu zuten, eta, Ogasun zinegotzi Aitor Arantzabalen arabera, neurri horrek, besteak beste, herriko umeen aisialdiaren aukera berdintasunean sakontzea eragingo du.

EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin eta Alderdi Sozialistaren kontrako botoarekin egin zuen aurrera proposamenak. "Ikasturte-izaera duten zerbitzuen gainekoa da aldaketa, irailetik aurrera aplikatu ahal izateko. Euskaltegiko tarifei dagokien igoera aplikatuko zaie, adibidez, eta ludotekan izena ematea doakoa izango da aurrerantzean", adierazi zuen EH Bilduko Maite Usabiagak.

EAJko Mikel Letek arreta jarri zuen bereziki Angiozarko eta Osintxuko ludoteketan: "Azokan dagoen ludoteka doakoa zen eta Angiozarko eta Osintxuko ordaindu beharra zegoen. Hori ez zitzaigun bidezkoa iruditzen eta EH Bildurekin adostu dugu hiru ludotekak doakoak izatea aurrerantzean. Bi auzo



Azokarako bozketa: EH Bildu (10) alde; EAJ (6) eta PSE-EE (1) abstenitu egin ziren. J.B.L.

horietako familiendako neurri positiboak dela uste dugu".

PSE-EEren kritika tasa igotzeari
PSE-EEko Alberto Alonsok erabakia kritikatu zuen: "Behar bada, kuotak igo beharrean utziko bagenio parte hartzeari gaur egun inongo zentzurik ez duten Udalbiltza edo Uema moduko elkarteetan, akaso, ez litzateke tasak igotzeko beharrik egongo [...]. Gainera, ez dugu ulertzen Goiena telebistan, hauteskunde autonomikoetako debatean, EH Bilduko Rebeka Uberak behin

berriz azpimarratu izana euskaltegiak doakoak izatearen beharra eta orain, kasualitatea izango da, hilabete geroago, udal euskaltegiaren tasa igotzearen alde ari gara bozkatzeko. Hor dago alde aholkatzearen eta aholkuok betetzearen artean".

Bestalde, azokako araudia aldatzea ere onartu zuten, Elikaenea proiektua martxan jarri ahal izateko. Tasaren aldaketa eta azokako araudia behin betiko onartuko dira, uztailearen 11ra bitartean herritarrek helegiterik ez badute aurkezten.



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

100 urte geroago

Faxismoa goraldian dago, kapitalismoaren krisiak eta politika autoritarioen erabilerak bultzatuta. Ez dago urrun joan beharrik: duela astebete, desokupazio enpresa faxista batek etxegabete bat gauzatu zuen Sorraluzen, udaltzain zein ertzainez lagunduta, aurre egin zien jendetza baten aurrean.

Europako hauteskundeak ere pasatu dira, eta gora egin dute joera faxistek. Hau, baina, saldu ohi digutenaren kontrara, nekez geldi daiteke gerrara garamatzen Europar Batasuna bozka bidez zurrizten. Ilusio faltuok, izatekotan, kontrako efektua erakutsi dute historian zehar, faxismoari aurre egin beharrean hau elikatzen amaitzen baitute. Agenda argia du EBk: kapitalisten irabaziak bermatzea, eta horretarako, gerra eta langileon pobretzea. Hau dena Europako Banku Zentralaren zein NATOren bidez burutzen du, berdin du gobernuan eskuin muturra edo sozialdemokrazia izan. Antolakuntza jada ez da beharrezkoa, ezinbestekoa baizik, gerrara garamatzaten horien aurka, Palestina birrintzen ari direnen aurka, gure etorkizuna idatzi nahi dutenen aurka: antolakuntza komunista. Europar Batasunari ez, NATOri ez.

OHARRAK

Osasun publikoaren aldeko manifestazioa

Bergarako erretiratu eta pentsiodunek deitu dute protesta, ekainaren 17rako; San Martin plazatik irtengo dira, 12:00etan. "Uda honetan, Osakidetzak 77 ambulatortan murriztuko du arreta-ordutegia. Murrizketa ekainean hasi da aurten, eta beste urte batzuetan uztailean eta abuztuan aplikatzen zen. Osakidetzako egiturazko arazoak konpondu eta Lehen Mailako Arreta bermatu behar digute", adierazi dute.

Semicup futbol txapelketan izena ematea

Uztailearen 13an jokatu da, Semimarioko patioan, egun osoko Semicup areto futbol txapelketa. Izena eman behar da ekainaren 24rako, Instagramen (@semicup). Prezioa 15 euro da.

Baso Bizien Eguna bertan behera utzi dute

Domekan egin behar zen ekintza ez da egingo; Kukubasok "pena handiz" hartu du erabakia, herritar gutxik eman dute-eta izena: "Aurrerantzean ere basoan elkar ikusi dugulakoan, ondo bizi!".

Odol Emaileen Elkarteak hurrengo ateratzea

Odola emateko aukera egongo da ekainaren 19an, San Joxepe elkartearen dagoen eguneko Arin zentroan, 16:30etik 20:30era.

Oposizioaren abstentzioa araudirako

Azokak biziberritzeko beharra duela uste du EAJk, gaiak "lanketa bat" behar duela: "1993ko araudiarekin ezinezkoa zen Elikaenea martxan jartzea, eta orain posible izango da. Hala ere, araudi berriko neurri batzuekin ez gaude ados, eta abstenitu egin gara". PSE-EE ere abstenitu egin zen: "Suspertze bat behar du azokak, baina nahiago izan dugu itxaron proiektua zehaztu arte".



Helegiterik ezean, uztailearen 11n onartuko da behin betiko azokako araudia. B.U.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Gazte mailako jokalariek Eibarko Ipuruia kiroldegian jokatu zen igoera fasean, zale gertukoek atzean dituztela. BKE ESKUBALOI

Senior mailakoa sortzeko "aukera asko" dituzte

Denboraldia "oso modu positiboan" baloratu du BKEko eskubaloi sailak, eta irailera begira ilusio berezi batekin daude, besteak beste, nesken senior mailako taldea sortzetik gertu daudelako: "Jokalarien konpromisoari eta egoerari esker posible izan daiteke"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Eskubaloi sailak 2023-2024ko denboraldiaren balorazio "oso positiboa" egin du. Josetxo Muniategi arduradunak nesken taldeek bizi duten garai gozoa azpimarratu du: "Nesken taldeek hazten jarraitzen dute, maila kuantitatiboan zein kualitatiboan. Gazte mailako nesken denboraldia aparta izan da; Gipuzkoako ligako txapelkunak, kopako txapelkunordeak, eta Euskal Ligarako igoera fasean aukerak izan dituzte azken jardunaldira arte. Baina emaitzez harago, taldearen bilakaera indibiduala eta kolektiboa izugarriak izan dira".

Era berean, kadete mailakoek denboraldi hasiera kaskarra egin arren urtean zehar jokalariek psikologikoki indartu eta emaitza onak iritsi direla dio Muniategik, eta horri infantil mailako bi taldeen formakuntza ona gehituta nesken eskubaloiak etorkizuna duela dio: "Nesken eskubaloi taldeek proiektu sendoa eta iraunkorra iragartzen dute.

Datorren urtera begira, aspaldi izan ez den senior mailako taldea ateratzea da helburua".

Nesketan "oinarri sendoa"

Gazte mailako jokalariek Miren Elorzaren arabera, "geroago eta aukera gehiago" daude senior mailako taldea sortzeko: "Betidanik izan dugu helburu senior nesken taldea ateratzea. Azken urteotan zaila izan da, gazte mailatik senior mailara pasa izan direnek jokatzeari utzi diotelako, hein handi batean, ez zegoelako lehiatzeko moduko talde bat. Baina geroz eta aukera handiagoa ikusten dugu taldea sortzeko, gaur egungo jokalarien konpromisoari eta egoerari esker". Horretarako, azken

AURKAKOIA DA EGOERA MUTILETAN: ESKOLAN ETA INFANTIL MAILAN JOKALARI BERRIEN BEHARRA DUTE

urteetan "oinarri sendoa" sortu dela dio Elorzak: "Eskubaloi eskolatik hasita gazte mailara dauden kopurua asko handitu da; egia da ez dela senior mailakoa sortu, oraingoan, baina oinarri sendoa eraikitzen ari gara. Mutiletan, aldiz, aurkakoa da egoera: eskubaloi eskolako eta infantil mailako mutilen beharrea gaude, eta horretarako topaketak prestatu ditugu".

Mutilak, "oporretara ilusioz"

Bestalde, Muniategik gogoratu du lehen territorial mailako mutilek azken urteetako puntuazio altuena lortu dutela: "Azken jardunaldira arte eskura izan dugu igoera faserako hirugarren postua. Eta, denboraldia borobiltzeko, Deba Kopa Txapelketa irabazi dugu. Joseba Elorzak taldea hartu duenetik erakutsi duen proiektzioa ikusita, oporretara ilusioz joango dira jokalariek. Gainera, bigarren territorialekoek bloke ia bera mantenduko dute datorren urtean".

Xake txapelketa etzi kartzela zaharrea, zale orori zabalik

Gaztetxearen 24. urteurreneko ekintzetako bat da; domekan bertan eman behar da izena, 16:30ean

J.B.L. BERGARA

Kartzela zaharreko 24. urteurreneko ospakizunen barruan, xake txapelketa antolatu dute domekarako, hilak 16, gaztetxean bertan. Partidak 17:00etan hasiko dira eta ordu erdi lehenago irekiko dute izen-ematea.

Bost minutuko partidak

Partida azkarrak izango dira, jokalariek bost minutu izango dituzte mugimendu guztiak gauzatzeko. Antolatzaileek azpimarratu dute edozeinek har dezakeela parte, adina edota generoa dena delakoa izanda, eta ez dagoela federatuta egon beharrik. "Lehiaketa da eta irabazleak izango dira, baina txapelketa hau jokalarien artean egon ohi den giro onagatik nabarmendu ohi da. Animatu eta hurbildu domekan gaztetxera, ez zaizue eta damutuko".



Aurreko txapelketa bat. GOIENA

Bazkaria, urteurrena dela eta

24. urteurrenaren barruan, bihar bazkaria egingo dute, eta beste zenbait ekintza ere badaude; adibidez, Katarsia taldearen kontzertua hilaren 19an (20:00), Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren barruan.

Azken txanpan sartuko da udako futbol txapelketa

Udako futbol txapelketa Agorrosinen ari dira jokatzeko aurretik, zortziko formatuan. Liga mistoa eta neskena aintzat hartuta, 22 talde daude. Txapelketa mistoko ligaxka ekainaren 18an amaituko da eta neskena, berriz, hilaren 20an. Ondoren etorriko dira ligako final laurdenak eta kopa; argibide gehiago, Instagramen (@udakotxapelketa).



Udako txapelketa, Agorrosinen. A.B.

JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR OROKORRA



EGUNA: ekainak 25, asteartea

LEKUA: Oxirondo plaza 2 (lehen solairua)

ORDUA: 18:30 (lehen deialdia: 18:00)

Gai zerrenda:

- 1.- Agurra eta sarrera
- 2.- Aurreko urteko aktaren onarpena
- 3.- 2023ko egitasmoak eta balantzea
- 4.- 2024rako asmoak eta aurrekontua
- 5.- Bakoitzak dakarrena

* Amaieran luntza egongo da bertaratutako guztiak.

'Loratzen' jaialdia, herrikoari balioa emateko

Bederatzi kontzertuk osatuko dute 'Loratzen' jaialdia, eta bi txokotan izango dira kontzertuak: Irizar jauregiaren atzealdean eta Seminarixoan. Helburuak berbera izaten jarraitzen du: herriko musika eszenari balioa ematea eta hura hauspotzea

Julen Murua Mesonero BERGARA
Urtebete inguruko lana ari da bere fruituak ematen, eta oraingoan, jaialdi gisara dator; izan ere, *Loratzen* jaialdia antolatu dute larunbaterako, Bergarako Udalak eta herriko musika taldeek martxan jarritako *Loratzen* diskoari jarraipena emateko asmoz. Diskoa osatzen duten taldeetatik bederatzik hartuko dute parte jaialdian: 13:00etan, Diablues eta Bluezifer Band, Sin Ruta eta ADD Blue taldeek joko dute kontzertua, Irizar jauregiaren atzealdean; toki berean, baina 17:30ean, DBQ, Golden Blend eta Hegazkin taldeen txanda izango da; eta amaitzeko, 22:00etan, Fango, Azkaiter Pelox eta Orhi taldeek joko dute Seminarixoan.

Joan den urteko abenduan aurkeztu zuten diskoa, eta urtea amaitu aurretik egin zuten aurkezpen kontzertua, Bergarako Seminarixoa aretoan. Proiektua, baina, ez da bere horretan amaitu, eta bihar egingo dituzten

bederatzi zuzenekoak badira "herriko musika eszenari balioa emateko" bide.

2023aren hasieran hasi zituzten grabaketa lanak, eta urtebete pasa ostean "egindako guztia argia ikusten" ari dela dio Ekaitz Aranberrik, diskoa sortzeko ideiarekin bueltaka aritu zen kideetako batek: "Deialdi orokorra egin genuen honekin guztiarekin hasi ginenean; batzuek ezin izan zuten parte hartu, data kontuak tarteko, baina talde mordo bat batzea lortu genuen, eta oso pozik gaude emaitzarekin".

Musika mugimendu handia
"Garai batean, musika mugimendu nahiko handia zegoen

23 TALDEK OSATZEN DUTE 'LORATZEN' DISKOA; BEDERATZI EGONGO DIRA ZAPATUKO JAIALDIAN

Bergaran", diskoan parte hartu dutenen hitzetan, eta "gaur egun ere horrekin jarraitzea eta hura hauspotzea" izan da bai *Loratzen* diskoaren sorreraren helburua, baita astebururako antolatu duten jaialdiarena ere. Era berean, talde berrienei "grabaketa estudio batean aurreneko egoitea zer den erakustea" edota "aurreneko kontzertuak jotzeko aukera izatea" ere izan dira proiektu hori gauzatu dutenen asmo garrantzitsuenak.

"Pozik" daude ekimeneko parte hartzaileak egindako lanarekin, baina baita "herriko musika eszenari bultzada bat ematea" eragin dezakeelako *Loratzen* jaialdiak. 23 taldek osatzen dute diskoa, 23 musika estilok, eta, beste hainbat diskoan parte hartetik kanpo geratu baziren ere, "askotariko musika, ahots eta estilo entzuteko aukera" dago bai diskoan, baina baita jaialdian ere; horrek, gainera, egindako lan guztia "aberastu" egiten duela dio Aranberrik.



Añube, kartzela zaharreko kontzertuan. EGUBAKOITZAK BERRESKURATZEN

Añubek eman du "sorpresa" kartzela zaharreko oholtzan

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren baitan, kontzertua eman zuen Debagoieneko taldeak

J.M.M. BERGARA

Bost urte bete ditu Egubakoitzak Berreskuratzen kultur ekimenak, eta urteurrena ospatzeko antolatu dituzten hiru kontzertuetako bigarrena egin zuten atzo, kartzela zaharrean. Antolatzaileek ez zuten jakinarazi kontzertu egunera arte zein izango zen oholtzara igoko zen taldea, eta, azken orduko jakinarazpena egin arren, jendez bete zen Bergarako gaztetxea.

2022tik euren lehenengo diskoarekin bueltaka aritu ostean, bigarren lan luzea kaleratzeko-tan dago Añube –ekainaren

21ean egingo du aurkezpen kontzertua, Arrasateko gaztetxean-. Sare sozialetan argitaratu zuen Añubek diskoa osatuko duen kantuetako bat, aurrerapen gisa, eta eguaztenean oholtzara gainean defendatzeko aukera ere izan zuten, aurreneko. Hori ez ezik, aurkezpen kontzertuaren aurretik lan berriko beste abesti batzuk jotzeko ere aprobetxatu zuten.

Julene eta Unairen eta Añuberen ostean, Bergarako Ktarsia taldeak joko du, hilaren 19an, urteurrenaren bueltan antolatutako azken kontzertua.

Orkestra Sinfonikoa Elgetan eta Bergaran arituko da asteburuan

Bi geldialdi egingo ditu Bergarako Orkestra Sinfonikoak asteburuan: bata herrian bertan; Elgetan bestea. Enrike Txurrukaren gidaritzapean arituko dira 62 musikari gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia kafe antzokian, 20:00etan hasita; eta bihar, zapatua, Bergarako Santa Marina elizan, ordutegi berean. Bi emanaldietako sarrera doakoa izango dela jakinarazi du Txurrukak.

Sei piezako errepertorioa prestatu du Orkestra Sinfonikoak. Pieza klasiko batzuk joko dituzte, nazioarteko artistek sortutakoak; baina pelikuletako soinu-bandetan oinarritutako lanak ere interpretatuko dituzte (Ikus 39. orrialdea).

90eko hamarkada gogora ikasturte amaierako emanaldian

Ikasturte amaiera iristearrekin batera, Camden Dance Studio dantza eskolako kideek emanaldia egingo dute domekan, 11:00etan, Seminarixoa aretoan. Olmar Elejagaren gidaritzapean arituko dira dantzan ikasleak, eta 90eko hamarkadako koreografiak ekarriko dituzte gogora. Hip-hopetik abiatu eta grunge estilora, hamarkada hartako dantza estilo nagusiak ukituko dituzte ikuskizunean. Antolatzailleek herritarrei gonbita egin nahi izan diete dantzez eta kantuez goza dezaten. Emanaldirako sarrerak dagoeneko salgai daude, Seminarixoa aretoaren webgunean –*seminarixoa.eus*–, lau euroren truke.



Loratzen diskoaren aurkezpena, 2023ko abenduan. JOKIN BEREZIARTUA

Bainu denboraldia bihar zabalduko dute Usakon

Uraren kalitateak baldintzatuko du aurten ere Usakoko bainua, baina aurten Udalak egingo ditu analisiak eta hark hartuko ditu hartu beharreko neurriak. Ur-uhinen parkeko ur txorrotak ere zapatutik aurrera egongo dira martxan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Astearen hasieran zabaldu zuten igerilekuen kanpoko belardia, urpekariak ere izan dira Usakoko putzua garbitzen, eta bihar, zapatua, zabalduko dute ur-uhinen parkea eta jarriko soroslea Usakon. Zabalik egongo da han bainu denboraldia asteburutik aurrera.

Horrela, soroslea egongo da arratsaldeetan, 15:00etatik 21:00etara –bi 16:00etatik 20:00etara– eta autobus zerbitzua ere bai. Apar-kalekua ere egokituko dute ohiko tokian. Horri lotuta, Udaltzaingoak baieztatu du Ertzaintzarekin adostuta dutena jarraituz errepide bazterrean aparkatuta dauden ibilgailuak zigortu egingo dituztela. Udaltzainek, bestalde, kartelak jarriko dituzte Usako inguruko hainbat puntutan, poltsak eta bizikletak begi bistan izateko eskatzeko.

Uraren analisisien jarraipena

Bestalde, uraren kalitateak baldintzatuko du bainua datorren

uda honetan ere. Aurten, baina, Udalak egingo ditu analisiak. Europa mailakoa den bainurako uraren erregistrotik, hondartzetan aplikatzen denetik, Nayadetik, kanpo gelditu da Oñati. "Pandemiaz geroztik egon da hor sartuta Oñati, osasun publikoak esanda, baina orain Udalaren esku utzi du analisiak egiteko lana, joan den urteko gorabeherak direla eta", esan du Udaleko Kirol batzordeburu Saioa Arkonadak. Gehitu du urte osoan egin dituela uraren kalitatea neurtzeko probak Udalak, ez dutela lagingen emaitza txarraren infekzio punturik detektatu eta udan ere jarraituko duela probak egiten. Lehen bezala, momentuz, astean behin

APARKALEKUA EGOKITUKO DUTE ETA EZINGO DA AUTORIK UTZI ERREPIDEAREN BAZTERRETAN

egingo dituzte uraren kalitatea neurtzeko analisiak, eta horren arabera hartuko du erabakia Udalak. Bainuaren kalitatea beti ez dagoela bermatuta dioen kartela ere jarriko dute inguruan.

Mutrikuko urpekariak ekaineko lehen domekan izan ziren putzua garbitzen. Euren esanetan, ez zegoen zikin askorik, baina bai alanbre batzuk eta zuhaitzetako adarrak, eta horietako batzuk kendu egin dituzte, putzu barruko ur korronteeekin arrama horiek zutik, tente, gelditzen zirelako eta arriskutsua izan daitekeelako hori uretara salto egiterakoan. Zikina ateratzeko lan horretan ez zuten "karramarro bat bera ere" ikusi, eta arretea eman zien horrek, aurreko urteetan ikusi zituztelako, gutxi izan arren.

Ur txorrotak ere bihar

Ur-uhinen parkeko ur-txorrotak bihartik egongo dira martxan, 11:00etatik 21:00etara, egunero, irailaren 15era arte.



Pertsona bat Usakoko putzu ertzean eserita, martitzen arratsaldean. O.E.G.

"Auzotarrei zerbitzua ematea izango da helburuetako bat"

GERMAN MIRASSOU OSTALARIA

Hark kudeatuko du Araozko ostatua

O.E.G. OÑATI

Ostalaritzan badu eskarmentua German Mirassouk (Berazategi, Argentina, 1978), baina Araozko ostatuaren proiektuarekin bereziki pozik dagoela aitortu du. Zapatuan zabalduko dute.

Zerk animatu zaitu Araozko ostatua hartzera?

Erronka desberdina da, batetik. Bestetik, tokia bera zoragarria da, eta, gainera, ni neu pertsonalki beteko nauen proiektu bat dela iruditzen zait, tokiagatik, filosofiagatik...

Ze itxura hartu diozu eraikinari?

Oso ondo dago, berria da. Apartamentuak ere oso politak eta osatuak dira.

Egon zara auzotarrekin?

Bai, egin dut lehen bilera eurekin nire asmoak azaltzeko eta euren nahiak ezagutzeko. Uste dut nahiko ondo joan dela.

Eta zer asmo dituzu?

Eguenetik domekara egongo da zabalik taberna, 10:30etik itxi arte. Pintxoak, errazioak eta plater konbinatuak eskainiko ditugu, eta talde handiendako enkarguzko bazkariak ere hartuko ditugu. Adibidez, bada asmoa Arrikrutz kobetakoekin egoteko eta hara doazen taldeei bazkaltzeko tokia eskaintzeko.

Zein da zure helburua?

Helburu handienetako bat auzotarrei lehenetsia eman eta euren zerbitzua ematea da. Gazteak ere badaude auzoan, badiutuzte planak, ideiak, eta uste dut ostatua horren osagarri izan daitekeela.



German Mirassou. O.E.G.

Idea asko dituzu harako?

Argentinarra naiz, eta, adibidez, badut barbakoa bat antolatzeko asmoa. Auzotarrei komentatu diet eta ez zaie gaizki iruditu. Babesa eskaini didate nire ideiak gauzatzeko, eta eskertuta nago. Frontoia ere ondoan dago eta horrek ere ematen ditu aukerak, adibidez, emanaldiren bat antolatzeko. Baina poliki hasi gura dut; etorriko dira ekintzak.

Han biziko zara?

Ez. Lau apartamentuak alokatzea da asmoa. Urte osoan egongo dira horiek alokagai.

Zapatutik aurrera egongo da zabalik, ezta?

Bai, hori da. Egubakoitzean, gaur, auzotarrak daude gonbidatuta, eta eurekin batera emango diogu irekiera ostatuari, eta bihartik aurrera edonorendako egongo da zabalik. Ongietorriak zarete denok.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Hainbat eltzia-kide, zapatuko eguna iragartzen duten kartelak eskuetan dituztela. ELTZIA

Komunitate sentsazioa areagotzeko, Eltzia Eguna

Ipuin kontaketa, bazkaria, bertso saioa, bingoa eta kontzertuak antolatu dituzte bihar egingo den Eltzia Egunerako. "Komunitatearen sentsazioa indartzen lagunduko duen eguna" izango da, eta herritarrekin batera ospatu gura dute

Etxeberría Agiriano senar-emazteak dira domekako omenduak

Domekan, hilak 16, ospatuko dute Jubilatuen Eguna, eta, urtero moduan, bi herritar omenduko dituzte meza osteko ekitaldian. Aurten, Anjel Mari Etxeberría eta Milagros Agiriano senar-emazteek jasoko dute omenaldia. "Parrokiako klausuroan izango da aurten emanaldia, mezaren ostean eta luntxarekin hasi aurretik", aurreratu

du Pake Leku elkarteko presidentek, Begoña Urrestarazuk. Txapela eta zapia jantziko dizkiete, udal ordezkarien eta Pake Lekuko zuzendaritzako kideen eskutik. Txistulariak ere egongo dira eta dantzariak ere bai, aureskurako.

Ekitaldi horrekin emango diote amaiera Jubilatuen Asteari. Juan Jose Sagarzazuren hitzaldia, bingo berezia eta Pake Lekuko tailerretan egindako eskulanen erakusketa izan dituzte astean zehar.

Odol emaileen elkarteari buruz informatuko dute

Odol Emaileen Nazioarteko Eguna da gaur, ekainak 14, eta Oñatiko elkarteak informazio-mahaia jarriko du plazan, 17:00etatik 20:00etara, besteak beste, elkarteari buruzko informazioa emateko. Aurreratu dute, bestalde, uztailetik aurrera online hartu ahal izango dela odola emateko txanda, www.gotatanta.eus helbidean sartuta.

Hika Eguna egingo dute, hirugarrenez, hilaren 22an

Hitanoa praktikatzeko eta egiten dutenen eta ikasten ari direnen arteko harremana sendotzeko antolatu du, hirugarren aldiz, Hika Eguna Ingo Xonau! elkarteak, 22rako. Arranon hasiko den poteo batekin hasi eta iluntzean plazan egongo den Eingo taldearen musikarekin amaituta. Bazkarirako izena Irizar estankotan eman behar da.

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Eltzia Eguna egingo dute bihar, zapatua, eta goizean hasi eta iluntzera arteko egitaraua antolatu dute horretarako. Eltzia-kideendako zein herritar guztiendako ekitaldiak jasotzen dituen egitaraua. "Egingo dugun bazkarian eltzia-kideok elkartuko gara, baina eguerdiko ipuin kontaketa saiora eta iluntzeko kontzertuetara herritar guztiak etor daitezke. Gonbidapen berezia da, gainera, denekin batera ospatu gura dugu-eta Eltzia Eguna", dio Sara Arregi dinamizatzaileak.

Kanpoan zein barruan

Etxeko txikienendako ipuin kontaketa, adibidez, 12:30ean izango da, Topagunean. "Barruan egingo dugu hori, baina bazkaria eta iluntzeko kontzertuak kanpoan izango dira, aparkalekuan; eguraldia ona bada, behintzat. Dagoeneko 80 bat lagunek eman dute izena bazkaltzeko. Otordua- ren ondoren, bertso saioa izango da, Txinparta bertso eskolakoen eskutik, eta Lagun Leku elkar- tekoekin bingoan arituko gara jolasean. Kontzertuak 18:00etan

hasiko dira. Hamarraz erromeria taldea eta Maddi Arlanzon izango dira emanaldia egingo dutenetako bi. Hirugarren batek DJ lanak egingo ditu haien ostean, baina sorpresa da, ezin da izena aurreratu".

Komunitatea indartzeko

Zapatuko egunarekin "komunitatearen sentsazioa areagotu eta indartu" egin gura dutela gaineratu du Arregik: "Pandemia ostetik aldapan gora dabil komunitatea eta hori indartzeko egun polita izan daiteke bihar- ko festa. Topagunean egiten ari diren hileko ekintzek ere gero eta harrera hobea dute, ohitura bihurtzen ari dira, eta oso pozik gaude. Eltzia-kideek eurek proposatu eta antolatutakoak dira, eta ari da jendea etortzen. Zapatuko ipuin kontaketa eta kontzertuetara ere herritar guztiak daude gonbidatuta". Egun, 25 talde daude Eltzian-herrikoak denak, bailarako izaera duen DAP izan ezik-, baina proiektu ireki eta zabala dela dio Arregik, eta norbaitek proiekturen bat baldin badauka lasai joan daitekeela gaineratu du.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

Basabe poligonoa
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Etxekoek zabalduko dute Kalean-eko egitaraua

Ekainean, uztailean eta irailean egingo diren zazpi ekitaldi jasotzen ditu aurtengo udako kultura egitarauak. Musika izango da nagusi, baina ikuskizunak ere egongo dira. Musika eskolako ikasleak eta Ganbara Faktoria izango dira lehenak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Ekainean hasi eta irailera arte, abuztuan izan ezik, zazpi kultura ikuskizun antolatu dituzte Kalean egitasmoaren barruan. Inaki Olalde Kultura zinegotziak astean egindako aurkezpenean esandako moduan, musika aniztasuna zaintzen dute "beti, "ahalik eta jende gehienarengana" iristeko, baina baita gehiago ere: "Genero ikuspegia ere aintzat hartzen dugu, parekidea izatea egitaraua, berdintasuna hizpide". Horren arabera ondu dute, beraz, uda honetako egitaraua.

Etxekoekin hasita

Urtero egin ohi duten moduan, etxekoekin emanaldiarekin hasiko da prestatutako egitaraua: musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertuekin. Horren ondoren etorriko da Ganbara Faktoria prestatutakoa, txakolinaren inguruko ikus-entzunezkoa; ekainaren 28an, musika, dantza eta poesia ez ezik, argien ikuskizun bat ere uztartuta. Uztailean, berriz, eguaztenetan izango dira ikuskizunak, arratsaldeko zazpietan, eta horietako batzuk, gainera, herriko elkarteekin elkarlanean antolatutakoak dira. "Gobernuz kanpoko erakunde batekin arituko gara, Oñatiko Erei elkar-tearekin, eta Afganistango kontuak ekarriko dituzte beraien gogortasunaren barruan-edo oinarritutako historia batekin". *Leiho afganiarrak* du izena ikuskizun horrek, eta uztailean 3an egingo dute, Lazarraga lorategian, eguraldi ona bada. Vulcanizadas, Kuttune eta Txaston Dixie Band taldeak ere oholtza gainean izango dira, bestetik, datorren hilean. Irailaren 1ean, azkenik, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoen *Atxis* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, familia giroan. Errementeri plazan izango da hori.



Olalde, Kultura batzordeburua, eta Meabebasterretxea, Kultura teknikaria. A.R.

Erantzun oneko egitasmoa

18.000 euro inguruko aurrekontua duen egitaraua da. "Gauza puntualak eginez hasi zen herrian, agian beste eragile batzuei dirulaguntzak emanda gauzak antolatzeko, eta poliki-poliki

joan da egitarau formatu edo forma hau hartzen; azken hamar urteotan Kultura batzordeak kudeatzen du, eta, gainera, jendeak estimuan duen ekitaldia dela esan daiteke, erantzun ona izaten duelako".

Udako kultura egitaraua

Ekainetik irailera bitartean izango dira antolatutako zazpi kultura ekitaldiak herriko hainbat gunetan, doan.

Ekainak 19

- 18:00 Oñatiko musika eskolako ikasleen emanaldia, Atzeko kalean.

Ekainak 28

- 22:00 Txakolinaren ospakizuna, Ganbara Faktoria, Upain txakolindegian.

Uztailak 3

- 19:00 *Leiho afganiarrak* ikuskizuna, Lazarraga lorategian.

Uztailak 10

- 19:00 Vulcanizadas taldearen kontzertua, San Lorentzoko ermitan.

Uztailak 17

- 19:00 Kuttune taldearen kontzertua, Lazarraga lorategian.

Uztailak 24

- 19:00 Txaston Dixie Band taldearen kontzertua, San Martinen.

Irailak 1

- 19:00 Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoen *Atxis* ikuskizuna, Errementeri plazan.



NIRE USTEZ

IRENE PEREZ ZUMALDE

Udaberri, indar berri

Udaberriak jantzi du mendia, zuhaitzen enbor biluziak hosto lirainez besarkatuz. Loreek egin dute eztanda, zein baino zein ederragoa den erakusteko norgehiagokari tinko eutsiaz. Maite ditut udaberriak. Usain gozoz betetzen da airea, eguzki izpiz apaintzen da eguna, esnatzen da neguan lo zetzan gogoia.

Aurten, baina, etxetik ikusi behar izan dut festa. Leihoeak eskaini dizkidate *tableau vivant*-ak eta ekarri dizkidate naturaren laztanak. Gutxien espero dugunean gertatzen diren istripu horietako batek belauna ezgai utzi dit. Eskerrak eman nahi dizkiet nire zaintzan aritu diren familiari, lagunei eta Osakidetzako profesionali. Asebate dituzue nire osasuna eta bizipoza.

Alabaina, Osakidetzako langileak lanez lepo ikusi ditut, guztion-gana iritsi nahi, baina baliabiderik eduki ez. Zaintza sistema publiko irmo baten oinarrian dago, besteak beste, osasun zerbitzu publikoa. Erabil dezagun esnatu berri den gogoia horren alde borroka egiteko, guztiona baita eta guztiontzako.



Aloña Mendiko pilotariak, joan den urteko ikasturte amaierako festan. ALOÑA MENDI

Ikasturte amaierako festa egingo du gaur pilota sailak

Hainbat kategoriatako finalak jokatu dira plazako frontoian, eta sari banaketa eta luntxa ere izango dira

O.E.G. OÑATI


Aloña Mendiko pilota sailak ikasturte amaierako festa eguna du antolatuta gaurko, egubakoitza. Plazako frontoian dute hitzordua eginda, 17:00etarako, eta benjamin mailako finalarekin hasiko dute ospakizuna. Jarraian jokatuko dituzte gainerako kategoriatako finalak, nagusienak barne, gazte mailakoa izan ezik, Aretxabaletan duelako Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketako finala, Errementeriaren kontra, Aloña Mendik.

Final guztietan moduan, sariak ere egongo dira, eta pilotarien-

dako material zozketa egingo dute luntxaren aurretik.

Pozik pilotari kopuruarekin

Pilotarien gurasoekin batera egingo dute luntxa Aloña Mendiko pilota saileko ordezkariak eta entrenatzaileak: "Izan ere, denen artean osatzen dugu elkartea". Eta, hain zuzen, ekitaldi horrek emango dio amaiera "ona" izan den aurtengo pilota denboraldiari: "Pilota eskolan izandako kopurua ona izan da eta federatuena ere mantendu egin da, eta pozik gaude denboraldiarekin, bai".



**Bua...
aspertute nau ja.
Bixer
nora juengo gare
bazkaittera?**



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okmgidaren
eskaintza osoa.



Aretxabaletako taldekideak martitzeneko entrenamendu saioa hasi aurretik, Ibarren. XABIER URTZELAI

Hirugarrena, pauso batera

FUTBOLA Ibarra futbol zelaia txiki geratuko da bihar, zapatua (17:30), Aretxabaletaren eta Gasteizko Aurreraren arteko play-off-eko azken partiduan; bederatzi urte igaro eta gero, UDA Hirugarren Mailara buelta daiteke, baina garaipena behar dute

Xabier Urtzelai Atxa ARETXABALETA Bederatzi urte geroago, Aretxabaletak eskura du Hirugarren Mailara itzultzea, eta oraingoan haren esku dago lorpena. Izan ere, 2015ean *play-off*-ean bigarren geratu ostean, goiko kategorieta-

ko karanbolen zain egon behar izan zuten –Arenasen eta Gernikaren igoerek baliatu zuten UDA mailaz igotzea–. Esan bezala, baina, biharkoa finala da. Garaipena lortzen duena mailaz igoko da, inoren zain egon barik. *Play-*

off-eko hirugarren taldea, Bermeo, dagoeneko jokoz kanpo geratu da eta Gasteizko Aurreraren eta Aretxabaletaren artean jokatu dute txartela.

Saria ez da, baina, hor geratzen. *Play-off*-ean bigarren geratzen

Egun osoko egitaraua prestatu dute

Bihar goizean, klubeko jokalariek gazteen eta gurasoen artean lagunarteko partiduak egingo dituzte Ibarren, eta arratsaldean 15:30ean egingo dute zaleekin hitzordua, Duranan. "Han hasi eta Ibarraino kalejira egingo dugu, trikiti eta guzti, eta 16:00etarako Ibarra girotzen hasiko gara. Partidu ostean Hirugarren Mailara igo bagara jokalariek kamioian jaitsiko dira plazara, eta Kurtzebarriko eskolako balkoira igoko dira. Ez badugu igoera lortzen, jaia berdegunean bertan egingo dugu, baina ez dugu gehiago luzatuko", adierazi du Agurtzane Elkorok.

Galdu edo irabazi, zuzendaritzakoek eta jokalariek elkarrekin afalduko dute zapatuan, eta orduan emango dute denboraldia amaitutzat: "Emitza edozein dela, badugu zer ospatu".

denak, nahiz eta mailaz ez igo, datorren denboraldian Errege Kopa jokatu du, eta hori ere ez da sari txikia. Aretxabaleta, baina, ez da matematika ariketak egitera irtengo Ibarra berdegunera, partidua irabaztera doa. "Hirugarren Mailara igo nahi dugu; ez zen denboraldi hasierako helburua, baina halaxe suertatu da eta garaipena dugu buruan", dio Iago Zuazua kapitainak. "Egia da, baina, berdinketa batekin datorren urtean Errege Kopa jokatu genuela, eta 2-1 galduta ere Bermeoren aurretik geratuko ginatekeela. Kontu horiek ondo daude, sari polita izango litzateke Kopa jokatzeko, baina guk mailaz igo nahi dugu eta asmo horrekin zelairatuko gara".

Unai Calzon entrenatzaile aretxabaletarrak egin du Gasteizko Aurrera taldearen gainean berba: "Ikusi dudana, Gasteizko Aurrera gure tankerako taldea da. Gazteak dira, gu bezala futboleko jokatzeko saiatzen dira eta aurrean jokalariek azkarrak dituzte; atzean, berriz, sendoak dira. Ea euren kontra gure jokoa egin dezakegun eta min egiteko kapaz garen".

Ibarra txiki gera daiteke

Aretxabaletako zuzendaritzak garbi du zapatuan jende asko batuko dela harmailetan, eta eurak ere lanean dabilta zaleak erakartzeko (Ikus goiko taula). Hala, entrenatzaile aretxabaletarrak garbi dauka oraingoan ere zaleen babesa izango dutela: "Halako hitzorduetan aretxabaletarrek ez dute kalerik egiten eta Ibarra etortzen dira taldea animatzera, eta espero dugu zapatuan ere horrela izatea".

Irabazi edo galdu, Calzonek garbi dauka taldeak baduela zer ospatu: "Hirugarren Mailara ez igotzeak ez du esan nahiko orain arte egindako lanari balioa eman behar ez digunik. Bigarren maila amaitu dugu liga, eta urte osoan egon gara aurrealdeko postuetan. Talde honek egin duen lana itzelezkoa izan da, baina partidua galtzen badugu mailaz igotzea merezi ez dugun seinale izango da, kontrarioa gu baino hobea izan dela, eta hori onartuta berdintza jarraituko dugu lanean, orain arte egindakoaz harro. Hori bai, biharko partiduan jokalariek dena ematera irtengo dira".



UNAI CALZON
ARETXABALETAKO ENTRENATZAILEA

"Lana ez da izan beste urte batzuetakoa baino hobea, baina oraingoan emaitzak alde izan ditugu, eta horregatik gaude pozik; borobiltzea falta da".



IAGO ZUAZUA
ARETXABALETAKO KAPITAINA

"Ibarren normalean irteten garen mentalitatearekin irteten behar dugu; gure jokoa egiten saiatu behar dugu. Zale asko izango dira animatzen, gainera".



IBON PEREZ DE LABEAGA
ARETXABALETAKO KAPITAINA

"Taldekide askorendako azken urteotan izan dugun partidu garrantzitsuena izango da; gainontzeko emaitzak ikusita, garaipenak bakarrik balio digu".



JOSU AIZPURUA
ARETXABALETAKO JOKALARIA

"Gure zaleen aurrean aukera paregabea dugu pastelari ginga jartzeko; Hirugarren Mailara igotzea ez da izan inoiz helburua, baina gure eskura dugu".



UNAI BELOKI
ARETXABALETAKO JOKALARIA

"Denboraldiko azken partidua da, eta garrantzitsuena, urte osoko lana azken norgehiagoka honetan erabakiko delako; momentu onean ikusten dut taldea".

Zaldibian dute hurrengo geltokia: finalerdiak

PILOTA Herriarteko txapelketan Ataun kanporatu eta gero, Bergarak Zaldibiaren kontra jokatuko ditu finalerako txartelak –gaur hasita–. Julen Aranburuk dio erronka zaila dutela aurrean, baina ez ezinezkoa: "Gure esku dago gauzak ondo egitea"

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA Hamabost urte pasa dira Bergarak Herriarteko txapelketa irabazi zuenetik. Lorpen hori errepikatzen mahaneroek pauso batzuk eman behar dituzte oraindik, baina bergararrak aurrera doaz kanporaketak gainditzen, eta dagoeneko finalerdietan daude. Ataun izan da bidean utzi duten azken herria. Joanekoan, Bergaran, 2-1 nagusitu ziren ataundarrak –gazte mailan eta afizionatuetan irabazi zuten–, baina tanteoa Bergarakoan aldekoa izan zen (48-49). Joan den egubakoitzean, ordea, Bergara izan zen Ataunen 2-1 nagusitu zena –kadeteetan 5-22 eta afizionatuetan 7-22 irabazi zuten bergararrak; gazte mailan 22-1 galdu zuten–. Hala, tanteoa-rengatik Bergarak egin zuen aurrera –Ataunek 82 tanto eta Bergarak, 94–.

Kadeteetan eta seniorretan, fin Pilota saileko arduradun Julen Aranburuk egin du kanpora-

ketaren laburpena: "Kadeteetan erraz nagusitu ginen, bai aurrean eta bai atzean ondo ibili ginen. Gazte mailan bagenekien zail izango genuela. Eurek muga-mugan zegoen pilota bat aukeratu zuten, oso arina, eta gure atzelari Alberdi eskuetatik oso-oso justu zegoen; gaizki ez esatearren. Nagusietan partidua irabazteko beharra genuen, eta kontrarioak ezin zizkigun 19 tanto bano gehiago egin; zorionez, ondo nagusitu ginen; Etxanizek eta Arri-k bikote oso sendoa osatzen dute".

"Kanporaketa gogorra dugu"

Aranburuk uste du gaur Zaldibian (18:30) hasiko dituzten finalerdietan ere lehiakorrak

BERGARARI KANPORAKETA BAT GAINDITZEA GERATZEN ZAIO HERRIARTEKO FINALEAN IZATEKO

izan daitezkeela. "Oso maila politeko pilotariak dituzte, baina gure esku dago kanporaketa ona egitea. Kanporaketa gainditzeko lau partidua irabaztera joan behar dugu, kadete mailako biak eta seniorretakoak. Kadeteetan Zaldibiak Lopez dauka, pilotari sendoa da, eta nagusien mailan Sukiak eta Elizegik jokatzeko dute, eta, tira, hura ere bikote indartsua da. Gazte mailan, berriz, zailtasun handiagoak izango ditugu. Gure pilotari onena, Aratz Ormaetxea, min hartuta dago. Hala, Zaldibian jokatuko dugun joanekoan lortu behar duguna da etxeko partiduetarako bizirik etortzea, aukerakin itzultzea. Kanporaketa zaila dugu, baina ez dugu esperantzarik galduko". Hala, beste finalerdiari dagokionez, Beasain eta Oiartzun izango dira aurrez aurre. Joaneko partidak Antzizarren (Beasain) izango dira, oraingo asteburuan; eta itzulikoak hurrengoan, Madalensoron (Oiartzun).



Granadan, saskiratzen batean. ANGEL AYASTUY

Bulegoetan 'saskiratzea' kostatzen ari zaio Ointxe!-ri

SASKIBALOIA MUKO neskek Granadan lortutako igoera arriskuan dago, kluba dirua batu ezinda dabilelako

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Granadan lortutako igoeraren ostean, Ointxe!-ko Zuzendaritza Batzordea "benetako zoramenen" ibili da egunotan, erakunde publiko eta enpresa pribatu ugariarekin harremanetan. "Aukera paregabe hau egia bihurtzeko beharrezko aurrekontu minimoa lortzeko". Baina nahi baino ate gehiago aurkitu dituzte itxita, eta aste barruan oharra argitaratu dute egoeraren berri emateko. "Hasi dugu atzerako kontaktaketa, ekainaren 20an amaituko da Espainiako Federazioak ezarritako epea kirol eskubidea duten taldeek plaza onartzeko edo uko egiteko". Oraindik ez dituzte beharrezkoak dituzten 130.000 euroak batu.

Ointxe!-k ezezkoa jaso du Kirolgiren partetik: "Esan digute euren estatutuek kirol jarduera bakoitzeko lehen bi taldeei bakarrik laguntzeko aukera ema-

ten dietela, eta gu egun hirugarrena taldea gara. Baina ez dugu Aldundiko atea erabat itxi nahi". Hala, inguruko udalek laguntzeko prestutasuna erakutsi dute, "euren muga barruan".

Sektore pribatuan

Klubetik diote lan handia egiten dabiltzala sektore pribatutik etor daitezkeen babesleei begira: "Zenbait erantzun positibo jaso ditugu, baina azken laguntza erabakigarria falta da". Hala, zuzendaritzak argi dauka klubaren etorkizuna inola ere ez dutela hipotekatuko eta gutxieneko laguntzak lortzen ez badira igoerari uko egin beharko diotela. "Garaiz gaude; eskaera berezia egiten diegu berriro agente publiko eta pribatuei, Arrasateko eta eskualdeko emakumeen kirolak datorren denboraldian kantxan irabazitako lekua izan dezan".

MENDIA 'Oruxmaps' aplikazioarekin lanean dabil Besaide

OruxMaps mapak online zein offline kudeatu ahal izateko aplikazioa da, eta hura erabiltzen ikasteko gidaliburua sortu du Besaide Mendizale Elkarteak. Ibilbideak diseinatzeko eta mapak kudeatzeko balio du *app*-ak –Android sistemetan soilik–. Mendi ibilaldietan orientatu ahal izateko tresna gisa darabil Besaidek.

FUTBOLA Antzuola KE eta Gexan Anduaga, sarituen artean

Oñatin egindako Gipuzkoako Futbol Sarien ekitaldian, bi sari bailaran gelditu ziren: alde batetik, Antzuola Kirol Elkarteak jaso zuen Gizarte Lanari Saria, herri mailan egiten duen lana errekonozitzen duena; bestetik, Aloña Mendiko Ohorezko Erregional Mailako aurrelari Gexan Anduagarendako izan zen denboraldiko golik onenaren saria.



Bergarako pilotariak Ataunekoen kontra, final-laurdenetako joanekoan, Bergaran. GOIENA

"Aspaldiko ametsa dut Monterronen kantatzea"

IDOIA ASURMENDI MUSIKARIA

Boskote formatuan aurkeztuko du 'De amar y desandar' bilduma berria bihar, zapatua, Arrasateko Monterron parkean –eguraldi txarra bada, Amaian–, 19:30ean

Aitziber Aranburuzabala Julain

ARRASATE

Martxoaren 22an argitaratu zuen bigarren bilduma, eta "gogotsu" dago Idoia Asurmendi (Aramaio, 2000) kantu "pertsonalak" Arrasaten partekatzen.

Zelan zaude?

Pozik; hasiera ederra ari da izaten. Mimos egindako lana da eta mimos ari naiz aurkezten.

Ondo hartu zaitu publikoak Amar y desandar lanarekin?

Maitasun handia igarri dut kontzertuetan eta oso eskertuta nago. Bi urtean ibili naiz diskoarekin bueltaka, baina jendearentzako berria da. Bi hilabete eta erdi bakarrik dira kaleratu genuela, eta dagoeneko jendea entzuten dut kantuan!

Lehenengo lanarekin sekulako arrakasta izan zenuen.

Bai, egia esan, urrun ikusten dut, baina Euskal Herrian zehar bira potentea egin genuen.

Baina gorputzak geratzeko esan zizun gero.

Bai; denboraz konturatu nintzen. Gauza berri asko ari nintzen bizitzen, aldaketa asko, eta denbora gutxi hori guztia asimilatzen. Gorputzari entzunda, atsedean hartu nuen.

Eta ikasketa prozesu horren isla du De amar y desandar bildumak, disko kontzeptuala dela diozu eta.



Idoia Asurmendiren kontzertua izango da bihar Monterron parkean. EIDER BALLINA

"NIRETZAT OPARIA ETA GERTUKOEI ESKERRAK EMATEKO MODUA DA 'DE AMAR Y DESANDAR' DISKOA"

Bai; azken bi urteetako nire etapa kontaktzen du diskoak. Kantu bakoitza badelako oroitzen bat, bizipen ezberdin bat. Horregatik esaten dut kantu oso pertsonalak direla; nire lanketa pertsonalaren emaitza.

Inguruan duzun sareari eskerrak emateko ere baliatu gura duzu; nor eskertzeko, adibidez?

Inguruan dudan jendeari garrantzia eta balioa eman gura diot. Niretzat disko hau oparia izan da, eta gertukoei eskerrak emateko modu bat ere bai. Sare handia daukat; disko fisikoko amaierako orrialdeetan tarte bat hartu dut izen mordo bat idazteko, baina motz geratu zitzaidan; kar-kar.

Aurkeztuko dituzu musikariak?

Batetik, aurreko diskoko kontzertuetan nirekin izan zirenak:

Joanes Ederra, baxuarekin; Ander Ederra, gitarrarekin; eta Karlos Aranzegi bateria-jolea. Eta bestetik, Txus Aranburu taldekide berria, teklatuekin eta akordeoiarekin. Errepertorioa aldatu egin da, musika estilo ezberdina da.

Zertan aldatu da soinua?

Zaila egiten zait nire kantuak etiketatzea, baina uste dut kantuak gordinagoak direla, soilagoak, produkzio handi barik, instrumentu gutxirekin; kantu batzuetan nire arnasa entzuten da. Naturaltasun hori lortzen saiatu gara. Teknologiaren mundua garatuta dago gaur egun; bada, gu kontrara joan gara.

Horregatik esan dizute ausarta zarela?

Bai; jende askok esan dit, eta bitxia iruditu zait. Ausarta izatea, betiko zerbait eginda, bada, kuriozosa iruditu zait; erraierara joan gara eta nire erreferentziak kantautore zaharrak izan dira, eta, horrenbestez, paradoxikoa iruditzen zait ausarta naizela entzutea.

Hasiera batean, Monterronen izango da kontzertua; gustuko tokia?

Oso; elkarrizketetan kontzertu bat jotzeko nire ametsetako tokia zein den galdetzen didatenean, Monterron esaten dut. Orain dela bost urte Mikel Urdangarin ikusten egon nintzen lagun batekin, eta, etxerako bueltan, Monterronen kontzertua egitearekin amestu genuen.

Bea ahizparekin Londresen egin zenuen kontzertua; zer moduz?

Oso polita izan zen Camdem Townen jotzea; nor bere kantuak lehenengo, eta elkarrekin gero.

Zelan dator uda zuretzat?

Lasai; laster iragarriko ditut kontzertu batzuk, baina gutxi izango dira. Udazkenean abiatuko dugu indarrez bira.

Egin barik geratu zen Ain_1-en agur kontzertua gaur

Arrasateko gaztetxeko taularen gainean izango da Arrasateko musika taldea, 20:00etan

A. Aranburuzabala ARRASATE

Bilgune feministak proposatuta Iraitz Agirrek eta Ainara Kortabariak kontzertua egin zuten 2007an, eta ekimen hori izan zen Ain_1 taldearen abiapuntua. Ibilbidean kide berriak batuta, hiru disko argitaratu zituzten, eta 2020an erabaki zuten taldeari agur esatea.

Arrasateko gaztetxean gaur

Bergarako Seminarixoan egin zuten iragarritako agur kontzertuetako bat, eta Arrasaten egitekoak ziren segidan azkena, baina pandemiak eraginda bertan behera geratu zen. "Aranztatzatxoa barruan geratu zitzaigun bai guri eta baita gaztetxekoei ere, eta orain dela gutxi kontzertu hori egiteko proposamena egin zigutenean pozik eman genuen baiezkhoa", azaldu du Ainara Kortabariak.

Boskote formatuan igoko dira gaur taularen gainera: "Iraitz Agirre –ahotsa eta gitarra–, Ainara Kortabaria –ahotsa eta gitarra–, Maialen Madariaga kaxoiarekin, Amaia Pavon biolinarekin eta Itxaso Navaridas dantzaria. "Gozatzera goaz eta publikoak ere gozatzea gurako genuke; zatoz, bada, gurekin dantzaz egitera eta kantatzera".

ARRASATEKO HAURREN DANBORRADA

'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN

EKAINAREN 17AN, ASTELEHENA, 18:00ETAN, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Mikrokontakizunekin beste sari bat Iñaki Goitiak

Madrilgo Metroak eta Idazleen Eskolak antolatu duten *Metrorelatos* lehiaketako sari nagusia irabazi du idazketa lehiaketatan eskarmentu duen oñatiarrak; Madrilgo metroko geltokietan eta bagoietan dago istorio irabazlea irakurgai eta entzungai

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Filosofoa da ikasketez, liburu-zaina ogibidez eta idazlea afizioz Iñaki Goitia Lucas oñatiarra. Orain dela 20 urte hasi zen idazten eta harrezkero askotariko idazketa-genero lanak sortu ditu. Mikrokontakizunetan abila dela erakutsi du Goitiak, hainbat sari irabazita. Ekainaren 5ean jaso zuen azken saria, Madrilgo Metroak eta Idazleen Eskolak antolatutako II. *Metrorelatos* lehiaketako sari nagusia.

Literatura-genero bat da

Mikrokontakizuna ez da istorio baten laburpena, ezta burutazio soil bat ere. "Mikrokontakizunak egitura zehatza du; narrazio guztien moduan, hasiera, korapiloa eta amaiera ditu, eta baita gatazka baten askapena ere", azaldu du Iñaki Goitiak.

Kontakizuna idazteko arau batzuk jarri zituzten antolatzaileek: metroan girotuta egotea, gehienez 100 hitzekin osatutakoa izatea eta "*Estaba junto enfrente*" esaldiarekin hasi beharra.

Hamlet eta Kixote

Tragedia moderna istorioa idatzi duela kontatu du Oñatiko idazleak: "Metroan doazen bi pertsona irakurtzen ari dira; *Kixote* liburua du batek eskuetan



Iñaki Goitia, *Metrorelatos* lehiaketako sari-banaketan. METRO MADRID

eta *Hamlet* besteak. Halako batean, On Kixotek bere obratik salto egingo du eta *Hamlet*-en sartuko da, erraldoien aurka borrokatzen laguntzeko, Hamlet bahitzeko asmoz. *On Kixote* irakurtzen ari denak liburua itxi eta bagoitik atera dela konturatu dira, eta gure errealitatean geratuko dira. Kixotek eta Hamletek Malasaña auzoan bizirauten dutela esaten da orain. Hamlet printzea da eta ez du lanik egin gura eta Kixote ameslaria da; bada, hor egiten dut kritika: *Hamlet* tragedia bat da, euren

obretatik kanpo geratzea beste tragedia bat da eta tragedia modernoa edo benetako tragedia litzateke gaur egun etxebizitzak lortzeko dagoen zailtasuna".

Metroan irakurgai eta entzungai

1.500 euro, Madrilgo Escuela de Escritoresen ikastaroa eta hango metroko geltokietan eta bagoietan haren istorioa irakurtzeko eta entzuteko aukera dira irabazitako sariak: "Jende askorengana iristeko erakusleho polita da hori, eta oso pozik nago horregatik".

Maialen Lujanbioren 'rr-6-erre (AH)ala' ikuskizuna Bergaran

Sortu berri duen ikuskizuna Bergarako gaztetxean eskainiko du ekainaren 20an, eguena, 20:00etan

A. A. J. BERGARA

2018an egin zuen Maialen Lujanbiok lehen aldiz *rr* emanaldia, eta harrezkero ikuskizunaren hainbat bertsio ondu ditu; hala, datorren egunean Bergarako kartzela zaharrean aurkeztuko

du sortu duen azkena, *rr_6_erre(AH)ala* izena duena.

Hitzekin jolasean

Aurreko proposamenen haritik, hitzez eraikitako errezitaldia egingo du, "soila, hutsa eta betea"

dena, sortzailearen esanetan. Hizkuntza da emanaldiaren lehengai nagusia, eta hainbat erregistrotan erabiliko du: hotsetan, testu idatzietan, hitz esanetan eta bertsoetan, esaterako.

Aurreko *rr* aldaeren bidetik, garaiko gaien inguruan jolas egingo du Lujanbiok, eta hark sortutako soinuek pantailan erakutsitako proiektzioak dituzte lagun. Ekainaren 9an Elizondon estreinatua zuen, eta Bergarako izango da bigarren emanaldia. Sarrera zazpi euro da.

Goienakideen txokoa

EKAINEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua
Kobo Nia
e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook

EROSKI
ARRASATE



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
GRATIKO OAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harnemandenda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen dagoen (DNI) 15/1000 lekuaren arabera, jokatzen den zozketan Goiena Foruakideekin lotutako sariak irabazteko aukera izango da. Datu-bilaketaren helburu bakarra da irabazlearen dagoen zozketaren gozotasuna. Erabazlearen dagoen dagoen artean, hark zozketaren irabazlearen helburu bakarra izango da goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 18

043 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deituz: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN
Eskoriatza. 4 logelako pisua alokatzen da Eskoriatzako Aranburuzabala kalean. Bista ederrak ditu eta oso egoera onean dago. 618 76 34 40

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bi edo hiru logela dituen etxebizitza baten bila gabiltza. Igo-gailua izatea gustatuko litzaiguke. Biok Fagorren gaude lanean. Telefonoa: 645 72 92 87

2. GARAJEAK

201. SALDU
Bergaran. Bergarako Bolun garajea salgai. Neurriak: 3x6. Ate motorizatua dauka. 659 30 54 49 edo 602 32 06 58

4. LANA

401. ESKAINTZAK
Umiendako zaintzailea. Irailetik aurrera Bergaran umeak zaintzeko norbait behar dugu, goizetan eta eguerdian. Bi neskatila dira. 8 eta 10 urtekoak. 658 72 62 71 (Elizabete)

402. ESKAERAK

Antzuola-Bergara. 20 urteko neska naiz. Udan umeak zainduko nituzke. 609 32 73 39

Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. 631 91 71 69

Bergara. Ingeles irakasle lanetan ari den neska gazte bat naiz. Ekaina-Uztaila bitartean umeen zaintza lanetan edota ingeles klaseak emango nituzke. 634 40 86 24

ALDIZKARI BANATZAILEA OÑATIN.

Goienak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldiakariak banatzeko. Autoa beharrezkoa da. Harremanetarako: 943 25 05 05
 harpidetza@goiena.eus

Bergara, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Esperientzia dut pertsonen zaindaria. 631 94 62 82

Bergara. Emakume bat prest goizetan garbiketara lanak egingo. Telefonoa: 642 37 01 92

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Bergara. Neska euskalduna, gazte eta arduratsua uztailea eta abuztua bitartean umeak zaintzeko gertu. 688 62 90 09

Bergara. Pertsona nagusiak paseatzera ateratzeko edota garbiketara lanak egingo prest nago. Deitu 642 37 01 92 telefono zenbakira.

Bergaran eta Elgetan. Neska euskalduna uztailean umeak zainduko gertu. 653 48 55 64 (June)

Debagoiena. Astean zehar zein asteburuetan orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu, pasiatzera lagundu edota garbiketara lanak egingo prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 634 94 30 78

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo gertu. 602 01 32 58.

Debagoiena. Neska gaztea pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo prest. Astean zehar eta asteburuetan orduka lan egingo nuke. Deitu 632 63 77 38 zenbakira.

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke pertsonen zaindaria edota garbiketara lanak egingo nituzke. Neska gazte eta atsegina naiz. Deitu 631 64 66 36 telefonora

Debagoiena. Orduka pertsona nagusiak zainduko nituzke etxe zein baserrietan. Gidabaimena eta soziosanitario titulazioa. Esperientzia handia dut. 631 98 15 50

Debagoiena. Ospitale zein etxeetan nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo nituzke. Astelehenerdik ostiralera gauz eta asteburuetan orduka lan egingo gertu. Soziosanitario ikasketak eta gomendiozko gutuna ditut. 647 31 48 17

Debagoiena. Gizonzkoa pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanak egingo prest. Soziosanitario eta garbiketara ikas-

ketak ditut. Eskarmentu handi dut lan hauetan. Legezko agiriak ditut. Malgutasun osoa dut, etxean bertan bizi izaten edo kanpoko langile bezala lan egin dezaket. Deitu 643 47 39 37 telefono zenbakira.

Haurrak zainduko prest. Udarako (uztaila edo/eta abuztua) ume-zaintzan lan bila nabil. Irakasle ikasketak eta haurrekin urte askotako esperientzia. Deitu eta galdetu lasai! 688 64 06 04

7. ANIMALIAK

703. EMAN
Txakurkumeak opari. Txakurkumeak oparitzen dira. Ile motza eta txikiak. Polit-politak. Interesatuok deitu 943 53 32 76 telefonora.

8. DENETARIK

806. GALDU
Urrezko kataia. Ostiralean, 17:30-19:00 bitartean, Larragain eta Gara-garza arteko bidean 24-4-1960 data daukan

urrezko kataia eta domina galdu nituen. Oso berezia da niretzat. Eskertuko nuke norbaitek informazioa balu, nirekin harremanetan jartzea. 620 12 47 45

809. ERRENTAN EMAN
Lursaila Aretxabaletan. Aretxabaletan lursailak ematen dira errentan. Aproposak orturako, txakurrentzako, eta abar. Interesatuok deitu 618 76 34 40 telefono zenbakira.

Korosti
 Inmobiliaria

Bergara: San Pedro,
 67m² logela,
 ganbara
 etxebizitzatik
 sarbidearekin
 120.000€

Bergara:
Bidekurutzeta,
 55m² erabilgarri, logela 1,
 igogailua eta garaje itxia
 aukeran. Guztiz berritua.
 183.000€


Antzuola: Antigua,
 73m², 3 logela,
 ganbara, balkoi
 haundia bista
 ederrekin.
 110.000€

Ibargarai 3 BERGARA
 Tel.: 943 76 97 97
 www.inmokorosti.com

Informazio
 gehiago:



ZORION AGURRAK



BERGARA
Unai Zangitu Garmendia
 Ekainaren 18an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasau zure eguna! Muxu handi bat familia danon partetik.



OÑATI
Ander Gavilan Iturbe
 Ekainaren 18an, 12 urte. Dagoeneko 12 urte! Ze azkar pasa den denbora! Ondo ondo ospatu! Zorionak eta patxo potolo bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
Mara Zabaleta Rodriguez
 Ekainaren 15an, 8 urte. Zorionak, Mara! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Luken Horrillo Tierno
 Ekainaren 15an, 10 urte. Zorionak, Luken! Ondo pasau zure eguna! Muxu handi bat danon partetik!



ARAMAIO
Haizea Bernaluze Eriz
 14an, 7 urte. Zorionak, laztana! Eguzkixei zazpi buelta aurtun... Eta ondion elkarrekin emungo ditxugunengatik.... Muxu potolo bat familia danon partetik! Zu zara gure bizipoza!



ARRASATE
Janitz Moreno Rozas
 Ekainaren 11n, 9 urte. Zorionak! Primeran ospatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Patxo handi bat Garazi, aitaxo, amatxo eta familia guztian partetik.



ARRASATE
Julen Alonzo Tena
 Ekainaren 7an, 9 urte. Zorionak, Julen! Egun ederra pasatu ezazu familia eta lagunekin! Asko maite zaitugu. Patxo handi bat!

BERRI-ZAKUA




Asun eta Damaso

Asun Zugasti eta Damaso Uribesalgoren 60. ezkon urteurrena. Zorionak eta urte askotarako! Elkar maitatzen jarraitu. Familia guztiaren partetik.



Floren eta Pili

Floren Agirrebalzategi eta Pili Madinagoitiak ekainaren 15ean urrezko ezteiak ospatuko dute. ZORIONAK etxekoan partetik! Ondo pasa!



Iñaki eta Itziar

Iñaki Zabala aramaioarra eta Itziar Ibarra bergararra ekainaren 14an ezkondu ziren duela 49 urte Itziarko Andra Maria Santutegian. Egun ederra pasatu eta besarkada estu bat familia osoaren partetik, batez ere bihotzez maite zaituzten zuen hiru biloba Agate, Inar eta Kermanen partetik.



URTEURRENA



Antonio Bolinaga Zubia Frantziska Erostarbe Aguinagalde

2023ko apirilaren 1ean eta azaroaren 3an hil ziren, 91 eta 92 urterekin.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 15ean, 19:00etan, Araotzeko parrokia-elizan.

*Urte berean, auzo berean
sortuak izan zineten,
bizi oso bat Araotz bertan
geroztik elkar maitatzen,
bide horretan famili ederra
joan da zuen bueltan sortzen,
Antonio ta Frantziska segi
elkar zaindu ta babesten,
gure bideek berriro ere
nonbait bat egin dezaten*

Aurrez eskerririk asko bertaratzen zareten guztioi.
Araotzen, 2024ko ekainaren 14an.

URTEURRENA



Irene Odriozola Igartua



2023ko ekainaren 24an hil zen, 95 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 16an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko ekainaren 14an.

URTEURRENA



Ana Maria Alberdi Badiola



'Maritxu Egileorkua'

2023ko ekainaren 2an hil zen, 87 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 16an, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA



Jesus Mari Goñi Arregi



2024ko ekainaren 11n hil zen, 72 urte zituela.

*Beti izango zaitugu
gure bihotz eta oroimenean.*

Zure lagun 'Trio la-la-la' Juan Luis Zubi eta Joserra (Gallegua).
Antzuolan, 2024ko ekainaren 14an.

OROIGARRIA



Agurtzane Arregi



2024ko ekainaren 11n hil zen.

*Zure poztasuna
beti gurekin.*



Debagoieneko Mankomunitateko lankideak.
Oñatin, 2024ko ekainaren 14an.

ESKER ONA

Pedro Caballero Horrillo



2024ko ekainaren 7an hil zen.

*Aitaita Pedro 'Jefe'-n
azkenengo paseoa,
gustokoena, politiena.
Amama Inesen ondora.
Zeruko izarrik ederrenaren
distira osatu da.
Zuetaz harro, beti gurekin.*

Eskerririk asko egun hauetan
babesa eta gertutasuna
adierazi eta gurekin egon
zareten guztioi. Bihotz-
bihotzez besarkada handi
bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko ekainaren 14an.

ESKER ONA



Jesus Mari Goñi Arregi



'Goñi'

Ekainaren 11n hil zen, 72 urte zituela.

Eskerririk asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2024ko ekainaren 14an.

ESKER ONA



Soraya Rodrigo Urmeneta



2024ko ekainaren 9an hil zen, 63 urte zituela.

Eskerririk asko babes eta gertutasuna adierazi,
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz besarkada bana familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko ekainaren 14an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena

Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € /

Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:

195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otorala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar Iburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurnatako guztietan
eseren bidea azaltzen lagundu
diegi, orain arte bezala, eta guztiak
izango date agur berezia Oroiloren.

Gure eskerririk beronenak gurean
izan dituzten konfiantzagaririk eta
maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

BADESLEA



ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**ARRASATEKO HAUR DANTZARIEN EGUNA**

Arrasateko dantzariak eta kanpotik etorritakoek biziko duten egunaren laburpena ikusteko aukera.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**NOLA EGITEN DA GATZATUA?**

Oñatiko Goiko Benta baserri-jatetxeraino joango da Julen Murua gatzatua egiten ikastera.

'Landara' Hemen Debagoiena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**UDA, HIRUGARREN MAILARA BIDEAN**

Igoera lortzeko azken partiduak emandakoa, zaleen iritziak, jokalarien esanak... jasoko dituzte Ibarra futbol zelaian.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**'ZENBAT MASKOTA DITUGU?'**

Datuetatik tiraka, galdera horri erantzuten ahaleginduko da Txomin Madina kazetaria: zenbat maskota, zeintzuk...

'Datuetatik tiraka' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ANDONI MUTILOARI
ELKARRIZKETA**

Kazetari eta kabaretari hernaniarrarekin egingo du berba Joni Ubedak, Mutiloak duen azken ikuskizunari buruz.

'Elkarrizketa' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 14**ELGETA Eskolako jaia**

Ikasturte amaierako jaia: irratsaioak, tailerrak, herri kirolak eta koreografiak.

Herri Eskolan, 09:00etan.

**ARRASATE Arizmendi
Ikastolaren jaia**

Ikasturte amaierako jaia: ginkana, txalaparta, euskal dantzak, Argitxori ongietorria eta musika, besteak beste.

Biteri plazan, 09:30etan.

OÑATI Odol ematea

Ekainekoa. Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.

Enpresagintzan, 16:00etan.

**OÑATI Gimnasia erritmikoko
erakustaldia**

Aloña Mendikoen ikasturte amaierako ekitaldia.

Zubikoan, 16:00etan.

**ARAMAIO Trikiti Eskolaren
emanaldia**

Ikasturte amaierako saioa. Eguraldi txarra bada, kanpoko frontoian.

Parkean, 17:00etan.

ARRASATE Sanjuanak 2024

Arrasate Musikalen kurtso amaiera, Goikobaluren kontzertua eta kantu afaria Sei Pistols eta Trabuko Bat taldearekin. Informazio osoa, erdiko gehigarrian.

Arrasaten.

ESKORIATZA Talo lehiaketa

Aste Zapatistaren baitan.

Gaztelekuan, 18:30etan.

**ANTZUOLA Trikiti ikasleen
emanaldia**

Ikasturte amaierako saioa.

Torresoroan, 18:30etan.

ELGETA Herri azoka

Herriko 22 eragileren eskutik.

Informazio osoa 39. orrian.
Mendizaleen plazan, 19:00etan.

**ARETXABALETA Bandaren
kontzertua**

7x7 kultura kalean ekimenaren barruan.

Herriko Plazan, 19:00etan.

**ARAMAIO Ale & The Hopes
taldea**

Sastiñako Musika Festibalaren baitan.

Sastiñan, 19:30etan.

**ESKORIATZA Chico Infierno eta
Bad Sound taldeak**

Aste Zapatistaren baitan.

Txoko feministan, 20:00etan.

OÑATI Tribial gaua

Hiruko taldeetan lehiatuko dira.

Leku mugatuak.

Gaztetxean, 20:00etan.

**ELGETA Bergarako Orkestra
Sinfonikoaren kontzertua**

Debalde.

Espaloian, 20:00etan.

ARRASATE Ain_1 taldea

Gaztetxeko eraikinaren urteurrenaren harira.

Debalde.

Gaztetxean, 20:00etan.

**ARRASATE 'Salve solstitium'
kontzertua**

Goikobalu abesbatza, Txorbela otxotea eta parrokiako korua.

Besteak beste, Hilario Eslavaren *Salbea* abestuko dute.

San Frantzisko elizan, 20:00etan.

ZAPATUA 15**ARRASATE Sanjuanak 2024**

09:00etan, baserriarren azoka; 19:00etan, haurren danborrada; eta 19:30etan, Idoia Asurmendiren kontzertua.

Arrasaten.

**ARRASATE Bertako produktuen
azoka: txakolina**

Bi ekoizle oñatiar egongo dira: Belaskua eta Murgialdai. Erosketa-tiketarekin, bertako gazta-pintxoak debalde.

Seber Altube plazan, 09:00etan.

OÑATI Hiruko saskibaloia

txapelketa herrikoia

Benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak.

Zubikoan, 09:30etan.

ANTZUOLA Dantza mintegia

Mikel Sarriegi gidari dela.

Torresoroan, 10:00etan.

BERGARA Bisita gidatua

11:00etan eta 12:30etan. Erreserba egiten duen lehenak aukeratuko ditu bisita mota eta hizkuntza. Izena emateko: 943-76 90 03.

Laboratoriumen.

**ARETXABALETA Atxabalta Harro
Eguna**

11:00etan, diana; 12:00etan, pregoia; 12:30etan, kalejira; 15:00etan, bazkaria; eta 22:30etan, Mikel Nigth.

Aretxabaletan.

ESKORIATZA Aste Zapatista

Egitarau osoa 17. orrian.

Eskoriatzan.

**OÑATI 'Altxorren bila'
Arantzazun**

Orientazio jolasa egingo dute, Arantzazuko ibilbide irisgarrian.

Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus.

Parketxean, 11:00etan.

OÑATI Arranoaitzen egun-pasa

Lizartxo, Sukena, Astelehen Goizak eta Fito Skins taldeak, taberna eta sukalde zerbitzua, puzgarriak eta jolasteko gunea...

Arranoaitzen, 12:00etan.

OÑATI Eltzia Eguna

12:30ean, ipuin kontalaria umeendako; 14:30ean, bazkaria, eta ostean, bingo-jokoa eta bertso saioa; eta 18:00etan, Maddi Arlanzon, Hamarratz eta DJak.

Eltzian.

BERGARA 'Loritzen' jaialdia

13:00etan, Diablues eta Bluezifer, Sin Ruta eta Add Blue taldeak Irizar jauregiaren atzealdean; 17:30ean, DBQ, Golden Blend eta Hegazkin taldeak Irizar jauregiaren atzealdean; eta 22:00etan, Fango, Azkaiter Pelox eta Orhi taldeak Seminarixoan.

Bergaran.

BERGARA San Antonio jaiak

16:30ean, poneyak; 17:00etan, burbuila-festa eta haurrendako tailerrak eta jolasak; 17:30ean, buruhandiak; 18:30ean, sardinak eta txorizoa; 19:00etan, Good Vibes taldea; eta 20:00etan, DJ Tilla.

San Antonio auzoan.



ALE & THE HOPS

ARRASATE Alaitz Gomezen akustikoa
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Ilargi tabernaren 30. urteurrena
Photocall-a, mokadutxoak eta Azahar talde flamenkoa. Ilargi tabernan, 20:00etan.

OÑATI 'Top Williams' emanaldia
Oñatiko Musika Bandaren eskutik.
Foruen plazan, 22:30etan.

DOMEKA 16

ARETXABALETA Mendi martxa
25. kilometroko ibilbidea.
Herriko Plazan, 07:30etan.

ARRASATE 'Bedoña-Larrino' ibilaldia
Errege bidean egingo dute hamalau kilometroko ibilaldia. Izena emateko: 943-25 20 00.
Herriko Plazan, 09:00etan.

ARRASATE Haur Dantzari Eguna
10:00etan, dantzarien elkartzea; 11:15ean, dantza erakustaldiak kaleetan; 13:30ean, haurren batzea Herriko Plazan; 17:00etan, dantza emanaldi bateratua; eta 19:00etan, disko-festa.
Arrasaten.

BERGARA San Antonio jaiak
11:00etan, txistulari banda eta erraldoiak; 12:30ean, Bergarako txistulari bandaren kontzertua; eta 15:00etan, bazkaria.
San Antonio auzoan.

BERGARA 'Escape the museum' Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen, 11:30etan.

ARETXABALETA Smooth Trip taldea
Mikel Zamora aretxabaletarra buru duen taldea.
Areano landetxean, 13:00etan.

ARRASATE Azken festa
Merienda, jolasak, ikasturteko momentu xelebreen sailkapena...
Tren geltokiko gaztetxean, 18:00etan.

ARAMAIO Ale & The Hops taldea
2015eko amaieran Bilbon sortutako musika beltzeko boskotea da. Blues, soul, jazz eta funk klasikoaren errepertorio indartsua eskaintzen du kontzertuetan. Debalde.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:30etan.

OÑATI Aequus Ensemble orkestra
Beethovenen, Elgarren eta Wagnerren obrak.
Parrokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Musika entzunaldiak: kantua
Leizarra musika eskolako ikasleen eskutik.
Arkupen, 19:00etan.

ASTELEHENA 17

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Bergaran, Oñatin, Antzuolan eta Arrasaten.
Leku horietan, 12:00etan.

ARETXABALETA Basotxoren batzar orokorra
Erretiratuaren elkarteko bazkideendako.
Arkupen, 17:30etan.

ARETXABALETA Musika entzunaldiak: instrumentuak
Leizarra musika eskolako ikasleen eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

MARTITZENA 18

ARETXABALETA Ikasturte amaierako kontzertua
Leizarra musika eskolako ikasleek egingo dute.
Arkupen, 18:00etan.

ELGETA Ixotzenen batzar orokorra
Bazkideendako.
Udaletxean, 18:30etan.

ARRASATE 'Etxe txikinek 100 urte' liburuaren aurkezpena
Herritar guztiendako.
Kulturaten, 18:30etan.

OÑATI Jaiak antolatzeko bilera
Sanmigelel begirako batzarra, Udaleko kultura ordezkariekin eta herritarrekin.
Kultura etxean, 18:30etan.

BERGARA 'Uda dantzan' ikuskizuna
Bergarako musika eskolaren eskutik. 70 dantzari elkartuko dira.
San Martin plazan, 19:30etan.

EGUAZTENA 19

ARETXABALETA 'Debagoiena elikadura burujabetzarantz' jardunaldia
Informazio osoa 4. orrian.
Arkupen, 09:15ean.

ARETXABALETA Musika entzunaldiak: instrumentuak
Leizarra musika eskolako ikasleak.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua
Kalean egitarauaren baitan.
Atzeko kalean, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiko produktuak erosteko.
Oxirondon, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Gora bihotzak!' ikuskizuna
Eidabe taldearen eskutik, 7x7 kultura kalean ekimenaren baitan.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

El último verano
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19.30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

GASTEIZ

FLORIDA

La última sesión de Freud
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 21:45.
Domeka: 19:30.
Astelehena eta martitzena: 19:15.
Siempre nos quedará mañana
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Martitzena: 19:30.

Amigos imaginarios

Egubakoitza: 19:00.
Zapatutik martitzenera: 17:00.

La promesa de Irene

Egubakoitza: 16:30, 21:15.
Zapatua: 19:15, 21:45.
Domekatik martitzenera: 19:15.

Bad boys: ride or die

Egubakoitza eta zapatua: 19.30, 22:00.
Domeka: 16:30, 19:30.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Paradise is burning

Egubakoitza: 18:45.
Zapatua: 18:45, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 19:45.

El cielo rojo

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 22:00.
Domeka: 20:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 17:15.

Eureka

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:00, 21:45.
Domeka: 16:30, 19:00.
Astelehena: 16:45, 19:15.
Martitzena: 16:45, 19:30.

La patria perdida

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka: 19:00.
Astelehena eta martitzena: 17:15, 19:30.

Vidas perfectas

Egubakoitza: 17:00, 22:00.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30.
Domeka: 16:30, 18:30.
Astelehena: 17:15, 19:15.
Martitzena: 17:15.

Hit man. Asesino por casualidad

Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Gardfield: la película

Egubakoitzetik domekara: 19:30.

BERGARA Katarsia taldea
Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoaren bosgarren urteurrenaren baitan. Debalde.
Kartzela zaharrean, 20:00etan.

BERGARA 'La chimera' pelikula
Jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarioan, 20:00etan.

EGUENA 20

ARRASATE Sasoibide
Ikurrinen bidea egingo dute. Ikasturteko azkena uztailaren 4an izango da: Donostia-Pasaia. Aurrez eman behar da izena.
Biterin, 10:00etan.

ESKORIATZA Odol-ateratzea
Autobusa egongo da. Orduetgia: 16.30-20:15.
Fernando Eskoriatza plazan.

ESKORIATZA Jubilatuen merienda
San Pedro jaien aurreko merienda.
Gernika plazan, 18:00etan.

ARETXABALETA Musika entzunaldiak: instrumentuak
Leizarra musika eskolako ikasleak.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE AKS sariak
Azken urtean nabarmendu diren herriko kirolariei eta kirol taldeei aitortza.
Seber Altube plazan, 18:30etan.

ARRASATE 'Los hijos bastardos del charlatán' liburuaren aurkezpena
Ander Santiago Vega egileak egingo du, Maider Morrasen eta Belen Fernandezek laguntzarekin.
Kulturaten, 18:30etan.

BERGARA 'RR_6_erre(AH)ala' emanaldia
Hitzen performancea egingo du Maialen Lujanbiok. Sarrerak, zazpi euro.
Kartzela zaharrean, 20:00etan.

OÑATI Pintxo-potea eta 112 taldea
Fan Hemendik Egunaren harira.
Gaztetxean, 21:00etan.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

'Biri'

Gauza bitxia gertatu zaigu etxean, inolaz ere espero ez genuena. Bizilagun berri bat dugu! Duela aste bat, isil-isilik leiho ondora gerturatu eta lore artean zirkunferentzia perfektuzko habia eder bat egin ostean bertan gelditzea erabaki zuen, antza. Berde koloreko hiru arrautzatxo polit askoak errun zituen hiru egunez jarraian, eta hor segitzen du iragan egunotan, eten gabe, etxekoon begiradapean, arrautzak berotzen.

Biri izenez bataiatu dugu birigarro emea eta aitortu behar dut txundituta gauzkala guztiok. Izan ere, nolatan erabaki ote du bertan habia egitea? Ez al da, ba, egongo gure etxea baino toki lasaia gorik arrautzak erruteko? Dena den, ezin ukatuko dut *Biri*-k guztiok sortu digula halako poz berezi bat. Badirudi, egungo bizimoduan, gizakiok orokorrean mendi-basoetatik aldendu samar gabiltzan garaiotan, natura bera izan dela etxera gerturatu zaiguna.

Hain egin zaigu bitxia, ezen superstiziora jotzeko tentaldian, gertaeratzok bere horretan mezuren bat lekarkeela ere pentsatu baitugu.

Baina tira, superstizioak alde batera utzita, naturak eskaintzen digun opari txiki horretaz gozatzea pentsatu dugu. Gauzak ondo bidean, San Juan bezperetan *Biri* ama izango da eta guk bazkari eder batekin ospatuko dugu bizitzatxo berrien etorrera.

BUKATZEKO

Off-eko ahotsak eman dio spot onenaren saria

Oihan Loiti arrasatearrak Euspot lehiaketako sari nagusia irabazi du, 'Izan burua, altxa burua' lanarekin. Spotaren kalitate teknikoa eta mezuaren egokitasuna hobekien islatu izana azpimarratu ditu epaimahaiak erabakia hartzeko orduan

Mireia Bikuña Madrid ARETXABALETA Oihan Loiti arrasatearrak irabazi du XII. Euspot lehiaketaren sari nagusia, *Izan burua, altxa burua* lanarekin. Epaimahaiak lanaren kalitate teknikoa azpimarratu du, eta mezuaren egokitasuna hobekien islatu duena izan dela gaineratu. "Pozik hartu dut saria. Bereziki, epaimahaiak lana aintzat nola hartu duen ikusita", esan du Loitik, 1.000 euroko saria eskuetan.

Are gehiago, epaimahaiak emandako arrazoietakoa batekin ados dago Loiti. "Oso gustura geratu naiz off-eko ahotsaren mezuarekin. Indar handia duela uste dut, eta transmititu gura nuena transmititzen duela esango nuke. Baina mezu hori irudikatzea zailagoa izan da. Nahiko arrapaladan grabatu nuen, eta, akaso, ez nuen guztiz asmatu", dio.

Lehenengo testua

Off-eko ahotsak duen indarra izan da spotaren abiapuntua. Testua sortu zuen lehenengo Loitik. Ostean etorri ziren irudiak. "Zaila izaten da 30 segundotan laburtzea kontatu gura dena. Aurretik banuen esperientzia Euspoten, eta banekien oso



Oihan Loiti, Miren Dobaranen eskutik saria jasotzen. EUSPOT

zaila zela irudi bidez istorio bat kontatzea. Orduan pentsatu nuen kontatu gura nuen hori kontatzeko narratiba erabiltzea zela errazagoa eta erosoagoa. Hala, off-eko ahotsaren indarrean oinarritutako spota da. Alegia,

narratibari eman gura izan diot garrantzia. Irudiek laguntzen dute mezua ulertzen".

Spot laburrak

Telefono mugikorrek eta adin txikiokoak izan da aurtengo gaia,

eta hori islatzeko 30 segundoko spotak aurkeztu behar izan dituzte. Hortaz, mezu zuzenak izan behar zuten. "30 segundok ez dute askorako ematen, baina, era berean, denbora labur horretan norberak gura duen mezua transmititzen jakiteak denbora luzea dauka atzetik. Ze irudi edo ze berba erabili jakiteko, sintesi ariketa sakona eskatzen du. Mezuaren asmatzea dago gakoa".

Kalitate teknikoa

Guztira, 87 lan jaso dituzte antolatzaileek, eta horien artean egin dute aukeraketa. Lanak ikusgai egon dira Euspoten webguneak eta Loitik ere ikusi ditu guztiak. "Kalitate aldetik lan onak egon direla esango nuke. Maila handiko lanak. Adibidez, Mondragon Unibertsitateko ikasleen saria irabazi duen *Distrakzioaren, adikzioa* lana oso ona da, kalitate tekniko handikoa. Alegia, maila handiagoko lanak egin badira ere, uste dut mezuaren egokitasunean egon dela aurtengo hutsune handiena", azpimarratu du Loitik.

Proiektuak finantzatzeko

Loitik badaki zer den Euspoten parte hartu eta lehiaketa irabaztea. 15, 16 eta 17 urterekin parte hartu izan du, eta sariak ere irabazi ditu, gazteen mailan. Pare bat urteko hutsunearen ostean, unibertsitatea animatuta, aurtengoa aurkeztu da, eta lehen saria eskuratu du. "Gurea oso eremu ezegonkorra da, eta dirua oso ondo etorriko zait, bizirauteko. Bereziki, buruan ditudan proiektuak finantzatzeko erabiliko dut sariaren dirua".

HIRUGARREN MAILARA IGOERA JOKOAN

ARETXABALETAREN 'PLAY-OFF'-EKO PARTIDUAK
EMANDAKO 'HARMAILATIK' SAIOAN

EKAINAREN 17AN, ASTELEHENA, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

